Por lo que respecta al ámbito pesquero, he observado que tampoco le prestan atención. Sorpresivamente, ni una palabra suya, señor candidato, sobre la puñalada que han asestado en Bruselas a nuestros "arrantzales" de la flota de bajura. Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak exige a su Gobierno una ayuda especial al sector conservero, adaptándolo a las nuevas necesidades del mercado. Pedimos igualmente el cumplimiento del Plan Estratégico de Pesca, respetando la necesaria transformación y democratización de las cofradías. Sería importante avanzar en la imposición de la acuicultura como campo de iniciativas para la economía social y para la creación de empleo.

Coincidimos en la apuesta por el pleno desarrollo del Estatuto. Coincidimos en las relaciones de Euskadi con Europa y con las Comunidades vecinas. Usted conoce nuestra apuesta en este campo. Defendemos el Estado federal español y el derecho de autodeterminación. Tenemos una buena ocasión para debatir la configuración de nuestra Comunidad a partir de la iniciativa que ha presentado nuestro grupo en esta Cámara solicitando la supresión de los gobernadores civiles, figura preconstitucional y fuera de lugar en un Estado descentralizado. Una buena ocasión para ver la cohesión programática de su Gobierno.

ekonomikoa kokaturik dagoen erakunde-egitura barreiatu, garesti eta inefikazari, ezta gure industri larrialdiak dituen egitura-kausei ere. Ez duzu plazaratu nahi izan eta ez duzu plazaratu nahi ez lurraren arazoa, eta ez gizarte-intereseko desjabetzeen kontua ere. Beharbada neurri horiek zure alderdiaren hauteskunde-interesei eragiten dietelako, Benta Berri kasuan, adibidez.

Akats horien aurrean, Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Taldeak industri politika alternatiboa taiutzea proposatzen du, inbertsio produktiboan eta egiturazko hutsuneen konponketan oinarrituriko politika bera. Beharrezkoa da beste politika bat ihardunean jartzea, alegia zeharkako zergei ez baina kapitalaren irabaziei eta ondasun handiei ekiten dien politika. Lana bultzatzeko beste politika bat nahi dugu, lan produktiboa eta lan erreproduktiboa babestea, sortzea eta banatzea proposatzen duena. Lanaldiaren murriztea bultzatzen dugu, zeren denek lana izateak utziezinezko helburua izaten baitirau gure taldearentzat.

Arrazoi ildo horri jarraiki, neurri berean ere ardura dit zuk tokirik ez eskaintzeak zeure gobernu-programan -ezta lerro bakarra ere- nekazaritza eta basozaintzako politikari, batez ere sektore horiek ataka larri-larrian daudeneko honetan. Behar-beharrezkoa da beste nekazaritza eta abelzaintza politika bat, alegia Nekazaritza Ganbaren Legea aldatzen duena, gizarte-agenteen eskuhartzea bermatzeko bai Egiturazko Fondoen banaketan, bai proiektuen prestaketan, bai kalitate edo '"label"en irizpideetan. Funtsezkotzat jotzen dugu, bestalde, egiazko oihaneztatze-plangintza bat lortzea, lehentasuna bertoko espezieei emango diena.

Arrantzaren esparruari gagozkiola, ikusi dut hari ere ez diozuela konturik egiten. Harrigarria izan arren, hitz bat bera ere ez duzu egin, lehendakarigai jauna, Brusselan baxurako gure arrantzaleei eman dieten sastakadaren gainean. Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Taldeak irmo eskatzen dio zure Gobernuari laguntza berezia emateko kontserba-sektoreari, merkatuak dituen beharrizan berriei egokituz. Eskatzen dugu, baita ere, Arrantzarako Plangintza Estrategikoa betetzea, kofradien beharrezko eraldatze eta demokratizatzea errespetatuz. Garrantzizkoa litzateke aurrera joatea akuikultura ekimen-eremu modura ezartzen, bai gizarte-ekonomia bultzatzeko bai lana sortzeko.

Bat gatoz Estatutua osorik garatzeko egindako apustuan. Bat gatoz, berebat, Euskadik Europarekin eta aldameneko Elkarteekin izan behar dituen harremanetan. Zuk badakizu zer apustu egin dugun eremu honetan. Espainiako Estatu federala eta autodeterminatzeko eskubidea defenditzen dugu. Egokiera on bat dugu gure Elkartearen egituraketa eztabaidatzeko, gure taldeak Biltzar honetan gobernadore zibilak, figura prekonstituzionala eta Estatu deszentralizatuan tokitik kanpo dena, kentzea eskatzeko aurkeztu duen ekimenean oinarrituta. Egokiera on bat, benetan, zure Gobernuak programan duen kohesioa ikusteko.

En relación a la búsqueda de la paz, ustedes se refieren de un modo particular al pacto y a la Mesa de Ajuria Enea. A la vista de la situación le tengo que decir que quedan un poco lejanas aquellas palabras suyas de hace cuatro años, cuando señalaba que dicho acuerdo fue más allá de la coalición gubernamental existente y abarcó desde su propia gestación a todos los partidos que participan activamente en las labores de esta Cámara. "El acuerdo seguirá, por tanto, siendo de todos", decía usted en ese momento.

Ustedes han utilizado ese tema como si correspondiera a la acción de gobierno. Les recuerdo que en torno al acuerdo de Ajuria Enea no existen mayorías ni minorías, no existe Gobierno ni oposición. Existen partidos que suscriben el acuerdo y otros que no lo suscriben. Todos están en pie de igualdad. Ustedes han roto unilateralmente este principio. En cualquier caso, le señalo que nosotros estamos por el diálogo y la reconciliación, pero no estamos por la manipulación partidista de ese pacto ni por las iniciativas unilaterales.

En lo concerniente al medio ambiente el acuerdo programático muestra las mismas carencias que hemos sufrido hasta ahora por la acción de sus distintos Gobiernos. La falta de compromiso para afrontar los graves problemas de contaminación y pérdidas irreparables de recursos naturales se intentan ocultar tras unos principios generales vacíos de contenido. El medio ambiente, como siempre, permanece relegado a un plano secundario en la propuesta de acción y de actuación del futuro Ejecutivo.

No se pueden afrontar los problemas del medio ambiente sin medios humanos, sin inversiones y sin instrumentos jurídicos adecuados. Además, la dispersión de competencias en el seno del Ejecutivo es aún mayor a consecuencia del reparto de Consejerías pactado entre el Gobierno tripartito. Este hecho dificultará aún más el proceso de acción gubernativa, que debería abordar sin dilación las siguientes medidas: cauces de participación ciudadana en las decisiones y el control de actuaciones que afectan al medio ambiente; una normativa clara y completa para la protección del medio ambiente; aprobación de planes de uso y gestión de los espacios protegidos; el fomento del desarrollo sostenible mediante las actividades públicas y privadas adecuadas que minimicen tanto la utilización de recursos naturales como la producción de residuos.

Me referiré a la situación de la Administración pública vasca constatando que existe ya un diagnóstico universalmente compartido en torno a la necesidad de aplicar una reforma urgente y profunda de la misma. Debo decir a este respecto, señor candidato, que mantenemos propuestas radicalmente diferentes tanto en relación a las causas como a las propuestas concretas para llevar a cabo dicha reforma. Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak defiende una alternativa que debería respaldar usted si de verdad quiere que nuestra Administración entre en un proceso inequívoco de recuperación del prestigio perdido y si quiere hacer al

Bakegintzari gagozkiola, zuek era berezian aipatzen duzue Ajuria Eneko hitzarmena eta Mahaia. Egoera ikusirik, esan behar dizut urruti samar daudela orain lau urte esan zenituen hitzak, alegia esaten zenuenean akordio hori orduko gobernu-koaliziotik harantzago joan zela eta, sorreratik bertatik, Biltzar honetako egitekoetan ekinean-ekinean parte hartzen duten alderdi guztiak bildu zituela bere baitan. "Akordioa, beraz, denona izango da aurrerantzean ere", esaten zenuen orduan.

Gobernu-ekintzari dagokiona balitz bezala erabili duzue gai hori. Gogoratu behar dizut, hortaz, Ajuria Eneko akordioaren inguruan ez dela ez gehiengorik eta ez gutxiengorik, ez dela ez Gobernurik eta ez oposiziorik. Alderdi batzuek akordioa onartzen dute, eta besteek ez dute onartzen. Hein berean dira denak. Zuek alde bakarrez apurtu duzue hatsarri hori. Esango dizut, nolanahi ere, gu elkarrizketaren eta bakeak egitearen alde gaudela, ez ordea hitzarmen hori ezein alderdik oker erabiltzearen alde eta ez alde bakarreko ekimenen alde.

Ingurugiroari dagokionez, programan iritsitako akordioak orain arte zure Gobernu guztien ekintzagatik jasan ditugun hutsune berberak erakusten ditu. Kutsadura-arazo larriei eta baliabide naturalen galera erremediaezinei aurre egiteko konpromisorik eza, adibidez, ezkutatu egin nahi duzue halako hatsarri orokor huts batzuen atzean. Ingurugiroak, betiko moduan, bigarren toki batera baztertuta dirau hurrengo Exekutiboak prestaturiko ekintza eta ihardunerako proposamenean.

Ez dago ingurugiroko arazoei ekiterik giza baliabiderik gabe, inbertsiorik gabe eta lege-tresna egokirik gabe. Eskumenak, gainera, are barreiatuagoak ditugu Exekutiboaren barruan hiru alderdiko Gobernuak bere artean hitzarturiko sail-banaketaren ondorioz. Horrek oraindik eragozpen gehiago ekarriko dizkio gobernu-ekintzari, luzatu gabe honako neurri hauek gauzatu beharko lituzkeen gobernu-ekintzari: herritarrek erabakietan parte hartzeko bideak eta ingurugiroari eragiten dioten ekintzen kontrola; ingurugiroa babesteko arautegi argi eta osoa; eremu babestuak erabili eta kudeatzeko plangintzak onestea; garapen eramangarria sustatzea iharduera publiko eta pribatuak direla medio, nola baliabide naturalak erabiltzea hala hondakin-sortzea ahalik eta gutxien murrizten duten iharduerak berak.

Euskal Administrazio publikoaren egoeraz iharduterakoan, egiaztatu behar dut badela diagnostiko bat, den-denek onartutakoa bera, administrazio hori lehenbailehen eta sakon eraberritu beharra dagoelakoa. Esan behar dut horretaz, lehendakarigai jauna, zeharo proposamen desberdinak ditugula bai zioei dagokienez eta bai eraberritze hori aurrera eramateko proposamen zehatzei dagokienez ere. Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Taldeak bultzatzen du aukera bat zeuk ere babestu behar zenukeena benetan nahi baduzu gure Administrazioa galduriko izen ona berreskuratzen hastea, inolako zalantza barik berreskuratzen hasi ere,

mismo tiempo de nuestro sector público un elemento primordial en la redistribución más equitativa de la riqueza.

Es imperiosa la necesidad de adoptar medidas en los órdenes político, legislativo y organizativo encaminadas a obtener la justicia social y la igualdad entre los ciudadanos: la descentralización política, administrativa y financiera, la democratización de los servicios y relaciones laborales, la participación de los usuarios, la transparencia en las decisiones administrativas, el derecho de los ciudadanos a una Administración bilingüe y el de los trabajadores del sector público a no ser discriminados para el acceso, la promoción o la estabilidad a consecuencia de la aplicación de planes de normalización lingüística.

Sobre la política lingüística en general creemos fundamental avanzar desde el consenso de todos, ya que en caso contrario corremos el riesgo de la fractura y confrontación social y política.

Nosotros optamos, en suma, por un modelo de Administración pública moderna, eficaz y euskaldun. Es imprescindible incrementar la eficacia de los servicios y controlar su gasto, deslegitimando propuestas privatizadoras fundadas en su ineficacia y costo excesivo. Hay que recuperar el prestigio de los gestores públicos, en permanente deterioro por los escándalos económicos, por los privilegios insostenibles, contratos blindados, etcétera. Se debe apostar por la transparencia en la gestión y el gasto. Se debe apostar por una política de empleo que garantice los principios de igualdad, mérito y capacidad. Se debe acabar con la plaga endémica del clientelismo, que se ha erigido en uno de los "leitmotiv" de las crónicas de tribunales en todos los medios de comunicación. También defendemos la optimización de los recursos humanos mediante la exigible reducción, pues Euskadi está a la cabeza en proporción al número de habitantes en altos cargos, puestos de libre designación, asesores especiales, arrendamiento de servicios, etcétera.

Para desarrollar estos mecanismos su Gobierno deberá adoptar una serie de medidas tales como la revisión de la LTH y la redacción del estatuto del político vasco. Todo ello bajo criterios de supresión de privilegios económicos. Es necesaria una definición del alto cargo y formación de catálogo de puestos afectados, determinando el régimen de incompatibilidades, exclusividad, niveles retributivos, indemnización por cese, prestaciones por desempleo, utilización de coches oficiales, recepción de regalos y estatuto especial para ex-lehendakaris.

También resulta prioritario, y más ahora ante el caso GAL, el establecimiento de un mecanismo de control parlamentario de los fondos reservados, así como una regulación de la participación institucional de los sindicatos en el IVAP.

Para Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak una premisa básica para afrontar esta reforma exige una

eta nahi baldin baduzu aldi berean gure sektore publikoa funtsezko elementu bihurtu ondasunak zuzenago banatzen.

Neurriak hartzeko premia handia dago politika, legegintza eta antolakuntzaren eremuetan gizarte-justizia eta herritar guztien arteko berdintasuna lortzeko: deszentralizazio politiko, administratibo eta finantzarioa, lan zerbitzu eta harremanen demokratizazioa, baliatzaileen eskuhartzea, erabaki administratiboen gardentasuna, herritarrek Administrazio elebiduna edukitzeko duten eskubidea, bai eta sektore publikoko langileek daukatena ere hizkuntza normalizatzeko planen ondorioz diskriminatuak ez izateko sarrera, promozioa edo eta egonkortasuna lortzerakoan.

Hizkuntz politika dela-eta oro ar funtsekotzat jotzen dugu denen kontsentsutik aurrera joatea, bestela arriskua baitugu hautsi eta gatazka sozial eta politikoak sortzeko.

Guk, labur ilduz, Aministrazio publiko berri, eraginkor eta euskaldunaren alde egiten dugu. Derrigorrezkoa da zerbitzuen eraginkortasuna gehitzea eta haien gastua kontrolatzea, bidezkotasuna kenduz pribatitzatzeko proposamenei, zerbitzu horien indarrik eza eta gehiegizko kostua oinarri duten proposamenei. Kudeatzaile publikoen izen ona berreskuratu behar da, etengabe narriatzen doana bera eskandalu ekonomikoengatik, pribilegio lotsagarriengatik, kontratu blindatuengatik, eta abarrengatik. Gardentasunaren alde egin beharra dago nola kudeaketan hala gastuan. Berdintasun, merezimendu eta gaitasun hatsarriak bermatzen dituen enplegu-politikaren alde. Akabera eman behar zaio klientelismoaren izurrite endemikoari, komunikabide guztietako epaitegien kroniketako "leitmotiv"etako bat bihurtu baita. Giza baliabideak ahal den ondoen erabiltzea ere defenditzen dugu murriztu beharrekoak murriztuz, Euskadi denen gainetik baitugu biztanle-kopuruaren ariora goi-kargudun, izendapen libreko lanpostu, aholkulari berezi, zerbitzu-alokatze, eta abarretan.

Zure Gobernuak hainbat neurri hartu beharko ditu mekanismo horien garatzeko: LHLa errebisatzea eta euskal politikariaren estatutua erredaktatzea. Eta hori guztia pribilegio ekonomikoak kentzea irizpide. Beharrezkoa da goi-karguduna definitzea eta horrek ukitutako lanpostuen katalogoa taiutzea, honakook zehaztuz bide batez: bateraezintasunen erregimena, esklusibitatea, lansari-mailak, kargu-uztearen ordaina, lanik ezaren prestazioak, automobil ofizialen erabiltzea, erregalien jasotzea eta lehendakari ohien estatutu berezia.

Lehentasunezkoa da berebat, eta are gehiago orain GAL kasua dela eta, mekanismo bat finkatzea diru bereizien kontrol parlamentariorako, baita sindikatuek HAEEen izan beharreko partaidetza instituzionala arautzea ere.

Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Taldearentzat erreforma horri ekiteko oinarrizko

apuesta clara e inequívoca en la defensa del servicio público. Nos negamos a aceptar que determinados servicios públicos, necesarios en las sociedades modernas, sean reducidos a la atención exclusiva de las clases sociales marginadas, a las que no se ofrece, sin embargo, una integración educativa, laboral y social.

Sus postulados, contrarios a los que acabo de explicar, nos están conduciendo al desmantelamiento del ya precario Estado del bienestar. Por lo que respecta a dos sectores claves tales como sanidad y educación, no estamos de acuerdo con su pretensión de dotarlos de presupuestos insuficientes, máxime cuando el gasto actual está ya muy por debajo de la media europea. Así pues, le reclamamos mayores partidas económicas y recursos para la sanidad y educación públicas, garantizando una atención de calidad, una planificación para cubrir las necesidades, una mejor gestión y un completo control democrático.

En el campo de la salud vamos a exigir la extensión a la totalidad de la población de la atención primaria y la creación de más plazas hospitalarias. Reivindicamos, por otra parte, soluciones urgentes a los problemas que sufren los pacientes terminales, enfermos de SIDA e inmigrantes, así como la puesta en marcha de unidades de psicogeriatría, rehabilitación, drogodependecia, salud de la mujer, derecho a la interrupción voluntaria del embarazo y salud mental. Nos tememos, a nuestro pesar, que el plan de salud aprobado por ustedes no contempla la solución a este paquete de medidas.

En lo que concierne al ámbito educativo, queremos expresar a los representantes de Eusko Alkartasuna la inquietud que se ha instalado en todos los estamentos de la escuela pública por el recuerdo de su breve paso y el colapso presupuestario en que situaron a este sector por su apuesta preferente por el ámbito privado.

A Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak nos preocupa el fracaso escolar y la falta de formación educativa y profesional adecuada. Exigimos además la aplicación inmediata de la reforma educativa, aprovechando mi presencia en esta tribuna también para reclamar un ley de financiación, la escolarización universal de cero a tres años, un aumento de plantilla en educación infantil y primaria, la reforma de la formación profesional reglada. En este sentido, reivindicamos la mejora de la capacitación lingüística real del alumnado a través de los tres modelos educativos existentes.

Por lo que respecta a la Universidad, no estamos de acuerdo con el actual sistema de acceso. Reclamamos además una mayor dotación económica, con especial atención a la investigación. En este aspecto, queremos plantear nuestro apoyo a los estudiantes de medicina, mencionando la necesidad de afrontar la reforma urgente de esta especialidad.

En la radio y televisión pública, señor candidato,

baldintza gisa, zerbitzu publikoaren alde egin beharra dago argi eta zalantza barik. Ez dugu onartuko zenbait zerbitzu publiko, gaur eguneko gizarteetan beharrezkoak direnak, murriztu eta soil-soilik klase sozial baztertuei kontu egiteko erabiltzerik, hain zuzen ere eta halaz guztiz, hezkuntza, lan eta gizarte integraziorik eskaintzen ez dieten klase sozial baztertuei, alegia.

Zure postulatuek, azaldu berri ditudanen aurkakoek, berez nahiko koloka den ongizate-estatua eraistera garamatzate. Bi sektore funtsezkori gagozkiela, osasunari eta hezkuntzari gagozkiela, ez gaude ados haiek aurrekontu murritzez hornitzeko duzun asmoarekin, batik bat oraingo gastua ere Europako bataz-besteko gastuaren oso azpitik dagoelako. Hortaz, partida ekonomiko eta baliabide handiagoak eskatzen dizkizugu osasun eta hezkuntza publikorako, hainbat puntu bermatzeko: kalitateko arreta ematea, beharrizanak osatzeko plangintza, kudeaketa hobea eta guztizko kontrol demokratikoa.

Osasunaren alorrean herritar guztiengana zabaltzea eskatuko dugu, irmo eta sendo eskatu ere, nola oinarrizko osasun-laguntza hala ospital-toki gehiago sortzea. Berehalako irtenbideak eskatzen ditugu, bestalde ere, eri terminalek, HIESdunek eta etorkinek pairatzen dituzten arazoentzat, hala nola honakook abian jartzea ere: psikogeriatri unitateak, errehabilitazioarenak, drogomenpetasunarenak, emakumearen osasunarenak, haurdunaldia norbere borondatez eteteko eskubidea eta buruko osasuna. Beldur gara, gure gogoz beste bada ere, onartu duzuen osasun-planak ez duela neurri-sail horrentzako irtenbiderik jasotzen.

Hezkuntzari dagokionez, Eusko Alkartasunako ordezkariei kezka bat nahi diegu azaldu, hots, eskola publikoaren maila guztietan izan zenuten igaroaldi laburra gogoratu hutsez erne den kezka, bai eta eremu pribatua aurreneko lekuan jarri zenutelako eskola publikoaren aurrekontuek izan zuten kolapsoa ere.

Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Taldekooi ardura digu, bai, eskola-porrotak eta behar bezalako prestakuntza edukatibo eta profesionalik ezak. Hezkuntza-erreforma berehala aplikatzea exigitzen dugu gainera, eta tribuna honetan nagoela aprobetxaturik finantzazio-lege bat ere eskatuko dut, hala nola 0-3 urtera bitarteko haur guztien eskolatzea, haur eta lehen mailako hezkuntzan plantila gehitzea eta lanbide-heziketa arautuaren erreforma. Alde horretatik, ikasleen benetako hizkuntz gaitasunaren hobekuntza erreibindikatzen dugu, hiru hezkuntza-ereduen bitartez gauzatu beharrekoa.

Unibertsitateari gagozkiola, ez gaude ados oraingo sarrera-sistemarekin. Hornidura ekonomiko handiagoa ere eskatzen dugu, aparteko arreta emanez ikerketari. Alderdi hori dela eta, geure babesa azaldu nahi diegu medikuntzako ikasleei, espezialitate hori lehenbailehen eraberritu beharra dagoela aldarrikatzen dugularik.

Irrati eta telebista publikoan, lehendakarigai

el panorama no ha sido más halagüeño. Bien sabemos que EITB ha sido hasta ahora territorio comanche, una zona hostil, no sólo para nosotros, la izquierda, sino para toda la sociedad vasca que no comulgue con los postulados de su partido. Lo mismo ocurre con Radio Televisión Española, que se encuentra secuestrada por el PSOE. Unos medios públicos que, he de recordarle, pertenecen a toda la ciudadanía.

No han sabido aprovechar las posibilidades de la televisión y la radio públicas, ni tampoco de sus excelentes trabajadores y profesionales. No han querido infundir a la sociedad mensajes de solidaridad, igualdad entre los hombres y las mujeres, de fraternidad entre los pueblos.

Señor candidato, Izquierda Unida/Ezker Batua/ Berdeak le demanda un giro radical en la gestión de EITB garantizando una mayor transparencia, pluralidad informativa, igualdad de oportunidades y participación de profesionales y agentes sociales en el Consejo de Administración con voz y voto.

Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak se caracterizará por ser una fuerza que luchará en esta Cámara por aquellas políticas de igualdad dirigidas a nuevos sujetos sociales y colectivos discriminados. Colectivos entre los que incluimos a las mujeres, que son un nuevo sujeto social de transformación de una sociedad que les niega la igualdad real. Su programa no contempla este colectivo como sujeto necesitado de políticas de discriminación positiva; por ello le vamos a reclamar el fiel cumplimiento del plan de igualdad ya aprobado.

Del mismo modo exigiremos que se afronte con valentía el fenómeno de la feminización de la pobreza. En Euskadi, señor candidato, la pobreza principalmente tiene rostro de mujer, mujeres monoparentales, viudas, mujeres marginada e inmigrantes. Para todas ellas vamos a reclamar por justicia la adopción de políticas específicas de ayuda e integración.

Respecto a la juventud nos preocupa la falta de políticas específicas que palien los problemas del presente y del futuro. De forma especial nos inquieta que muchos de estos jóvenes sufran la imposición de una cultura militarista a través del servicio militar obligatorio y una ley de Objeción de Conciencia penalizadora. Rechazamos que los insumisos sean encarcelados y, por tanto, abogamos por la despenalización de la insumisión. Pedimos la abolición del servicio militar obligatorio.

Ni una palabra en su programa de gobierno sobre los inmigrantes. Le quiero recordar que el Estatuto obliga a los poderes públicos a establecer aquellas actuaciones y aquellas políticas que permitan una mejor garantía y una mayor garantía de los derechos fundamentales y su integración social y cultural. Constatamos un incumplimiento de su Gobierno, pues la

jauna, ez dugu askoz ere panorama atseginagorik izan. Ondo dakigu, ondo jakin ere, EITB orain arte "komantxeen lurraldea" izan dela, etsaien eremua alegia, ez guretzat, ezkerrarentzat, bakarrik, baita zure alderdiaren postulatuak onesten ez dituen euskal gizarte guztiarentzat ere. Berdin gertatzen da Radio Televisión Españolarekin ere, PSOEk bahiturik baitauka. Eta bitarteko publiko horiek, gogorarazi behar dizut, herritar guztienak ditugu.

Ez dituzue aprobetxatzen jakin telebista eta irrati publikoen ahalmenak, ez eta dituzten langile eta profesional bikainen ahalmenak ere. Ez diozue bidali nahi izan gizarteari elkartasun-mezurik, gizon eta emakumeen arteko berdintasun-mezurik, herrien arteko senidetasun-mezurik.

Lehendakarigai jauna, Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Taldeak erabat aldatzeko eskatzen dizu EITBren joera honakook bermatzeko: gardentasun handiagoa, aniztasun informatiboa, aukera-berdintasuna eta profesionalek eta gizarte-agenteek Administrazio Kontseiluan partaidetza izatea hitzarekin eta botoarekin..

Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak Taldeak, bere ihardunaren ezaugarri, berdintasun-politika jakin batzuen alde egingo du borroka Biltzar honetan, gizarte-subjektu berriei eta talde diskriminatuei zuzendutako berdintasun-politiken alde. Eta horien artean emakumeak sartzen ditugu, hain zuzen ere egiazko berdintasuna ukatzen dien gizartea eraldatzeko gizarte-subjektu berria direnak. Zure programak talde hau nola hartzen duen ikusita, emakumeek ez omen daukate aldeko diskriminazio-politiken beharrik; horregatik, onartua dagoen berdintasun-plana zintzoki betetzeko eskatu behar dizugu.

Ausardiaz ekiteko exigituko dugu, era berean, pobrezia emakumetzearen fenomenoari. Euskadin, lehendakarigai jauna, pobreziak emakume-aurpegia du batik bat, emakume guraso-bakar eta alargunen aurpegia, emakume baztertu eta etorkinen aurpegia. Haientzat guztientzat, zuzena delako, laguntzeko eta integratzeko politika espezifikoak eskatuko ditugu.

Gazteriari dagokionez berarizko politikarik ezak kezkatzen gaitu, oraingo eta geroko arazoak konpon ditzakeen berarizko politikarik ezak. Aparteko kezka ematen digu, hortaz, gazte horietariko askok halako kultura militarista jasan beharrak bai derrigorrezko soldadutzaren bitartez, bai zigorra oinarri duen Kontzientzia Eragozpena Legearen bitartez ere. Gaitzesten dugu intsumituak espetxeratzea eta, beraz, intsumisioa ez zigortzearen aldekoak gara. Derrigorrezko soldadutza deuseztekо eskatzen dugu.

Hitzik bat ere ez zeure gobernu-programan etorkinei buruz. Gogorarazi nahi dizut, hortaz, Estatutuak behartu egiten dituela agintaritza publikoak zenbait ekintza eta zenbait politika antolatzera, oinarrizko eskubideak hobeto eta gehiago bermatzeko eta etorkin horien integrazio sozial eta kulturala lortzeko bide emango duten ekintza eta politikak. Egiaztatu

mayoría de las más de 25.000 personas nacidas en el extranjero que residen en la Comunidad Autónoma no han visto garantizados sus derechos fundamentales. No se ha creado un plan global de prevención e intervención que subsane y palie las verdaderas situaciones sangrantes que sufren estas personas. No podemos olvidar a la dominicana que el otro día se suicidó ante la inminente expulsión, o al africano muerto de frío en Santurtzi.

Nos referimos también a los "sin techo", ese colectivo de cientos y cientos de indomiciliados y transeúntes. Ésta es una realidad que no ha sido abordada en la ley de Servicios Sociales. Es necesaria una modificación legal que introduzca los cambios oportunos para que situaciones como la del mendigo muerto en el parque de Bilbao no vuelvan a producirse.

En su programa se ha referido a la concesión a los países del Tercer Mundo del 0,7 de los Presupuestos. Siendo esto positivo, queremos señalar que la reivindicación de la plataforma correspondiente se refiere, como usted bien sabe, al 0,7 del PIB.

Denunciamos la política de boicot que se practica a las ONG críticas que cuestionan la política del Gobierno en materia de subvenciones. Queremos poner de manifiesto la prepotencia, favoritismo y secretismo a la hora de decidir a qué ONG o entidad se conceden las subvenciones. Ayudas que en muchos casos van destinadas a entidades que ni siquiera cumplen la normativa de las ONG y que, sin embargo, se llevan la parte del león de la subvención.

Demandamos, por otra parte, la puesta en marcha del Consejo Vasco de Cooperación con representación plural e implicación en el mismo de los agentes sociales. A este respecto nos parece sospechoso el intento de dotar de un papel protagonista a las casas vascas en los países del sur, cuya experiencia en materia de cooperación es bastante pequeña.

Por todo lo dicho, señor Ardanza, la sociedad vasca comprenderá por qué vamos a votar en contra de su investidura. Debo decirle con toda firmeza, simple y llanamente, que usted y nosotros defendemos programas antagónicos. El suyo nos parece conservador y lesivo para los intereses de los trabajadores y los sectores populares de Euskadi.

Nuestra única guía de actuación política en esta Cámara será nuestro programa. Nos encontraremos siempre que sus propuestas sean favorables a los intereses de los trabajadores. En este caso, nuestro apoyo será gratuito. Pero, por contra, estaremos enfrentados e Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak ejercerá una oposición clara y rotunda cada vez que su política perjudique a los sectores más desfavorecidos. Seremos, que no le quepa ninguna duda, esa alternativa que no dejará dormir la siesta ni a usted ni a su Gobierno tripartito, ni al conjunto de sus señorías que comparten el programa que usted ha presentado a consideración de

egiten dugu Gobernuak ez duela hori betetzen, bada atzerrian jaio eta Autonomi Elkartean bizi diren 25.000tik gora lagunetatik gehienek ez dituzte oinarrizko eskubide horiek bermatuta eduki. Ez da sortu aurrehartze eta eskuhartze plan globalik lagun horiek pairatzen dituzten benetako egoera latzak konpondu eta arintzeko. Ezin dezakegu ahaztu lehengo egunean, berehalaxe kanporatu behar zutela eta, bere burua hil zuen emakume dominikarra, edo eta Santurtzin hotzak akabaturiko gizon afrikarra.

"Aterbegabeez" ere ari gara, ehundaka eta ehundaka etxegabeko eta iragalek osatzen duten talde horrez. Errealitate hori jaso gabe dago Gizarte Zerbitzuen Legean. Legezko aldaketa bat behar da, beraz, egin beharreko aldaketak egin ditzan eta, horren ondorioz, ez gertatzeko atzera Bilboko parkean hildako eskalearena bezalako gertaerarik.

Zeure programan esan duzu aurrekontuen 0,7 eman behar zaiela Hirugarren Munduko herriei. Esan nahi dugu, hori onuragarria bada ere, dagokion plataformaren eskakizunak BPGaren 0,7 dioela, zuk ondo dakizun moduan.

Salatu egiten dugu Gobernuaren dirulaguntza-politika zalantzan jartzen duten GKE kritikoekin erabiltzen den boikot-politika. Agertzera eman nahi dugu, hortaz, nagusikeriaz, begikokeriaz eta ezkutukeriaz jokatzen dela dirulaguntzak zein GKEri edo zein erakunderi eman behar diren erabakitzerakoan. Eta laguntza horiek, askotan, GKEen arautegia ere betetzen ez duten erakundeengana joaten dira, dirulaguntzaren zatirik mardulena bereganatzen dutenengana, alajaina.

Lankidetzarako Euskal Kontseilua ihardunean jartzeko ere eskatzen dugu, baten baino gehiagoren ordezkaritzarekin eta bertan gizarte-agenteek esku hartzen dutela. Hori dela eta susmagarri deritzogu halako aitzindaritza eman nahiari hegoaldeko herrietako euskal etxeei, lankidetzaren alorrean nahiko esperientzia txikia dutenei.

Esandako guztiagatik, Ardanza jauna, euskal gizarteak ulertuko du zergatik emango dugun zu izendatzearen aurkako botoa. Irmotasun osoz esan behar dizut, argi eta garbi esan behar ere, zuk eta guk zeharo bestelako programak defenditzen ditugula. Zureari kontserbadore eta kaltegarri deritzogu Euskadiko langileen eta herri-sektoreen interesentzat.

Geure programa izango dugu bide-erakusgarri bakarra Biltzar honetan ekintza politikorako. Adostasuna izango dugu zure proposamenak langileen interesen aldekoak diren guztietan. Hori gertatzen denean, gure babesa ordainik gabea izango da. Baina, aldiz, aurrean izango gaituzue, eta Izquierda Unida/Ezker Batua/Berdeak aurkaritza argia eta sendoa egingo du zuen politikak talde txiroenei kalte egiten dien bakoitzean. Ez dudarik egin ez zuri ez zure Gobernu tripartitoari, ez eta Legebiltzar honetara aurkeztu duzun programarekin bat datozten jaun-andre guztioi ere, ez dizuegula lorik egiten utziko.

esta Cámara.

Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Madrazo jauna.

Eusko Alkartasuna Taldeko ordezkariak du hitza. Garaikoetxea jaunak du hitza.

El Sr. **GARAIKOETXEA URRIZA**: Lehendakari jauna, lehendakaritzarako hautagai jauna, legebiltzarkide jaun-andreok. Legealdi berri baten atarian gaude eta gure herriak arazo larriak ditu erabakitzeke. Joan diren legealdietan behin eta berriz gainditzeko genituen erronkei buruz mintzatu ginen, eta, zoritxarrez, egia esan, oraindik ere hauek hor diraute gure gizartearengandik zintzilikaturik: bukaerarik ez duen krisialdi ekonomikoa, gure ekonomia jipoituaren oinarri den industri birmoldaketa, langabeziaren indize jasanezinak, gure nekazaritza edo arrantzarekin gupidatsuagoa ez den nazioarteko konpetentziak dakarren itomena, sektore ahulenak bereziki ihaultzen dituen gizarte batean areagotzen doazen talde baztertuak, herri honen kultur erronkei aurre egiteko jarrera amankomun bat lortzeko dugun zailtasuna, lur jota dagoen gure habitata berreskuratzeko zailtasuna. Eta egoera nahasi honen atzean, gure ikuspuntuak aurrez aurre jartzen dituen eraberritze nazional bat eta gainditu gabeko arazoa osatzen duten autogobernu-helburuak ditugu.

Beraz, datozen lau urteetan aurre egin behar diogun egoera ez da atseginena. Eta horrelako arazo larrien aurrean, herri batek bere energia guztiak batu egin behar ditu. Eta, tamalez, hortxe dugu gure herriaren izugarrizko drama. Guztion ahalegina behar-beharrezkoa den momentuetan inoiz bukatzen ez den gure arteko enfrentamenduetan galtzen dugu energia gehien hori. Gure elkarbizitza edo konbibentzia ez da normalizatzen. Pakea ez da oraindik posible izan. Alderantziz, esango nuke nik, enfrentamendu sozialaren muin berriak sortzen doaz eta herri bereko semeak enfrentatzen dituen arazo berriak azaltzen.

Egoera latz honen aurrean, gure herriak bere ordezkariak aukeratu ditu, eta berriz ere garbi azaltzen da Legebiltzar honetan ideien aniztasuna eta, noski, honek dakarren zailtasuna programa eta zuzendaritza politiko sendo eta koherente bat duen Gobernua osatzerakoan.

Egoera korapilatsu honen aurrean, legebiltzarkide jaun-andreok, hauteskunde-emaitzak ezagutu bezain laster, Eusko Alkartasunak errespontsabilitate-ahalegin guztiak egin zituen herri honi gobernagarritasunean laguntzeko. Garbi daude kamara hau osatzen dugunok gobernu-programa berdin bat sinatzeko ditugun desberdintasunak. Baina horrelako egoera baten aurrean, Eusko Alkartasunak garbi azaldu zuen ahal zuen guztia egingo zuela herri honi aipatutako erronka zailak

Mila esker.

LEHENDAKARI jaunak: Muchas gracias, señor Madrazo.

Tiene la palabra el representante de Eusko Alkartasuna. Tiene la palabra el señor Garaikoetxea.

GARAIKOETXEA URRIZA jaunak: Señor Presidente, señor candidato a Lehendakari, señoras y señores parlamentarios. Estamos en el umbral de una nueva legislatura y nuestro pueblo tiene sin resolver graves problemas. Hablábamos en pasadas legislaturas una y otra vez sobre retos que aún no habían sido superados y, desgraciadamente, a decir verdad, continúan todavía ahí sin desprenderse de nuestra sociedad: la interminable crisis económica, la reconversión industrial que está en el centro de nuestra maltrecha economía, los insoportables índices de desempleo, la asfixia derivada de la implacable competencia internacional hacia nuestro sector agrario y de pesca, los grupos marginales cada vez más numerosos en una sociedad que maltrata especialmente a los sectores más débiles, la dificultad que tenemos para conseguir una política consensuada para hacer frente a los retos culturales de este pueblo, la dificultad para recuperar nuestro destrozado hábitat. Y como fondo de este complicado panorama, una reconstrucción nacional en el que se dan unas posturas encontradas y unos objetivos de autogobierno que constituyen un problema aún sin resolver.

Por lo tanto, la situación a la que tenemos que hacer frente en los próximos cuatro años no es la más envidiable. Y ante problemas tan graves un pueblo tiene que aunar todas sus energías. Y, desgraciadamente, ahí radica el gran drama de nuestro pueblo. En unos momentos en que resulta imprescindible el esfuerzo de todos, perdemos la mayor parte de esa energía en un enfrentamiento interminable entre nosotros. No se normaliza nuestra vida en común, nuestra convivencia. La paz no ha sido posible. Por el contrario, yo diría que están surgiendo nuevos focos de enfrentamiento social y están apareciendo nuevos problemas que enfrentan a los hijos de un mismo pueblo.

Ante este grave problema, nuestro pueblo ha elegido a sus representantes, y nuevamente se presenta en todo su esplendor en este Parlamento la pluralidad de ideas y, naturalmente, la dificultad que ello acarrea a la hora de formar un Gobierno con un programa y una dirección política fuerte y coherente.

Frente a esta situación complicada, señoras y señores parlamentarios, tan pronto se conocieron los resultados de las elecciones Eusko Alkartasuna hizo todo lo posible para colaborar en la gobernabilidad de este país. Son bien notorias las diferencias que existen entre los que constituimos esta Cámara para firmar un programa común de gobierno. Pero ante una situación así Eusko Alkartasuna dejó bien claro que estaba dispuesto a hacer todo lo posible para ofrecer a este pueblo un

gainditzeko behar-beharrezkoa duen Gobernu sendo eta iraunkor bat emateko. Begi-bistan zegoen ez zegoela Gobernua osatzeko beste aukerarik, eta ahalegin guztiak egin ditugu ulermen amankomun minimo hori lortzeko; hori bai, beti gure oinarrizko ideiak eta hauteskunde-konpromezuak errespetatuz.

Ahalegin honen emaitza gaur lehendakarigaiak azaldutako programa da. Jarraian, lehendakarigaiak azaldutako asmoekin orokorki bat natorrela azalduz, programa honen alderdi garrantzitsuenei aipamen bat egin nahi nieke.

Permítanme decir en primer lugar, señoras y señores diputados, que en el propio esfuerzo realizado por los tres partidos suscribientes del programa de gobierno para llegar a un texto común se entrevé uno de los mensajes más importantes que, a mi entender, deseamos hacer llegar a nuestra sociedad: el de la necesidad de llevar adelante nuestros objetivos políticos, los de cada cual, conciliando la defensa de nuestras propias convicciones con el respeto a las de los demás, y cuando resulta imprescindible, como en este caso, con el esfuerzo transaccional que nos permita trabajar conjuntamente en el corto plazo para atender los problemas más apremiantes que aquejan a nuestros conciudadanos, sin renunciar por ello a nuestros objetivos estratégicos y a nuestra propia ideología.

Cuando sucede, como en este caso, que el esfuerzo de conciliación de nuestros respectivos programas no implica rehuir las respuestas concretas a los problemas de la sociedad, ni refugiarse en silencios o ambigüedades inaceptables para un Gobierno que se precie de tal, el empeño contiene en sí mismo un mensaje saludabilísimo para una sociedad que padece tanta intolerancia, tanto sectarismo y tanta incapacidad para el diálogo y la comprensión mutua. El mensaje, señoras y señores diputados, es proclamar que podemos estar cada uno de nosotros absolutamente persuadidos de la bondad de nuestras ideas, de la idoneidad de nuestros programas, y, al tiempo, tener la altura de espíritu y el sentido democrático suficientes como para asumir que nuestros contrincantes políticos están igualmente persuadidos de que sus propuestas para resolver los problemas de la sociedad son también las más adecuadas.

Seguramente si esta elemental reflexión presidiera nuestras actitudes diarias en la vida política, el clima de incomprensión, intolerancia y enfrentamientos que padece nuestra sociedad se aliviaría notablemente, y la hoy áspera y a veces trágica confrontación de nuestras ideas daría paso a una serena y saludable confrontación democrática.

Desde este espíritu de comprensión y tolerancia mutua que reivindico defendemos hoy aquí un programa concreto para un periodo de tiempo concreto, en el que nuestra sociedad, por cierto, demanda respuestas urgentes a sus problemas más concretos y apremiantes. Nuestras respuestas concertadas para este corto plazo creemos que son una razonable aportación al proceso de

Gobierno que le es necesario para superar los difíciles retos antes mencionados. Era evidente que no había otra alternativa para formar gobierno, y hemos hecho todo lo posible para conseguir ese entendimiento común mínimo; ahora bien, respetando siempre nuestras principios básicos y los compromisos electorales.

Fruto de ese esfuerzo es el programa expuesto hoy por el candidato a Lehendakari. A continuación, dando a conocer que estoy de acuerdo en general con las intenciones expuestas por el candidato a Lehendakari, quisiera mencionar los aspectos más importantes de este programa.

Zilegi bekit esatea, lehenengo eta behin, legebiltzarkide jaun-andreok, gobernu-programa izenpetu dugun hiru alderdiok testu amankomun bat lortzeko egindako ahalegina bera mezu garrantzitsuenetakoa izan daitekeela eta gure gizarteari bidali nahi diogula: gure helburu politikoak gauzatzea, bakoitzarenak, gure sinesmenen defentsa eta besteenei sor zaien errespetua batera ekarriz burutu beharra dagoela, eta nahitaezkoa denean, kasu honetan bezala, erdibidekoa lortuz, hala ezen elkarlanean aritzeko aukera izan dezagun gure herritarren arazorik larrienei aurre egin ahal izateko, horregatik gure helburu estrategikoei eta gure ideologiari berari ukorik egin gabe.

Kasu honetan gertatzen dena gertatzen denean, hau da, guztion programak bateratzeko ahaleginak ez duela esan nahi gizartearen arazo zehatzei ihes egin behar zaienik eta bere buruaz harro sentitzen den Gobernu bat isilik edo zalantza onartezinetan gelditu behar denik, orduan ahalegin horrek badu halako mezu osasungarri bat hainbeste intolerantzi, sektarismo eta elkarrizketarako eta elkarrulertzeko gaitasunik eza jasatzen dituen gizarte batentzat. Mezua da, legebiltzarkide-jaun-andreok, honako hau aldarrikatzea: nahiz eta gure ideien ontasunaz, gure programen egokitasunaz erabat sinesturik egon, aldi berean, behar hainbateko izpiritu zabala eta zentzu demokratikoa behar dela ulertzeko gure etsai politikoak ere erabat sinesturik daudela gizartearen arazoak konpontzeko beren proposamenak oso egokiak direla.

Segur aski, funtsezkoa den ideia hori politika bizitzako gure eguneroko jarreren gidari izango balitz, gure gizarteko ulertezintasuna, intolerantzia eta enfrentamendua asko arinduko lirateke, eta gaur latza eta batzuetan ikaragarria gertatzen den gure ideien alderaketa halako alderaketa demokratiko lasai eta osasungarri bilakatuko litzateke.

Erreibindikatzen dudan ulerketa eta tolerantzi izpiritu honetatik abiatuta, defendatzen dugu programa zehatz bat denboraldi zehatz baterako, non, egia esanda, gure gizarteak presako erantzunak eskatzen dituen bere arazo zehatz eta larrientzat. Epe labur honetarako gure erantzun itunduak gure herriaren eraikuntza nazionalarekiko ekarketa zentzukoa dela uste dugu eta,

construcción nacional de nuestro pueblo y, al mismo tiempo, en modo alguno nos hacen abdicar de nuestras respectivas metas e ideales en el medio y largo plazo. Necesitamos, señoras y señores diputados, poner a trabajar con eficacia al nuevo Gobierno cuanto antes, y vamos a tratar de hacerlo con la decisión que los tiempos reclaman.

Y, ya que he mencionado las demandas de la época que vivimos, permítaseme aludir a una de las facetas más importantes, en mi opinión, del programa que ahora discutimos. Nuestra sociedad es hoy particularmente sensible a los modos de gobernar, al talante mismo con que las Administraciones públicas se muestran en su acción de gobierno. Conceptos como los de transparencia, austeridad, objetividad o igualdad de oportunidades efectivamente son invocados con insistencia ante las desmesuras y perversiones que con frecuencia ha puesto de manifiesto la vida política por doquier. Quienes apoyamos el programa defendido por el señor candidato a Lehendakari hemos querido concretar nuestro compromiso con tales inquietudes, con tales conceptos.

El esfuerzo de austeridad en la Administración pública tiene su primer exponente en la propia reestructuración del Gobierno, que reduce sensiblemente sus carteras. Pero deberá tener su reflejo, mucho más importante por supuesto, en un esfuerzo de austeridad similar a lo largo y ancho de la Administración, y muy particularmente en todo lo que se refiere a los cargos de designación y gastos suntuarios y en el ambicioso empeño de una reforma general de la Administración.

Yo comprendo el ardor iniciático, no tanto la furia iconoclasta, con que se ha presentado aquí el señor representante de Izquierda Unida. No sé qué hace Izquierda Unida allá donde gobierna, en Madrid y en otros lugares, pero supongo que esos criterios de austeridad y esa generosidad con que dota todas las partidas presupuestarias para resolver todos los problemas que existen en la sociedad efectivamente existirán. Pero aquí hemos hecho gestos concretos, y cuando se refiere a los tres socios de este futuro Gobierno tendría que tener la deportividad de aceptar alguno de estos gestos concretos y otros a los que me referiré a continuación.

El esfuerzo para dotar a nuestro Gobierno de la máxima transparencia en su funcionamiento tiene manifestaciones tan concretas como el compromiso asumido para permitir que una minoría parlamentaria sea siempre capaz de impulsar comisiones de investigación sin que la mayoría mecánica de un Gobierno, a través de su respaldo parlamentario, pueda obstaculizar sistemáticamente su creación y funcionamiento. O el compromiso de las comparecencias públicas del Gobierno y su Presidente ante el Parlamento para someterse al control del mismo. O disposiciones tan concretas como la que asume la necesidad del control parlamentario de los fondos reservados puestos a disposición del Gobierno.

A nadie se oculta la importancia de estos

aldi berean, epe labur eta luzerako ditugun bakoitzaren ideal eta mugei uko egiten ez diegula. Beharrezkoa dugu, legebiltzarkide jaun-andreok, lehenbailehen Jaurlaritza berria lana eginkortasunez egiten hasi dadila, eta saiatuko gara garai honek eskatzen den kemenaz hori egiten.

Eta gure garaiko eskeak aipatu ditudanez, zilegi bekit orain eztabaidatzen ari garen programaren zatirik, nere ustez, garrantzitsuenetako bat aipatzea. Gure gizartea oso sentibera da gobernatze-moduez, herri-administrazioek gobernatzeko unean duten jarreraz. Gardentasuna, austeritatea, objetibitatea edo aukera-berdintasuna maiz aipatzen diren kontzeptuak dira, bizitza politikoak nonahi azaldu dizkigun okerrak eta gehiegikeriak ikusi ondoren. Lehendakarigaiak aurkeztutako programa aldezten dugunok nahi izan dugu zehaztea gure konpromisoa kezka eta kontzeptu horiek direla eta.

Herri Administrazoak austeritatean egindako ahaleginak Jaurlaritzaren egituraketan bertan du bere lehen adibidea, sailak nabarmenki murriztu egin baititu. Baina hori Administrazio osoan antzerako austeritate-ahaleginean isladatu beharko da, askoz ere garrantzitsua baita, noski, eta oso bereziki izendapen-karguei eta luxuzko gastuei dagokienean eta Administrazioan berrikuntza orokorra egiteko asmo garrantzitsuan.

¿Qué vamos a hacer? Evaluar los resultados de lo que se ha hecho hasta ahora, plantear en el propio Gobierno un acuerdo o una política lingüística que creamos o que consideremos adecuada, y traerla aquí, a la Cámara, para que, en nuestra opinión, una Comisión parlamentaria o una Ponencia "ad hoc" puedan producir ese trabajo de debate interno y conseguir un consenso que considero imprescindible entre todos nosotros. Y hablo expresamente de conseguir un consenso en el modelo ideal total, es decir con UA, con Izquierda Unida, con el Partido Popular y con todos los demás grupos si fuera posible del Gobierno y de la Cámara.

Este mismo ofrecimiento creo que tenemos que hacerlo respecto a la necesidad de que la distribución competencial, sobre todo de cara a los Ayuntamientos, se pueda contemplar. He oído una propuesta de UA respecto a la posibilidad de discutir esto con calma y con serenidad en el marco de lo que es la reforma administrativa, etcétera. Yo creo que es propósito del Gobierno caminar en esta senda, y, aunque no hay una propuesta en concreto respecto a la determinación de una Comisión parlamentaria, es nuestro propósito que pudiera hacerse. Porque sería bueno que también en este terreno ese equilibrio territorial del que les hablaba antes pudiera producirse.

Y también queremos hacer -lo dijimos en nuestro programa electoral muchas veces y en nuestro discurso antes del 23 de octubre- un trabajo en favor de que la Comisión que ha estudiado el status del político vasco pudiera prolongarse para que hubiera una discusión en favor de esto que se ha llamado -creo que Izquierda Unida lo ha dicho- pacto por la ética, comisión de la regeneración, todo lo que hace referencia a la transparencia en la vida pública, nuevas formas de participación social en la política, fortalecimiento democrático, nuevos valores de convivencia, etcétera, etcétera.

Éste es nuestro propósito, por tanto, en segundo lugar, como objetivo en este Gobierno: Gobierno fuerte, Gobierno estable, Gobierno que practique el consenso en las materias básicas. Y una materia básica, sin duda, es la paz. Voy a ver si digo de una manera rápida lo que pienso sobre lo que se ha producido en torno al debate de pacificación.

Lo último que quisiéramos hacer nosotros en relación con la Mesa de Ajuria Enea es cuestionar el consenso. Lo último. Creo que, dicho esto, se podrá entender relativamente bien cuál es nuestra posición. Yo creo que en el programa de gobierno se ha recogido esta cuestión sin que haya, en mi opinión, novedades respecto a lo que ha sido el pacto o a lo que ha sido incluso su propia práctica, con más o con menos acierto, con mayor o con menor retórica. En mi opinión estamos ante los principios de siempre, y, en mi opinión también, no hay fórmulas nuevas.

¿Se habla de una nueva fase? Sin duda. ¿Por qué? Uno, porque estamos contemplando que en la próxima legislatura de verdad queremos conseguir la paz, y esto

Zer egingo dugun? Orain arte egindakoaren emaitzak ebaluatu, Jaurlaritzan bertan hizkuntz politika egoki bat, gure ustez egokia izango dena, planteatu eta hona ekarri, Legebiltzarrera, hemengo batzorde batek edo "ad hoc" antolaturiko ponentzia batek barne-eztabaida lan hori egin dezan eta gu guztion arteko kontsentsua, ezinbestekoa dena nire ustez, lor dezan. Eta erabateko kontsentsua lortzeaz ari naiz, esan nahi baita, UArekin, Ezker Batuarekin, Alderdi Popularrarekin bai eta, ahal izanez gero, Jaurlaritza eta Legebiltzarreko talde guztiekin ere.

Uste dut gisa bereko eskaintza egin beharrean gaudela aginpide-banaketa, udal mailakoena batez ere, aztertzeari buruz. Entzun dut UAk honetaz egindako proposamena, gai hau Administrazioaren erreformaren barruan lasai eta geldiro eztabaidatzearen aldekoa. Nik uste dut Jaurlaritzak bide horretatik egin nahi duela aurrera, eta, horretarako legebiltzar-batzorderik sortzeko proposamen zehatzik ez badago ere, horixe egiteko asmoa dugu guk. On bailitzateke alor honetan ere lehen aipatutako lurraldeen arteko oreka lortuko balitz.

Era berean saiatu nahi dugu -halaxe esana baitugu behin eta berriro gure hauteskunde-programan eta urriaren 23a baino lehenagoko gure diskurtsoan- euskal politikariaren statusa aztertu duen batzordeari jarraipena ematen, bertan eztabaida daitezen etikaren aldeko hitzarmen delakoa -halaxe esan baitu, oker ez banago, Ezker Batuak-, erregenerazioa, bizitza publikoaren gardentasunari buruzko alderdi guztiak, gizarteak politikan parte hartzeko modu berriak, demokraziaren indarberriketa, elkarbizitza-balore berriak, eta abar.

Horixe da, beraz, gure Gobernu honen bigarren helburua: Gobernu indartsua, Gobernu iraunkorra, oinarrizko gaiei buruz kontsentsua praktikatuko duena. Eta bakea dugu, hain zuzen ere, oinarrizko gaietako bat. Labur esaten saiatuko naiz zer pentsatzen dudan baketze-prozesuaren inguruan gertatu denaz.

Ajuria Eneko Mahaiari dagokionez, bada gauza bat inolaz ere egin nahi ez genukeena, kontsentsua kolokan jartzea, alegia. Hori inola ere ez. Hori esanik, gure jarrera zein den aski ongi ulertuko delakoan nago. Gobernu-programan jasoa dago gai hau eta, nire iritzian, ez dago berrikuntzarik ez hitzarmenari berari ez hitzarmenaren praktikari berari buruz ere, hantxe dago jasoa, hobeto ala okerrago, behar adinako erretolikaz edo behar baino gehiagoko erretolikaz, baina hantxe dago. Esango nuke betiko hatsarrien aurrean gaudela eta, nire iritziz, ez dago formula berririk.

Fase berri bat aipatzen dela? Dudarik gabe. Lehenik, datorren legegintzaldian benetan bakea lortu nahi dugula diogulako, eta horrek esan nahi du mugitzen

significa que tenemos que empezar a movernos para diseñar o para establecer incluso escenarios de pacificación. Segundo, porque ya viene siendo habitual desde hace bastante tiempo que se observan movimientos y que se observan reacciones, que hay un contexto internacional, que pasan cosas en nuestro alrededor que requieren, en nuestra opinión, que el pacto de Ajuria Enea sea más dinámico, que tenga más capacidad de iniciativa, que se mueva un poco más de lo que se ha podido mover, por qué no reconocerlo, en los últimos dos o tres años. Y, tercero, porque además en esta Mesa de Ajuria Enea hay dos partidos, uno que no había estado y que le toca estar, que es Izquierda Unida, y otro que estaba y que no estaba o que se había ido, que era EA, y que vuelve.

Yo creo que estas circunstancias hacen que podamos hablar de una nueva fase. Ahora bien, ¿esto quiere decir que tenemos que enfocar el pacto en la nueva fase de manera distinta y con acuerdos nuevos? Yo creo que no. Pero sí quiero advertir que tenemos que plantarnos ante este problema con una cierta franqueza en nuestras posiciones.

Porque si nos planteamos la existencia de diferencias entre nosotros, es decir, si nos ponemos a rascar y a saber lo que piensa cada partido de los seis partidos parlamentarios que estamos en el pacto de Ajuria Enea a partir de mañana, si nos ponemos a mirar con detenimiento qué pensamos sobre cada una de las cosas, tendremos que reconocer que tenemos diferencias. Hay diferencias. Pongamos por caso la que ha habido con el tema de la reinserción. La puede haber sobre qué fue la mesa y qué es. La puede haber incluso sobre el foro. La puede haber, si se me apura, sobre el diálogo con HB, etcétera, etcétera. Todo esto existe en nuestras posiciones, ¿no?

Pero el problema no es que rasquemos y que enarbolemos las diferencias, sino la actitud que muestra y que adopta el pacto precisamente ante esa evidencia. Y yo lo diré claramente: creo que el valor supremo, aun habiendo estas diferencias, es que mantengamos el consenso. Yo, lo digo claramente, lo expliqué en las conversaciones privadas con mis compañeros de Gobierno, yo quiero el consenso. Yo creo que ése es un valor importante.

Y creo que el Lehendakari esta mañana ha expresado con extraordinario acierto precisamente estos valores, y me basta limitarme a lo que él ha hecho en su alocución para reiterar cuál es nuestra posición. Pero si hubiera alguna duda, y en esto quiero dirigirme también con todo afecto a los compañeros que no han estado en el Gobierno y que están en el pacto de Ajuria Enea o, como muy bien ha dicho Madrazo, como partidos y punto, y por tanto sin que haya que aplicar mecánica parlamentaria ninguna a ese pacto de Ajuria Enea, reitero lo que es un apartado básico de este capítulo, cuando dice que lo que hemos opinado sobre estos temas lo vamos a llevar al pacto de Ajuria Enea para hablarlo con vosotros y para discutir con vosotros y alcanzar el máximo consenso sobre estos temas con vosotros. Y yo

hasi beharra daukagula baketze-esparruak diseinatzen eta baita finkatzen ere hasteko. Bigarrenik, hainbat mugimendu eta erreakzio nabari delako denbora batetik hona, hortxe dagoelako nazioarteko kontestua ere, hainbat gauza gertatzen ari baita gure inguruan eta, gure ustez, Ajuria Eneko hitzarmenak dinamikoagoa izan beharra dauka, ekimen-ahalmen handiagoa behar du, orain arte, azken bi edo hiru urte hauetan baino gehixeago mugitu beharra dauka, zergatik ez dugu, bada, onartuko. Eta, hirugarrenik, zeren, gainera, Ajuria Eneko Mahai honetan badirelako bi alderdi, orain arte egon gabea eta orain egotea tokatzen zaiona, Ezker Batua, eta beste bat mahaikide zena eta ez zena edo alde eginda zegoena, EA, eta orain berriro itzuli dena.

Horiengatik guztiengatik esan dezakegula uste dut fase berri baten aurrean gaudela. Baina, fase berri honetan bestelako ikusmoldea izan eta beste akordio batzuk taiutu behar ditugula esan nahi al du horrek? Nik uste dut ezetz. Ohartarazi nahi dut, alabaina, halako zintzotasun batez jokatu behar dugula arazo honi buruzko gure jarrerak azaltzerakoan.

Zeren gure arteko aldeak azaltzen hasiz gero, hau da, bihartik hasita Ajuria Eneko hitzarmenean gauden sei alderdiak geure artean zer alde dauden miatzen eta arakatzen hasiz gero, gauza bakoitzari buruz zer pentsatzen dugun zehatz-mehatz aztertzen hasiz gero, orduan bai, aitortu egin beharko dugu gure artean badela alderik. Bada alderik. Har dezagun adibide gisa bergizarteratzearen inguruan egon dena. Alderik egon daiteke, baita ere, mahaiaren hasierako eta oraingo izaerari buruz. Baita foroari buruz ere. Edo, behartzen banauzu, baita HBrekin hitz egiteari buruz, eta abar. Gauza horiek guztiak daude gure jarreretan, ezta?

Arazoa ez da, ordea, alde horiek arakatu eta aditzera ematea, baizik eta zein jarrera hartzen duen hitzarmeneko mahaiak begi-bistakoak diren desberdintasun horien aurrean. Eta argi eta garbi esango dut nik: balorerik gorena, nahiz eta desberdintasun horiek izan, kontsentsuari eustea da, nire ustez. Nik, argi eta garbi esango dut, nire gobernukideekin izandako solasaldi pribatuetan esan nuen bezalaxe, nik kontsentsua nahi dut. Balore garrantzitsutzat daukat hori.

Primeran azaldu ditu balore horiek, nire ustez, gaur goizean lehendakariak, eta aski dut hark bere alokuzioan esandakora mugatzea gure jarrera zein den azaltzeko. Hala ere, dudaren bat balego, eta oraingoan ere adeitasun osoz zuzendu nahi natzaie Jaurlaritza osatuko ez duten baina Ajuria Eneko hitzarmenean dauden kideei, edota, Madrazo jaunak ondo asko esan duenez, alderdi soil direnez, eta, beraz, Ajuria Eneko hitzarmenari inolako mekanika parlamentariorik aplikatu beharrik gabe. Berriro aipatu nahi dizuet kapitulu honetako oinarrizko apartatu bat, hots, gai hauei buruz azaldu ditugun iritziak Ajuria Eneko Mahaira eramango ditugula, zuekin hitz egin, zuekin eztabaidatu, eta gai horiei buruz ahalik eta kontsentsurik zabelenera heltzeko. Badut konfiantza lehendakariarengan, uste

creo y confío en la buena capacidad de administración y de dirección del Lehendakari sobre el pacto para que esto sea precisamente así.

Y termino. Si hay alguna razón fundamental en nuestra decisión política de estar en este Gobierno, además de las que ya les he dicho anteriormente, es que creemos imprescindible llevar a la práctica un programa eminentemente social-demócrata. Lo es, por ejemplo, respecto a los reiterados compromisos que el programa tiene en torno al mantenimiento de lo que hemos llamado Estado del bienestar; por cierto, al mantenimiento de unos niveles de servicios públicos básicos en los capítulos educativo, sanitario, de bienestar o de justicia que son muy buenos.

Creo que no hacemos bien ante el país diciéndole que es que tenemos que cambiar radicalmente nuestros servicios públicos, porque en general no encontrarán ustedes en ningún país, en casi ningún país, niveles de prestación pública, de gratuidad plena y de calidad en estos servicios que acabo de señalar, de una naturaleza y de una calidad como los que tenemos en Euskadi. Y esto conviene decirlo. ¿Que hay que mejorar? Sí ¿Que hay que avanzar? También. Pero lo que ha hecho el pacto de gobierno es comprometer lo que es el mantenimiento de niveles de compromiso presupuestario y lo que es también políticas en favor de estos servicios públicos y de su mejora.

Se ha incluido un capítulo muy importante, en nuestra opinión, en favor de la solidaridad con las zonas donde se concentran particularmente los síntomas de la crisis. Y esto se ha concretado en un plan especial -como ha explicado el Lehendakari-, que tiene una importancia grande porque va a conjugar toda una serie de planes diversos de todas las Administraciones, los va a conformar bajo un plan especial que va a estar dirigido al modelo del Europa'93 o del plan para la reactivación y que va a permitir lo que yo creo que es una deuda política y social con las zonas que más han sufrido la crisis en nuestro país.

Porque hemos incorporado al programa compromisos desde el punto de vista del mantenimiento de la presión fiscal y de lucha contra el fraude. Porque hemos asumido la necesidad de impulsar el diálogo social con los sindicatos y hemos dado al sindicalismo y a los agentes económicos y sociales el protagonismo que les corresponde en una sociedad progresista y moderna. Porque hemos incorporado a los objetivos del Gobierno el compromiso del 0,7, que es verdad, señor Madrazo, que es sobre el Presupuesto, pero 0,7 del Gobierno Vasco sobre Presupuesto, más 0,7 de muchos Ayuntamientos vascos sobre sus presupuestos, hacen 0,7 de PIB del País Vasco (muy cerca andamos), y ese objetivo se ha incorporado afortunadamente también a este programa de gobierno.

Hemos venido, señorías -termino ya-, a este Gobierno y vamos a suscribir este acuerdo y vamos a apoyar la investidura del Lehendakari también porque nuestra presencia en él nos parece la mejor garantía en favor de estos objetivos, en favor de que se cumplan

baitut baduela ahalmenik hitzarmena egokiro administratu eta gidatzeko, hain zuzen ere aipatutako helburua bete dadin.

Eta amaitzera noa. Bada funtsezko arrazoi bat, arestian aipatutakoez gain, Jaurlaritza honetan parte hartzeko erabaki politikoa harrarazi diguna: ezinbestekotzat daukagu programa hau, oroz gain sozialdemokrata den programa hau, burutzea. Sozialdemokrata da, esate baterako, behin eta berriro aipatzen baitira ongizate-estatuari eusteko konpromisoak, hezkuntza, osasuna, ongizatea edo justizia bezain alor garrantzitsuetan oinarrizko zerbitzu publikoei, zerbitzu publiko benetan on horiei eusteko konpromisoak.

Esango nuke ez diogula batere onik egiten herriari esanez arras aldatu beharra dagoela gure zerbitzu publikoak, zeren, oro har, ez baituzue aurkituko beste inon, ia beste inon ez, Euskadin bezalako zerbitzu publikorik, guztiz doakoak eta kalitate onekoak baitira. Eta komeni da hori esatea. Hobetu beharra dagoela? Bai. Aurrera egin beharra dagoela? Baita ere. Baina gobernu-itunaren konpromisoa argia da: aurrekontuetan hitz emandakoei eustea, batetik, eta zerbitzu publiko horiek hobetzearen aldeko politikari eustea, bestetik.

Oso kapitulu garrantzitsua sartu dugu, gure ustez: krisiak gogorren eragindako aldeei elkartasuna eskaintzekoa, hain zuzen ere. Plan berezi baten barruan sartu da hori -lehendakariak azaldu duenez-, oso plan garrantzitsua bera, zeren administrazio guztietako hainbat plan batera bilduko baititu, plan berezi batean sartuko baitu, Europa 93 Planaren eredura edo erreaktibaziorako planaren eredura zuzendua izango baita, eta nire ustez gure herrian krisia gogorren jasan duten aldeekiko zor politiko eta sozial bat dena kitatzeko aukera emango baitigu.

Zeren presio fiskalari eusteko eta iruzurrari aurre egiteko konpromisoak sartu baititugu programan. Beharrazkotzat jo baitugu sindikatuekin hitz egitea eta sindikatu eta agente sozialei gizarte aurrerakoi eta moderno batean dagokien protagonismoa eman baitiegu. Bere egin baitu Jaurlaritzak 0,7aren konpromisoa, eta egia da, Madrazo jauna, Aurrekontuaren gainekoa dela hori, baina Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuaren gaineko 0,7 gehi hainbat euskal udalen aurrekontuen gaineko 0,7 Euskadiko BPGaren 0,7 da (edo ez zaio askorik falta), eta, zorionez, helburu hori ere sartuta dago gobernu-programa honetan.

Eta azkenik -amaitzera noa-, jaun andreok, Jaurlaritza honetan sartu gara, sinatu egingo dugu eta gure babesa emango diogu lehendakariari, uste dugulako gu bertan egotea dela bermerik onena helburu horiek bete daitezen. Eta ez dizuet ukatuko kontuan izan

estos objetivos. Y no les oculto que también hemos valorado la particularidad de tener la oportunidad de que nuestro propio partido gestione un área de relaciones directas con estos temas, como es todo lo que se refiere a las relaciones laborales, el bienestar social, lucha contra las drogodependencias, etcétera, etcétera.

Para eso estamos aquí, señorías; para eso tiene, Lehendakari, nuestro apoyo, y para eso estaremos en este Gobierno que esperamos de larga vida y, sobre todo, que dé mejor vida a los vascos.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Jáuregui jauna.

Orain Euzko Abertzaleak Taldeko ordezkariak du hitza. Joseba Egibar jaunak du hitza.

El Sr. **EGIBAR ARTOLA**: Presidente jauna, hautagai zeran Ardanza jauna, legebiltzarkide lagunak, arratsalde on.

Azkena hitz egiteak bere bentajak izaten ditu, baina bere akatsak ere bai; are gehiago, azken batean, hiru alderdik babestuta osatzen dugun Gobernu bat kontutan edukita, bi partaidek nere aurretikan hitza hartu dutelako eta lehendakariaren beraren goizeko hitzaldian jaso direlako ahal den zehatzena, garbiena eta sendoena datozen lau urteetan Gobernu berri horrek eramango duen norabidea. Baditu bere bentajak ere, azken batean gauza asko entzun direlako. Neronek duda bat banuen zein paperekin agertu honera, baina azken batean gauza asko entzun dira, eta batik bat hiru alderdi politikok, Ezker Batuak, Alderdi Popularrak eta Herri Batasunak, esandakoei erantzuten saiatuko naiz, parte batean behintzat.

Eta nik azpimarratu nahi nuke hasiera honetan, lehenengo eta behin, azken batean hiru alderdiek bultzatu eta osatuko duten Gobernu hau ardura-ariketa bat izan dela, ariketa politiko bat. Besteak beste, nahiz eta PPko ordezkari den Mayor Orejak esan autoesklusioaren gaia eta kontzeptua -ia-ia gure subkontzientea ere interpretatzen hasi zara-, guk alegia pentsatuta geneukala zuek sekula santan ez zinetela Eusko Jaurlaritzan sartuko, hemen benetako ariketa hiru alderdi politikok egin dute, aurrerapausoa hiru alderdi politikok eman dute: Euzko Alderdi Jeltzaleak, Alderdi Sozialistak eta Eusko Alkartasunak. Eta egia da Ramón Jáureguik esan duena: ordu asko, egun asko bota ditugu batik bat egitasmoa negoziatzen. Eta kontutan eduki behar da, hiru alderdi politikoen nolabaiteko oinarri ideologikoak abiapuntutzat hartzen baldin baditugu behintzat, zaila zela Gobernu bateratu bat lortu nahi horretan programa bateratu bat aurkitzea. Eta horretan inbertitu dugu gure lanik eta, nik esango nuke, dugun onena; besteak beste, bokazio hori adierazi, azaldu eta praktikatu egin dugulako.

Gauza asko esan dira. Eta hasieratikan zerbait dugula, baita ere, geure alderdiak gai hauekin zuzenean lotutako arlo bat kudeatzeko aukera izatea, lan-harremanak, gizartearen ongizatea, drogamenpekotasunen aurkako borroka, eta abar, barne hartzen dituen arloa, hain zuzen.

Horretarako gaude hemen, jaun-andreok; horretarako daukazu, lehendakari, gure babesa, eta horretarako egongo gara Jaurlaritza honetan, zeinak luzerako bizia izango duela eta, batez ere, euskal herritarrei bizmodu hobea eskainiko diela espero dugun.

LEHENDAKARI jaunak: Muchas gracias, señor Jáuregui.

Tiene la palabra el representante del Grupo Nacionalistas Vascos. Tiene la palabra el señor Joseba Egibar.

EGIBAR ARTOLA jaunak: Señor Presidente, candidato señor Ardanza, compañeras y compañeros parlamentarios, buenas tardes.

Ser el último en hablar suele tener sus ventajas, pero también tiene sus inconvenientes; sobre todo porque, de los tres partidos que apoyamos la formación de este Gobierno, dos me han antecedido en el uso de la palabra, y porque en el discurso pronunciado por el Lehendakari esta mañana ha quedado recogida de una manera concreta, clara y firme la orientación de este nuevo Gobierno para los cuatro próximos años. También tiene sus ventajas, puesto que se han escuchado muchas cosas. Yo dudaba sobre qué papel debía adoptar, pero después de haber escuchado tantas cosas intentaré responder, al menos en parte, a lo expresado sobre todo por tres partidos, concretamente por Izquierda Unida, Partido Popular y Herri Batasuna.

Para comenzar, en primer lugar quisiera subrayar que este Gobierno, apoyado y formado por tres partidos, ha sido un ejercicio de responsabilidad, un ejercicio político. Entre otras cosas, a pesar de que el representante del PP, el señor Mayor Oreja, ha mencionado el tema y el concepto de la autoexclusión -poco le ha faltado para comenzar a interpretar nuestro subconsciente-, es decir, que nosotros teníamos pensado de antemano que ustedes nunca formarían parte del Gobierno Vasco, aquí han sido tres partidos los que han realizado un verdadero ejercicio, han sido tres partidos los que han dado el paso hacia adelante: el Partido Nacionalista Vasco, el Partido Socialista y Eusko Alkartasuna. Y es verdad lo expresado por el señor Jáuregui: hemos necesitado muchas horas, muchos días para negociar este proyecto. Hay que tener en cuenta, al menos si consideramos las bases ideológicas de estos tres partidos, que era difícil consensuar un programa unificado para ese Gobierno unificado que se deseaba lograr. En ese sentido hemos invertido nuestro mejor esfuerzo y, yo diría, lo mejor que tenemos; entre otras cosas, porque hemos expresado, explicado y practicado esa vocación.

Se han dicho muchas cosas, y para comenzar,

esateko Alderdi Popularrari, besteak beste esan nahi nizuke, Mayor Oreja jauna -eta hartu modu onean-, legebiltzakideak beheko solairuan daudela; ez daude bigarrengoan, eta lehendakaria hemen dago eta ez han goian. Baina zuk zeuk hauteskunde ostean, eta geroztikan ere, behin baino gehiagotan esan duzu zuretzako formularik egokiena, besteak beste, zela Euzko Alderdi Jeltzaleak bakarrik, edo Eusko Alkartasunaren laguntzaz, maiatzera bitarteko tramo hori egitea; besteak beste, zu zeu edo zure alderdia, Legebiltzar honetatikan behar adinako malgutasun bat erakutsiz, bai inbestidura eta bai Presupuestoak aurrera ateratzeko prest egongo zinetela. Orain, Alderdi Sozialista dagoela eta, esaten duzu Gobernu hau ahula dela, azken batean ahuleziaz josita dagoela. Zuk zerorrek Gobernu honi erantsi eta egotzi nahi zenion ahulezia hori, zu zeu Legebiltzarretikan garrantzitsua izateko, orain Gobernuari berari leporatzen diozu.

Esan duzu zikloak izaten dituzuela zuen erabakiak hartzeko, eta garbi dago zuen zikloa baino zuen mahaia, tapetea eta kartak beste toki batean daudela. Zuk birritan esan duzu behar-beharrezkoa dela ez 95eko maiatza arte itxoitea, baizikan, bueno, 96 atari horretan Estatuan gauzak erabat aldatuko direla eta orduan egin behar dela benetan gobernu sendo bat hemen, eta bitartean ahal den moduan ibili, profesionalidade hutsean. Eta argi eta garbi esan zitzaizuen bai batzuei eta besteei ariketa politiko bat egingo genuela eta gobernu sendo bat osatzen saiatuko ginela. Saiatu, saiatu gara eta gobernua osatu, osatu ere egin dugu.

Nik garbi daukat -eta hau ez da subkontziente bat interpretatzea, zuek esan dituzuen gauzak baizik- Euzko Alderdi Jeltzaleak Madrilen jokatzen duen papera. Gu oposizioan gaude, baina oposizio konstruktibo bat egiten dugu, eta zenbait gaitan laguntza eman behar denean, eman egiten dugu, eta eman behar ez denean, ez. Garbi dago, guk han joku erasotzaile politiko bat eramango bagenu eta harek ondorio politiko handi batzuk edo handiago batzuk ekarriko balitu, besteak beste Felipe Gonzálezen tronotik jaiste hori, garbi dago zuek hemen ezeren truke Gobernu honi babesa emango zeniotela. Hori garbi dago, hala esan duzue eta. Beraz, ez diezaiozuela momentu honetan Gobernu honi ahulezia egotzi, ze, besteak beste, zuek Gobernu horretatikan kanpo gelditu zarete.

Eta Ezker Batukoak ere bai, baina hauek ausartuagoak dira. Hauek esaten dute "gu ez goaz", eta handik astebetera hasi ziren galdezka eta kritikatzen: "Bueno, zertan ari zarete hainbeste denboran?". Beraiek ez dira pauso bat ematera ere ausartu eta kanpoan gelditu dira, eta gero kritikatu. Talde Foralistak behintzat proposamen bat egin zuen; entzuna genuen, eta idatzi ere egin zuen. Proposamen bat egin zuten: egin dezagun Gobernu bat, PNV ez dagoen Gobernu bat; beste gainontzekoena. Hori ere ez da gauzatu.

Baina garbi dagoena da hiru alderdi politikoek egin dugula apostu hau. Eta apostu bikaina eta sendoa izateaz aparte, gaur goizean ikusi dugunez, lehendakariak bere diskurtsoan programa azpimarratu

dirigiéndome al Partido Popular, quisiera decirle al señor Mayor Oreja -y tómeselo usted a bien-, entre otras cosas, que los parlamentarios están en la planta baja, no en la segunda, y que el Lehendakari está aquí y no allí arriba. Pero después de las elecciones, y también con posterioridad, usted mismo ha manifestado reiteradamente que para usted la mejor fórmula era, entre otras, que el Partido Nacionalista Vasco en solitario, o con la ayuda de Eusko Alkartasuna, cubriese ese período hasta mayo; entre otras cosas, que usted o su partido, si desde este Parlamento se mostraba la suficiente flexibilidad, estarían dispuestos a asegurar la investidura y los Presupuestos. Ahora, debido a la presencia del Partido Socialista, dice usted que este Gobierno es débil, que está lleno de debilidades. Usted, a fin de conseguir una mayor relevancia en el Parlamento, ahora atribuye al Gobierno esa debilidad que anteriormente permitía y fomentaba en el mismo.

Dice que siguen unos ciclos para tomar sus decisiones, pero está claro que la cuestión no está en los ciclos, sino en que su mesa, su tapete y sus cartas están en otro lugar. Ha mencionado un par de veces que resulta imprescindible no esperar hasta mayo del 95, sino que, bueno, antes del 96 cambiarán radicalmente las cosas en el Estado, que entonces habría que formar un Gobierno sólido y que mientras tanto habría que apañarse como se pudiera, a un nivel puramente profesional. Y claramente se les dijo, tanto a unos como a otros, que íbamos a realizar un ejercicio político y nos esforzaríamos en formar un Gobierno fuerte. Nos hemos esforzado en ello y hemos logrado formar un Gobierno.

Tengo claro -y esto no es una interpretación del subconsciente, sino cosas dichas por ustedes- el papel que juega el Partido Nacionalista Vasco en Madrid. Nosotros estamos en la oposición, pero ejercemos una oposición constructiva, y cuando en algunos casos es necesario ofrecer nuestro apoyo, lo ofrecemos, y cuando no es necesario, no lo hacemos. Está claro; si nosotros practicásemos allí un juego político agresivo, que lograse grandes o mayores resultados políticos, entre otros, desplazar del trono a Felipe González, está claro que ustedes apoyarían gratuitamente a este Gobierno. Eso está claro, pues lo han dicho ustedes. Por ello, no atribuya debilidad a este Gobierno en este momento, porque, entre otras cosas, se han quedado ustedes fuera del mismo.

Y también los de Izquierda Unida, pero éstos son más atrevidos. Éstos dicen "nosotros no vamos", y una semana después ya estaban interrogando y criticando: "Bueno, ¿en qué invierten tanto tiempo?" Ellos no se han atrevido a dar un solo paso y se han quedado fuera, y luego critican. El Grupo Foralista al menos formuló una propuesta; la escuchamos, y también la presentó por escrito. Presentó la siguiente propuesta: formemos un Gobierno, un Gobierno sin el PNV; entre los demás partidos. Esa propuesta no prosperó.

Pero lo que está claro es que tres partidos políticos hemos hecho esta apuesta. Una apuesta excelente y sólida, como hemos podido observar esta mañana, cuando el Lehendakari en su discurso ha

du, zutabe nagusienak azaldu ditu. Eta nik uste dut garbiak eta sendoak direla. Lau zutabe nagusi ditu: ekonomia eta solidaritatea, ongizaterako autogobernua, pakea eta elkarganatzea, eraberritze politikoa eta baita ere, Euskadi kultur esparru bat bezela hartuz, gizartearen kohesioa. Nik uste dut ondo baino hobeto azaldu dituela lehendakariak helburu horiek, eta zehaztu egin dituela, gainera.

Akordio honetan batasuna aniztasunean eraikitzearen ardura geureganatu egin dugu hiru alderdi politikoek, aberastasun den aniztasun horrek eragin baikorra izan dezan geure politikagintzaren zutabe nagusia den egitekoan. Eta bakarra da guretzat: eusko aberria egunez egun hobetu eta eraiki. Ausartu, ausartzen gara baieztatzera eusko gizarteak bere osoan harturik duen eskabide benetakoa dela hau, ezegonkortasuna eta gizarte-desegituraketa bilatzen duten jarrerak alboratuz eta politikagintzan azken urteotan egonkortasunaren izenean ezagutu izan ditugun jarrera alderdikoiak eta gehiegikeriak ere alderatuz. Ezbairik gabe, eskabide hau oihu bizian entzun daiteke, eta, beraz, guretzat behintzat, hiru alderdiontzat, luzaezina zen eta da.

Sailez sail edo helburuz helburu gehiegi luzatu gabe, ikutu nahi nituzke behintzat nagusienak. Besteak beste, autogobernuarena, ze gure programan argi eta garbi azaltzen da, eta ezintasun bat aitortuz, ze orain lau urte ere Estatutuaren garapena eskatzen genuen eta nahi genuen, baina garbi dago ez dela nahikoa guk nahi izatea, ze Espainiako Gobernuarekin hitzartu behar da. Eta nahiz eta azkeneko fasean halako urrats batzuk eman, gutxi izan badira ere, garbi dagoena da orain hamabost urte euskaldunon artean hitzartutako paktua, Estatutua alegia, eta gero Estatuko botereekin hitzartutakoa ez dela bete. Eta potentzialki oraindikan transferitzeke dauden gaiak kontutan edukita, garbi dago horrek bere dimentsio politiko gordina duela, eta apostu egiten dugula hiru alderdiek benetan legealdi honetan Estatutu horrek eman dezakeena garatzeko.

Eta garatu bi eratan. Barrura begira, etxe barrura begira, ze garbi dago esku artean ditugun gauzetan ere dena ez dugula ondo egin. Zenbait akats izan ditugu, badago zer hobetu eta zer sendotu, eta badago sektore publikoetatikan zer hobetu eta mejoratu. Baina beste dimentsio horretan, hau da, kanpora begira diodan dimentsio horretan, garbi daukagu ere lehentasun batzuk jarri behar direla; lehentasun horiek ditugunean akordioa zer-nolako kondizio politiko eta ekonomikotan burutu behar den zehaztu egin behar dugula; eta horretarako abiapuntutzat hartu behar dugula 93. urtean, uztailaren batean, Legebiltzar honek berak onartu zuen diktamena. Hori abiapuntutzat hartu eta Estatutua garatu, bete egin behar dugula.

Eta badu dimentsio sozial bat, eta ekonomikoa, ze, besteak beste, transferitzeke dauden hainbat gaik zerikusi zuzena dute autonomiaren garapenarekin, baina pertsona batek jeiki eta oheratzen den bitartean edo jaiotzetik hiltzera bitarteraino dituen giza harreman horietan garrantzi haundia duten kontuak eta materiak

resaltado el programa, ha explicado los pilares básicos del programa. Cuatro son esos pilares básicos, que yo considero claros y firmes: economía y solidaridad, autogobierno para el bienestar, paz y reconciliación, reforma política y también, considerando a Euskadi como marco cultural, cohesión social. Pienso que el Lehendakari ha expuesto excelentemente esos objetivos, y que los ha concretado suficientemente.

Con este acuerdo los tres partidos políticos hemos asumido la responsabilidad de construir la unidad desde la pluralidad, para que esa pluralidad que resulta enriquecedora influya positivamente en el cometido básico de nuestro quehacer político. Y ese cometido es uno: mejorar y construir día a día la patria vasca. Nos atrevemos a afirmar que ésta es la verdadera demanda de la sociedad vasca en su conjunto, rechazando las posturas que buscan la inestabilidad y la desorganización social y rechazando, del mismo modo, las posturas partidistas y los excesos que en nombre de la estabilidad hemos conocido durante los últimos años. Sin duda alguna, esta demanda era un fuerte clamor, y, por lo tanto, para nosotros, para los tres partidos, resultaba y resulta inaplazable.

Sin extenderme demasiado en cada campo o en cada objetivo, querría al menos mencionar los principales. Entre otros, el del autogobierno, que queda claramente recogido en nuestro programa, al mismo tiempo que se reconoce cierta impotencia, porque hace cuatro años también solicitábamos y anhelábamos el desarrollo del Estatuto, pero está claro que no basta con nuestra voluntad, puesto que hay que negociarlo con el Gobierno español. A pesar de que en la última fase se han dado algunos pasos en ese sentido, está claro que no se ha cumplido el pacto acordado hace quince años, primero entre los vascos, y, posteriormente con los poderes del Estado, es decir, el Estatuto. Y a la vista de las materias a transferir resulta evidente que ello tiene una dimensión política clara y que los tres partidos apostamos por que en esta legislatura se desarrolle el Estatuto.

Y que ese desarrollo tenga doble dimensión. Una dimensión interna, de puertas para dentro, porque está claro que no hemos gestionado nuestras competencias del todo bien. Hemos cometido algunos errores, y hay cosas que mejorar y perfeccionar en el sector público. Pero dentro de esa otra dimensión, es decir, en esa dimensión externa, también tenemos claro que hay que establecer unas prioridades; que cuando tengamos esas prioridades habrá que concretar en qué condiciones políticas y económicas ha de realizarse el acuerdo, y que para ello tenemos que partir del dictamen aprobado por este mismo Parlamento en julio del año 93. Debemos partir de esa base y desarrollar el Estatuto, cumplirlo.

Existe, además, una dimensión social y económica, porque, entre otras razones, algunas materias que aún no se han transferido guardan una relación directa con el desarrollo de la autonomía, quedan por transferir algunos asuntos y materias de gran importancia para las relaciones sociales de una persona desde que se

oraindik transferitzeke daude. Eta hor dimentsio sozial bat badago, eta hor momentu honetaraino autonomiaren garapena politikaren gaia izan den bezala, gizarte honek dituen hainbat eta hainbat elkartek, agentek, eta jendeak, parte hartu behar du denek batera politikoki eta sozialki Estatutu hori benetan garatu dezagun.

Ajuria Eneko Hitzarmena. Beharbada gehiegi hitz egiten da Ajuria Eneko Hitzarmenaz, eta aldiro-aldiro gatazkaren bat egoten da, bergizarteratzea dela, elkarrizketak direla ez direla, Leitzarango autobia (lehenengo Leitzaran non dagoen ezagutu behar da, kritikatu ahal izateko, eta ikusi zer dagoen, zein trazado, nola eraiki den, eta babes demokratikoa izan zuen ala ez ere begiratu)... Aldiro-aldiro azaltzen da Ajuria Eneko gaia, eta arrazoi bategatik: pake-egun horretatikan geroz eta hurbilago gaudelako. Zenbat eta hurbilago, orduan eta politizatuagoa prozesua.

Batzuei beldurra sartzen zaie gai hauetaz hitz egiterakoan, alde batekoei eta bestekoei. Eta garbi dagoena da Ajuria Eneko Itunaren barruan gaudenak, alderdi politikoak, bertako partaide garela, hemen egoteaz aparte, bertan esaten dena, 17 puntu horietan esaten dena, onartzen dugulako. Beste gauza bat da hortikan elkarrizketarako esku-luzatze bat egitea, beharrezkoa dela baderitzogu. Nik uste dut bi gai horiek argi azalduak daudela. Eta beharbada lehen azaldu den Garaikoetxea jaunak esan duenaren eta lehendakariaren goiz parteko diskurtsoaren artean bakarren batek kontraesana bilatu nahi baldin badu, nik uste dut alper-alperrik dabilela. Badakigu hemen zer gertatu den: besteak beste, kazetari batek bati deklarazioa kendu eta bestearengana joan, eta hortxe gizentzen da gauza. Denborak erakutsiko du ea helburu amankomunak ditugun ala ez.

Baina nik ez dut inongo konplejurik, Mayor Oreja jauna, aitortzeko Ajuria Eneko Itunak defizit bat baduela, besteak beste Ajuria Eneko zenbait puntutan azaltzen delako orain arte -lehen zeuden bezela, 88an- joku eta arau demokratikoetatikan kanpo dauden horiek gureganatzen saiatu behar dugula, arau eta norma horiek onar ditzaten joku politiko demokratikoan. Eta hori ez dugu lortu. Herri Batasunakoak oraindikan joku horretatikan kanpo daude, eta hori Ajuria Eneko Itunaren defizit bat da.

Jakina, baditu mila balore. Besteak beste, herri honetan zerbait zokoratu baldin bada, gogorkeria da. Gogorkeria zokoratuta dago, eta Ajuria Eneko Ituna ez zen asmatu, ez zen sortu inor zapaltzeko, baizikan, postura eta jarrera positibo batzuetatik balore batzuen errespetua aldarrikatuz, denak, bide berean ez bazen ere, gizarteak duen aniztasuna errespetatuz, denak joku-arau batzuen barruan sartu ahal izateko. Eta hori izan zen gure ahalegina. Ez dugu lortu. Aurrerakada eta pauso izugarriak eman ditugu, baina hori hortxe dago. Eta batek leporatu diezaioke hori paktuari, edo sartu ez direnei, esanez, bueno, "hauek ere gu baino egoskorragoak dira, eta ez datoz eta kitto; etena dago eta kitto". Ba, Ajuria Eneko Mahaiak ere ez du balio aldiro-aldiro juntatu eta komunikatu bat ateratzeko. Ajuria

levanta hasta que se acuesta, o desde que nace hasta que muere. Existe ahí una dimensión social, y ahí, si hasta ahora el desarrollo de la autonomía ha resultado ser una cuestión política, han de participar las diversas asociaciones, agentes y personas que componen esta sociedad, para que entre todos logremos el efectivo desarrollo político y social del Estatuto.

El pacto de Ajuria Enea. Tal vez se hable demasiado sobre el pacto de Ajuria Enea, y periódicamente surge algún conflicto en torno a la reinserción social, las conversaciones, la autovía de Leizaran (primero hay que saber dónde se encuentra Leizaran, para después poder criticar, y hay que analizar qué es lo que hay allí, qué trazado se ha elegido, cómo se ha construido, y también hay que tener en cuenta si contó con apoyo democrático)... Periódicamente surge el tema de Ajuria Enea, por una razón: porque cada vez nos encontramos más cerca del día de la pacificación.

Algunos se acobardan a la hora de hablar de estos temas, les sucede tanto a los de un lado como a los del otro. Lo que está claro es que los partidos políticos que estamos dentro del pacto de Ajuria Enea formamos parte del mismo porque, además de estar presentes en él, aceptamos lo que allí se dice, lo que se dice en esos 17 puntos. Otra cosa es que, si lo consideramos necesario, llevemos a cabo tentativas de diálogo en otros ámbitos. Creo que esas dos cosas están suficientemente clarificadas. Y si alguien quisiera buscar alguna contradicción entre la intervención de señor Garaikoetxea y el discurso que el Lehendakari ha realizado esta mañana, creo que su esfuerzo sería vano. Sabemos qué es lo que ha pasado aquí: entre otras cosas, un periodista arranca una declaración a uno, se dirige a otro y así crece la bola de nieve. El tiempo nos demostrará si nuestros objetivos son comunes o no.

Pero yo no tengo ningún complejo, señor Mayor Oreja, para reconocer que el pacto de Ajuria Enea tiene un deficit, puesto que en algunos puntos del pacto se dice que tenemos que esforzarnos en atraer a quienes hasta ahora -como antes, en el 88- se mantienen fuera de las normas y el juego democráticos, para que acepten esas normas del juego democrático. Y eso no lo hemos conseguido. Los miembros de Herri Batasuna siguen fuera de ese juego, lo cual supone un déficit en el pacto de Ajuria Enea.

También tiene muchos valores, evidentemente. Entre otros, que en este pueblo se ha conseguido arrinconar la violencia. La violencia ha sido arrinconada, y el pacto de Ajuria Enea no fue concebido, no fue creado para reprimir a nadie, sino que su intención era, a la vez que proclamaba el respeto hacia valores concretos desde determinadas posturas positivas, lograr que todos asumiéramos, si no un mismo camino, sí determinadas reglas de juego, desde el respeto a la pluralidad social. Y ése fue nuestro objetivo. No lo hemos conseguido. Hemos logrado grandes progresos y avances, pero eso sigue ahí. Y alguno podría imputarlo al pacto, o a los que no han entrado en él, diciendo que, bueno, "éstos son aún más obstinados que nosotros, no vienen y punto; se corta y punto". Pero la Mesa de Ajuria Enea tampoco sirve

Eneko Mahaira, itun horretara, ezin daiteke joan egotera. Egote hutsarekin gauza ez delako konponduko, eta, gure iritzian behintzat, inork pentsatzen baldin badu arazo honi, konflikto honi, bide polizial hutsetik emango zaiola konponbidea, gure iritzian behintzat, huts egiten du analisi horretan baldin badabil.

Hala eta guztiz ere, beste batzuk... Lehen hitz egin duen Herri Batasunako ordezkariak gauza asko esan ditu, aipatu ere bai. Ba, hitz egingo dugu horietaz ere. Esan duzu GAL auziaz hitz egitea guztatuko litzaizukeela. Ba, nik zerbait aipatuko dizut. Ze, besteak beste, aipatu duzu GALekin gobernatzen ari garela, Jáuregui, GAL eta ez dakit zer, Atutxaren maletina... Maletinaren gaia zeinek esandakoa da? Urquijok, agian? Kinitok, alegia? Garbi eduki behar duzue gauza bat: gai honen aurrean Euzko Alderdi Jeltzaleak iritzi oso garbia daukala. Besteak beste, GAL auziaz eta gaiaz kezkaturik bageunden ere, gaur esan dezakegu, zorionez, berandu bada ere, bazela garaia eta bakarren bat ausartu dela ikertzen hastera, eta ikerketa horrek eman ditzakeen ondorio bai penal bai politikoetan zehatzak eta garbiak izango gerala. Baina garbi eduki ezazue zuek herri honetan politikan gabiltzanon artean -nik ez dakit besteek zer egin duten, baina zuena jakina da-, herri honetan inork GAL taldearekin edo Amedorekin harremanik izan badu, Herri Batasunako Mahai Nazionala izan dela, Herri Batasunako Mahai Nazionala. Eta Kinito ez da bakarra, Kinito ez da bakarra. Inork eduki baldin badu harremanik haiekin, zuek izan zarete, ez gu.

Aipatu duzu Eusko Legebiltzarra, "Administración vascongada", "Parlamento vascongado"... Begiratu, gustatu ala ez gustatu, garbi eduki ezazu hau Parlamentu hau, Legebiltzar hau euskal nazioaren Legebiltzarra dela. Momentu honetan hirutatik bi euskaldun ordezkatzen baditu ere, Autonomi Estatutuak dio, besteak beste, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, eta baita ere Nafarroak, eskubidea dutela, nahi baldin badute -eta beraien borondatea errespetatuz, noski-, proiektu politiko amankomun bat garatzeko. Eta egongo dira beste euskaldun batzuk mugaz beste aldean. Baina hau euskal nazioaren Parlamentua da.

Eta ez daukazue alternatibarik. Bere garaian asmatu zenuten Legebiltzar herrikoi baten proiektua eta asmoa; juramentuak egin zenituzten Leiren, eta gero joan zineten Gernikara "herri-batzarre nazionala" antolatzera, eta pott, hantxe gelditu da. Estatutua txarra zela eta zuek atera zenuten "Euskal Nazional Estatutu" hura, ENA hura, non daukazue? Liburutegiren batean hautsa biltzen? Ez duzue plazaratzen ja? Zuen gauzak ja beste gauza batzuk dira, beste estrategia batzuk. Eta horietaz ere hitz egingo dugu.

Baina zuk beste kondizio bat azaldu duzu gaur hemen, presoarena alegia. Nik aldez aurretik esango dizut pentsatzen duguna: besteak beste, 600 preso dituen Estatu batek esku artean arazo politiko bat duela. Hori aurretik bihoakizu. Baina zuri -zu gaur ordezkari bezela

para juntarse periódicamente y elaborar un comunicado. No se puede asistir a la Mesa de Ajuria Enea para estar quieto. Porque con la mera asistencia no se arreglará nada, y, en nuestra opinión, si alguien piensa que este problema, este conflicto se va a resolver por la vía puramente policial, nosotros opinamos que se equivoca en el análisis.

De todos modos, otros... La representante de Herri Batasuna que ha intervenido anteriormente ha dicho muchas cosas, y ha hecho también muchas referencias. Por lo tanto, vamos a comentarlas. Ha dicho usted que le gustaría hablar del asunto del GAL. Pues yo le tengo que decir algo. Porque ha dicho usted, entre otras cosas, que estamos gobernando con el GAL, que si Jáuregui, GAL, etcétera, que si el maletín de Atutxa... ¿Quién ha mencionado el tema del maletín? ¿El señor Urquijo quizá? ¿Acaso Kinito? Una cosa tienen que tener ustedes clara: que la actitud del Partido Nacionalista Vasco ante este tema es muy clara. Entre otras cosas, que hemos estado preocupados por el tema del GAL, que afortunadamente hoy podemos decir que, aunque sea tarde, ya era hora de que alguien se atreviera a comenzar a investigar, y que seremos claros y concretos sobre las consecuencias tanto penales como políticas que se deriven de la investigación. Sin embargo, tengan ustedes claro que si entre quienes en este país nos dedicamos a la política existe alguien que ha tenido relación con el grupo GAL o con Amedo -yo no sé qué hacen los demás, pero su actitud es conocida-, ése ha sido la Mesa Nacional de Herri Batasuna, la Mesa Nacional de Herri Batasuna. Y Kinito no es el único, Kinito no es el único. Si alguien se ha relacionado con ellos, han sido ustedes, no nosotros.

Se ha referido al Parlamento Vasco, a la "Administración vascongada", al "Parlamento vascongado"... Mire usted, le guste o no le guste, tenga usted claro que este Parlamento es el Parlamento de la nación vasca. Aunque en estos momentos sólo represente a dos de cada tres vascos, el Estatuto de Autonomía dice que Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y también Navarra tienen derecho, si así lo desean -y respetando su voluntad, naturalmente-, a desarrollar un proyecto común. También hay algunos vascos al otro lado de la frontera. Pero éste es el Parlamento de la nación vasca.

Y ustedes no tienen una alternativa. En su momento se les ocurrió la idea de un Parlamento popular; realizaron las juras en Leire, y luego se fueron a Gernika, a organizar la "asamblea popular nacional" y nada más, ahí se acaba todo. Como el Estatuto no era bueno, ustedes sacaron el "Estatuto Nacional de Autonomía", ¿dónde guardan ustedes aquel ENA? ¿En alguna biblioteca cubierto de polvo? ¿Ya no lo presentan? Ahora se dedican a otras cosas, a otras estrategias. Y también hablaremos sobre ellas.

Pero usted hoy nos ha expuesto aquí otra condición, la del preso. Yo le voy a adelantar lo que pensamos: por un lado, que un Estado que cuenta con 600 presos tiene entre manos un problema político. Eso se lo adelanto. Pero a usted -puesto que ha venido en su

Y yo no pensaba apelar directamente a las conversaciones que tuvimos, pero, bien, usted ha apelado. Usted apela a las conversaciones conmigo, y usted dice que comprobó que el PNV no tenía intención de cambiar ni de rectificar. Y más aún nos ha dicho: que en todo momento el PNV descartaba al PP en el Gobierno y que somos unos "hipócritas políticos de Guinness". Creo que son más o menos palabras textuales de lo que usted ha dicho. Todo esto me parece grave, me parece serio, o poco serio.

Mire usted, nosotros tuvimos dos conversaciones, dos largas conversaciones, y, efectivamente, en la primera conversación usted partía del supuesto de que el PNV no contaba con ustedes, de que en el PNV podría haber una historia larga, unas actitudes. Y yo le dije: "Mire, señor Mayor Oreja, no se equivoque usted; a lo mejor resulta que en el PNV no hay tanta dificultad para entenderse con vosotros. ¡A ver si resulta que la dificultad no es tanto del PNV y es del PP! Por tanto, piensen seriamente en la posibilidad de un entendimiento".

Pero fíjese usted lo que me plantea a mí en la conversación, lo que me plantea a mí en la conversación, que creo además que recordará cuál fue la respuesta. Usted me venía a decir: "Lehendakari, lo que tenga que hacer hágalo poniendo la mirada allá por mayo del 96, allá por mayo del 96. Es decir, sitúese usted ya en un escenario de cambio en España y en Madrid". Yo estaba interpretando en un escenario de cambio, naturalmente, pues, en la Moncloa, que en lugar del señor González estaría el señor Aznar. "A partir de situarse usted en ese escenario, empiece a tomar las decisiones y a montar la estrategia política ahora en función de ese hecho que se va a producir dentro de año y medio".

Y ¿cuál era su consejo? "No haga un Gobierno sólido, no haga un Gobierno fuerte". Es decir, me encontré con una nueva vocación "pujolista" en este país. "Nosotros desde la oposición trataremos de darle cobertura en los tres temas fundamentales que usted en este momento tiene, que es la investidura, que son los Presupuestos..." y no sé cuál era el otro tema, igual usted recordará. "Pero usted no haga en este momento una situación sólida y estable. Si usted hace una situación sólida y estable en este momento nosotros nos convertiremos en una dura oposición. Pero si usted hace un Gobierno no estable, no fuerte, que nos dé a nosotros cabida y oportunidad para poder entrar en esa entente con ese Gobierno, nosotros entonces estaremos en ese apoyo".

Y a partir de ahí eso que usted ahora me dice, que estamos tratando de repartirnos las poltronas de las Diputaciones, de los Ayuntamientos... ¡Pero si el planteamiento que me estaba haciendo usted era el mismo! "Y a partir de ahí usted funcione así hasta mayo, porque en mayo nos entenderemos ya en el siguiente proceso".

Pero yo le dije: "Mire usted, señor Mayor Oreja, lo que yo no voy a hacer en este momento, en la situación

Eta ez neukan pentsatuta eduki genituen elkarrizketak zuzenean aipatzea, baina, tira, zuk aipatu dituzu. Nirekin edukitako elkarrizketak aipatzen dituzu zuk, eta esaten duzu bada egiaztatu egin zenuela EAJk ez zuela asmorik ez aldatzeko eta ez zuzentzeko. Eta gehiago ere esan diguzu: EAJk PP Gobernutik kanpo ematen zuela beti, eta "Guinness-en azaltzeko moduko hipokrita politikoak" garela. Uste dut hitz horiek nahiko hitzez hitz azaltzen dutela esan duzuna. Larri deritzot horri guztiari, serio deritzot, edo seriotasun gutxiko.

Begira ezazu, guk elkarrizketa bi eduki genituen, elkarrizketa luze bi, eta, izan ere, lehenengo elkarrizketan zuk uste bat hartzen zenuen abiapuntu, hain zuzen ere EAJk ez zuela zuekin kontatzen, EAJn beharbada bazegoela halako historia luzea, bazeudela halako jokaera batzuk. Eta nik esan nizun: "Begira, Mayor Oreja jauna, ez zaitez oker egon; baliteke EAJn hainbeste zailtasunik ez izatea zuekin ulertzeko. Baliteke zailtasuna EAJrena barik PPrena izatea! Benetan pentsa ezazue, beraz, elkar ulertu ote genezakeen".

Baina begira ezazu zer planteatu zenidan elkarrizketan, zer planteatu zenidan elkarrizketan, zeren uste dut gainera erantzuna gogoan edukiko duzula. Hau-edo esaten zenidan: "Lehendakaria, egin beharra daukazuna egin ezazu begiak 96ko maiatz aldean ipinita, begiak 96ko maiatz aldean ipinita. Hau da, jarri zaitez dagoeneko "aldaketa-eszenario" batean Espainian eta Madrilen". Ni interpretatzen ari nintzen "aldaketa-eszenario" hori, bistan denez, Moncloan izango zen, Gonzalez jaunaren ordez Aznar jauna egongo zen. "Zu eszenario horretan jarri eta gero, hasi zaitez erabakiak hartzen eta estrategia politikoa antolatzen orain horri begira, hemendik urte t'erdira gertatuko den horren begira".

Eta zein zen zure aholkua? "Ez ezazu Gobernu sendorik egin, ez ezazu Gobernu indartsurik egin". Hau da, beste bokazio "pujolista" batekin egin nuen topo herri honetan. "Guk oposiziotik ahalegina egingo dugu zuri babes emateko orain dauzkazun hiru gai funtsezkoetan, hau da, izendapenean, aurrekontuetan..." eta ez dakit zein zen beste gaia; zuk gogoan izango duzu, hurrean. "Baina zuk ez ezazu orain halako egoera sendo eta egonkorrik jarri: Orain halako egoera sendo eta egonkorra jartzen baldin baduzu oposizio gogorra izango gara. Baina egiten duzun Gobernua egonkorra ez bada, indartsua ez bada, guri lekua eta aukera ematen baldin badigu Gobernu horrekin elkar ulertze horretan sartu ahal izateko, guk orduan babes hori emango dizugu".

Eta hortik aurrera zuk orain esaten didazun hori, alegia diputazio, udal eta abarretako poltronak geure artean banatu nahi ditugula... Baina zu, ostera, planteamendu berbera ari zinen niri egiten! "Eta hortik aurrera zuk horrela jarrai ezazu maiatz arte, zeren maiatzean berriz elkar ulertuko dugu hurrengo prozesuan".

Nik esan nizun baina: "Begira ezazu, Mayor Oreja jauna, nik orain, herri hau bizitzen ari den egoeran,

en la que esta viviendo este país, es ir tomando decisiones en virtud de lo que pueda ocurrir dentro de dos años en Madrid, primero porque me parece impresentable y, desde luego, como nacionalista no lo voy a aceptar nunca". Entonces, usted estaba preocupado: "Pero, entonces, ¿qué va a ocurrir?, ¿qué va a ocurrir?" -"Pues no va a ocurrir nada -le decía-, no va a ocurrir nada. Haremos un Gobierno, mi empeño va a ser hacer un Gobierno tripartido de manera que ese Gobierno resulte sólido y estable, sólido y estable, y si dentro de dos años cambian las circunstancias en Madrid nosotros seguiremos con el Gobierno sólido y estable aquí y ya nos entenderemos de institución a institución con el nuevo Gobierno de Madrid".

Por tanto, ni cinismos ni Guinness, señor Mayor Oreja. Al final ustedes no han querido seguir dando pasos, porque en la segunda conversación que tuvimos tiempo le faltó a usted para decirme que no querían seguir por ese camino, que ustedes preferían quedarse en la oposición de momento, que hiciera yo lo que considerara más oportuno, evidentemente, pues cualquier solución sería buena, pero que para usted era preferible que yo pudiera al final llegar a una solución no muy sólida. Ése era su deseo. Y usted se quedó fuera, y ustedes se quedaron fuera.

Le digo lo mismo que a los señores de IU: o sea, si realmente aquí yo llego a estar esperando para formar un Gobierno a que todos los partidos hubieran estado conjugando intereses de esa manera, hoy es el día en que no hubiéramos tenido ni Gobierno, ni tripartito, ni no tripartito, ni programa, ni programa muy lleno, ni programa vacío... No hubiéramos tenido nada.

Bien. Yo, dicho todo esto, al final lo que quiero es, con respecto a esas acusaciones genéricas que me han ido haciendo, de entrada negarles la mayor. Es decir, que éste es un Gobierno ajeno a la crisis, o que yo he planteado este Gobierno o mi discurso esta mañana desde una situación de búnker o de burbuja es falso. Es falso porque toda la primera parte de mi discurso es tratar de justificar la necesidad o de explicar la necesidad de un Gobierno estable precisamente por las circunstancias que se están viviendo y para tratar de salir al paso de lo que pueda derivarse de las circunstancias que estamos viviendo, bien sean circunstancias electorales o bien sean circunstancias no electorales, tanto aquí como a nivel estatal, como a nivel europeo o a nivel mundial.

Por tanto, soy muy consciente, muy consciente del contexto generalizado de crisis que estamos viviendo, tanto crisis de inseguridad, de incertidumbre, como de desprestigio naturalmente de la política. Y precisamente para tratar de paliar y tratar de volver a recuperar esa falta de credibilidad que en este momento desgraciadamente tenemos los políticos es por lo que en este acuerdo de coalición nos hemos comprometido con temas muy concretos y muy puntuales, desde la austeridad, la transparencia, la eficacia, la regeneración de la vida política, precisamente por esa preocupación que estamos constatando.

egingo ez dudana da erabakiak hartzen joan bi urte barru Madrilen gerta litekeenari begira, lehenengo eta behin lotsagarria iruditzen zaidalako eta, zer esanik ez, abertzale gisa ere sekula ez dudalako onartuko". Orduan, zu arduratuta zeunden: "Baina, orduan, zer gertatuko da?, zer gertatuko da?" -"Bada ez da ezer ere gertatuko -esaten nizun-, ez da ezer ere gertatuko. Gobernu bat egingo dugu, nik ahalegina egingo dut hiru alderdiko Gobernua Gobernu sendo eta egonkorra izan dadin, Gobernu sendo eta egonkorra izan dadin, eta bi urte barru Madrilen zirkunstantziak aldatzen baldin badira guk hemen Gobernu sendo eta egonkor horrekin jarraituko dugu eta antolatuko gara erakundetik erakundera Madrilgo Gobernu berriarekin".

Beraz, ez zinismorik eta ez Guinessik, Mayor Oreja jauna. Zuek azkenean ez duzue urrats gehiagorik eman nahi izan, zeren izan genuen bigarren elkarrizketan bizkor asko esan zenidan, astia galdu barik esan ere, ez zenutela bide horretan segi nahi, zuek nahiago zenutela oraingoz oposizioan geratu, egokien neritzona egin nezala, jakina, ona litzatekeelako edozein irtenbide, baina zuretzat hobe zela nik azkenean ez oso irtenbide sendoetara iristea. Horixe gura zenuen. Eta zu kanpoan geratu zinen, eta zuek kanpoan geratu zineten.

EBko jaunei esaniko berbera diotsut: hau da, baldin inola ere ni hemen zain egoten banaiz harik eta alderdi guztiek beren interesak era horretara antolatu arte, gaur da eguna hor egongo ginenekoa ez Gobernu, ez hiru alderdiko, ez bi alderdiko, ez programa, ez programa bete-beterik, ez programa hutsik... Ezer ere ez genuen edukiko.

Tira ba. Nik, hori guztia esanik, azkenean nahi dudana da, egin izan dizkidazuen salaketa orokor horiek direla eta, lehenengo eta behin zuei handiena ukatu. Hau da, Gobernu hau larrialdia kontuan hartu gabe egin dugula, edo eta Gobernu hau edo, zehatz esanda, gaur goizeko neure hitzaldia bunkeretik edo ur-anpulutik planteatu dudala. Gezurra da zeren neure hitzaldiaren lehenengo zati guztiak duen helburua da, izan ere, arrazoiak ematen saiatzea edo aditzera ematea hemen Gobernu egonkorraren beharra dagoela, hain zuzen ere bai orain hemen ditugun gorabeherengatik eta bai aurrea hartzeagatik gorabehera horietatik etorri litekeenari, nahiz gorabehera horiek hauteskundeei dagozkienak izan, nahiz gorabehera horiek hauteskundeei dagozkienak ez izan, nola hemen hala Estatuan, nola Europan zein munduan.

Beraz, jabetuta nago oso, jabetuta nago oso orain jasaten ari garen larrialdi-kontestu orokorraz, bai segurtasun-faltak, zalantza-egoerak, sortarazitako larrialdiaz, bai inondik ere politikaren prestigio-galtzeak eragindakoaz. Eta hain zuzen ere sinesgarritasun-falta hori, une honetan zoritxarrez politikariok duguna, konpontzen saiatzeko eta atzera berreskuratzen saiatzeko konprometitu gara koalizio-hitzarmen honetan oso gai zehatz eta puntual batzuekin, oinarri harturik gastu-zuhurtasuna, argitasuna, eraginkortasuna, bizitza politikoa ernaberritzea, hain zuzen ere sumatzen ari garen ardura horrengatik.

O que este Gobierno es más de lo mismo, que no hemos querido cambiar ni rectificar. Bien, yo tengo que decirle lo mismo: este Gobierno no es más de lo mismo; este Gobierno arranca con un nuevo programa. Indudablemente, hay muchas cosas que se arrastran, porque aquí no hay un corte de la noche a la mañana, pero hemos tratado de ir combinando y de ir compaginando las posiciones, los deseos, las voluntades, de manera que converjan, de los tres socios heterogéneos y plurales que componemos el Gobierno en este programa.

¿Estabilidad sólo aritmética? Mire, hay una cosa que en esto quiero plantear con mucha naturalidad y con mucha espontaneidad a todo el mundo. Pues claro que en este Gobierno presumo, aunque no me agrade, pues presumo que habrá momentos, circunstancias que puedan provocar, pues, algunas tensiones, etcétera. Bien. Tensiones, dificultades, suele haber muchas veces en Gobiernos monocolores. Lo ha solido haber en Gobiernos bicolores o bipartitos. Naturalmente, yo no voy a ser tan ingenuo de pensar que no los va a haber en Gobiernos tripartitos. Si hasta en las mejores familias suele haber, pues, bueno, tensiones, problemas de vez en cuando, ¡cómo no en un asunto político tan complejo como puede ser un Gobierno y en una circunstancia o en unas circunstancias tan complejas como las que nos está tocando vivir!

Pero también les tengo que decir a todos los que hablan de una estabilidad ficticia, de que en definitiva los problemas los vamos a tener dentro, que en cualquier momento eso puede quebrar: pues, miren, no es ésa la voluntad. Yo no sé si quebrará o no quebrará, pero desde luego en este país, que tiene a veces fama de ser un país tan intolerante, tan radical, un país en que no son capaces de entenderse unos con otros, que parece que estamos siempre tirados al monte, y ese tipo de famas las suelen querer poner desde fuera, bueno, pues éste es un país que está viviendo la coalición, el entendimiento, el consenso con distintas fuerzas políticas desde hace un montón de años. Y, por tanto, creo que en ese sentido tenemos una experiencia que nos avala.

Si a lo largo de la coalición puede haber más o menos dificultades en algún momento -yo espero que sean las menos-, bueno, pues tampoco por eso hay que echarse al monte ni hay que escandalizarse. Es decir, yo esas cosas las plantearía con total y absoluta naturalidad y normalidad. Pero le aseguro que la apuesta que aquí hemos hecho todos, a ciencia y conciencia, sabiendo exactamente en qué contexto nos estamos moviendo, con qué dificultades nos vamos a enfrentar, la hemos hecho a ciencia y conciencia, con la apuesta clara por la estabilidad.

Bueno, que esta coalición es una coalición de mero reparto de poder, no sólo de Gobierno sino también de Diputaciones... Esta acusación ya sabía yo que iba a venir. Es una acusación que ya se está convirtiendo en tópica de unos y de otros. Bien, simplemente decirles: no es verdad. Les digo a los de UA, les digo a los de IU, les

Edo Gobernu hau betikoa dela, ez dugula nahi izan ez aldatu eta ez zuzendu. Tira ba, gauza berbera esan behar dizut: Gobernu hau ez da betikoa; Gobernu honek programa berria du abiapuntu. Zalantza barik, gauza asko badira lehendik datozenak, hemen ez da-eta etenik egin gauetik goizera, baina hemen ahalegindu gara elkartuz joaten eta batera eramaten, bat egin dezaten moduan, geure jarrerak, nahiak, asmoak eta, alegia Gobernua osatzen dugun hiru bazkide heterogeno eta pluralok programa honetan dauzkagun jarrerak, nahiak, asmoak eta.

Egonkortasun aritmetiko hutsa? Begira ezazu, gauza bat bada honetan naturaltasun handiz eta berezkotasun handiz jende guztiari azaldu nahi diodana. Jakina Gobernu honetan sumatzen dudala, atsegin ez dudan arren, jakina sumatzen dudala zenbait unetan, zenbait alditan, halako tirabirak-eta sortarazi litezkeela. Tirabirak, eragozpenak, askotan izan ohi dira kolore bakarreko Gobernuetan. Kolore edo alderdi biko Gobernuetan ere izan izan dira horrelakoak. Bistan denez, ez naiz hain inozoa hiru alderdiko Gobernuetan halakorik izango ez dela uste izateko. Kontuan izanda noizean behin familiarik onenetan ere izaten direla tirabirak, arazoak, zelan ez da bada halakorik izango Gobernua bezalako hain gai politiko gaitzean eta bizitzea egokitu zaigun hain ingurumari gaitz edo gaitzetan!

Baina beste gauza bat ere esan behar diet esaten dutenei hemen itxurazko egonkortasuna dagoela, azken batean arazoak barruan edukiko ditugula, edozein unetan honek krak egin dezakeela: bada, begira ezazue, guk ez dugu hori nahi. Nik ez dakit krak egingo duen edo ez, baina inola ere herri honetan, batzuetan hain pairaezin, hain ertzekoi fama handia duen herri honetan, batzuek besteekin elkar ulertzeko gauza ez omen diren, antza denez beti mendira jotzeko gertu omen gauden herri honetan, eta horrelako omenak kanpotik jarri nahi izaten dizkigute, tira bada hau da herri bat aspaldiko urtetan bizi dena koalizioan, elkar aditzean, adostasunean, indar politiko desberdinen artean. Eta, beraz, uste dut abalatu egiten gaituen esperientzia badugula alde horretatik.

Koalizioaren bizitzan inoiz edo behin zailtasun batzuk sortu ahal baldin badira -ahalik eta gutxien izango ahal dira horiek-, tira, bada hori ere ez da mendira jotzeko bestekoa eta ez dugu eskandalizatu behar. Hau da, nik gauza horiek guztizko eta erabateko naturaltasun eta normaltasunarekin azalduko nituzke. Baina benetan esaten dizut, benetan esan ere, hemen denok egin dugun apustua, jakinaren gainean, zehatz-mehatz jakinik zer ingurune genuen ibiltoki, zer zailtasun genituen aurre egin beharrak, jakinaren gainean egin dugula, egonkortasunaren alde garbi eginez.

Koalizio hau botere-banaketa hutseko koalizioa dela, ez Gobernuarena bakarrik, baita Diputazioena ere... Banengoen bada ni salaketa hori etorriko zela. Salaketa hori topiko ere bihurtzen hasita dago, batzuen eta besteen topiko hain zuzen. Hauxe besterik ez dizuet esango: ez da egia. UAkoei esaten diet, EBkoei esaten

digo a los del PP.

Este Gobierno no ha ocultado en ningún momento, y yo mismo no oculté en ningún momento desde el primer día, desde la noche del día 23, que, dadas las circunstancias, dada esta fragmentación del voto, dada la múltiple presencia de partidos en la Cámara, dadas las elecciones municipales que íbamos a tener dentro de unos meses, dado que también habría unos cambios políticos o unas elecciones cuando menos generales a nivel estatal, dado el contexto general que estábamos viviendo y dado que, por otra parte, estábamos viviendo y nos iba a tocar vivir en esta legislatura una coyuntura económica positiva, era conveniente y era necesario garantizar la estabilidad y la gobernabilidad en todas las instituciones y en todo este país pasara lo que pasara en los próximos cuatro años.

Y ahí lo único que hemos hecho los socios es comprometernos, respetando naturalmente la voluntad popular, a garantizar esa estabilidad y esa gobernabilidad. Y creo que esto es un acto de responsabilidad, esto es un acto de responsabilidad. No es un acto de estar ocupando poltronas, es un acto de responsabilidad. La sociedad dirá al final cómo quiere que esas instituciones sean regidas y gobernadas en su momento.

Bueno, también se ha dicho, y esto ya me dolía, me dolía cuando estaba -pero para qué me va a doler- el de Izquierda Unida hablando de que éste es un Gobierno de derechas, que éste es un Gobierno neoliberal... Bueno, ya le han contestado, pero yo, sin acritud, simplemente porque estoy seguro de que es porque usted desconoce y porque usted, como le han dicho, seguramente ni ha leído los periódicos toda esta temporada, yo no sé si usted sabe que en este país somos pioneros, pero pioneros a nivel de todo el Estado, en todo lo que son políticas de bienestar social, en todo lo que son servicios sociales en general. Somos pioneros. Incluso en el salario mínimo familiar, aquello que pusimos aquí en marcha el año 89, pioneros también en eso.

Todo mi discurso de esta mañana y el propio programa, cuando está desarrollando los dos capítulos básicos, el que hace referencia al planteamiento económico de la competitividad y la formación para la consecución del empleo... Y yo ya sé que soy duro y que soy claro, y que esta mañana lo he sido, y que también el programa en ese sentido lo es. Tal vez yo esta mañana todavía he sido más duro en el planteamiento de la competitividad. Pero al mismo tiempo hay un segundo capítulo que está haciendo referencia inmediatamente a la solidaridad. Y desde luego no este Gobierno que nace ahora: el Gobierno anterior y el Gobierno anterior, que ya empezamos también en coalición ya el año 87, y desde luego el que me tocó a mí también gobernar antes, siempre hemos tenido muy claros los conceptos de solidaridad, los conceptos de bienestar social, los conceptos de atender y evitar la marginación social, etcétera, etcétera.

Por tanto, yo le aseguro, señor Madrazo, que en

diet, PPkoei esaten diet.

Gobernu honek inoiz ez du ezkutatu, eta nik neuk ere ez nuen lehenengo egunetik hasita inoiz ezkutatu, 23garreneko gautik hasita, bada, ingurumaria dela-eta, boto-zatikatze hau dela-eta, Legebiltzarrean alderdi asko daudela-eta, hilabete batzuen buruan izango genituen udal hauteskundeak direla-eta, era berean Estatuan aldaketa politiko batzuk edo hauteskunde batzuk behinik behin orokorrak izango zirela-eta, igarotzen genbiltzan ingurune orokorra dela-eta, eta, bestalde, legegintzaldi honetan ekonomi abagadune positiboa igarotzen gengozela eta ekonomi abagadune positiboa igarotzea egokituko zitzaigula-eta, komenigarria eta beharrezkoa zela, bai erakunde guztietan eta bai herri honetan guztian ere, egonkortasuna eta gobernagarritasuna bermatzea hurrengo lau urtean gertatuko zena gertatuko zela.

Eta hor bazkideok gauza bat baino ez dugu egin, alegia geure hitza eman, argi dagoenez herriaren borondatea errespetatuz, egonkortasun hori eta gobernagarritasun hori bermatuko dugula. Eta uste dut hori ardurazko ekintza bat dela, hori ardurazko ekintza bat dela. Hori egitea ez da poltronak okupatzea, hori egitea ardurazko ekintza bat da. Gizarteak esango du azkenean nola nahi duen erakunde horiek bere garaian kudeatzea eta gobernatzea.

Esan dute, berebat, eta horrek aldiz min eman dit, min eman dit hain zuzen ere -baina zertarako emango dit min- Ezker Batukoa hor esaten ihardun duenean Gobernu hau eskumako Gobernua dela, Gobernu neoliberala dela... Tira, erantzun dizute dagoeneko, baina nik, garraztasun barik, zeren egia esan ziur nago ez dakizulako esaten duzula hori eta baita ere, esan dizuten moduan, ziur asko irakurri ere egin ez dituzulako egunkariak azken bolada honetan guztian, nik ez dakit ba ote dakizun herri honetan aitzindari garela, baina Estatu guztian garela aitzindari, ongizate-politikei dagozkien guztietan, oro har gizarte-zerbitzuei dagozkien guztietan. Aitzindari gara. Baita familientzako gutxieneko soldatan ere, hemen 89an martxan jarri genuen harako hartan ere, aitzindari gara horretan ere.

Gaur goizeko nire hitzaldi guztia eta programa bera, oinarrizko kapitulu biak garatzen dituenekoan, lehiakortasunaren ikuspegi ekonomikoa eta lana lortzeko prestakuntza aipatzen duena... Eta nik badakit gogorra naizena eta garbia naizena, eta gaur goizean halakoa izan naizena, eta alde horretatik programa ere halakoa badena. Beharbada ni gaur goizean oraindik ere gogorragoa izan naiz lehiakortasuna azaltzerakoan. Baina aldi berean bigarren kapitulu bat badago berehala elkartasuna aipatzen ari dena. Eta nolanahi ere, ez orain jaiotzen ari den Gobernua: aurreko Gobernua eta aurreko Gobernua, koalizioan ere hasi ginen-eta 87an bertan, eta nolanahi ere niri ere egokitu zitzaidana lehen gobernatzea, beti eduki ditugu oso garbi elkartasun kontzeptuak, gizarte-ongizate kontzeptuak, gizarte-bazterketaz arduratu eta halakorik eragozteko kontzeptuak, eta abar, eta abar.

Beraz, egon zaitez ziur, Madrazo jauna, bada alde

ese sentido se va a encontrar con un Gobierno muy sensible, muy sensible a lo que es la competitividad, porque eso al final nos impone en este momento la realidad mundial. En esta aldea global o en esta aldea mundial donde ya toda la economía está internacionalizada no queda más remedio que ser competitivo. Pero también uno es muy consciente de que a partir de esa competitividad, que es al final lo que nos tiene que llevar a la generación de riqueza, tan sensibles como somos a la generación de riqueza, seremos y lo estamos siendo también al reparto precisamente de esta riqueza.

Se me enciende una luz... bien. El tema de la Mesa de Ajuria Enea. No quiero tocar este asunto en el Pleno. Lo he tocado esta mañana por si alguna duda quedaba, para que quedasen las cosas claras desde nuestra posición. Creo que nadie tiene que sentirse tampoco ofendido o molesto porque tres partidos que van a ser socios de Gobierno, que se han comprometido a ser socios de Gobierno, pues, hayan querido también tratar de ese tema. Pero esos tres partidos, después de hacer sus consideraciones, de hacer sus reflexiones, terminan ese punto del acuerdo programático con el párrafo de la página 63d, donde se dice que, en cualquier caso, todo eso que aquí nosotros estamos diciendo en este programa de coalición de gobierno, todo esto irá a la Mesa de Ajuria Enea, y será en definitiva la Mesa de Ajuria Enea, como órgano ajeno totalmente al Gobierno, ajeno incluso a este Parlamento, soberano en sí mismo, quien debatirá lo que considere oportuno debatir e irá tomando las decisiones como hasta ahora las ha ido tomando, en la forma que considere más conveniente.

Bien. Por tanto -me toca ya terminar-, yo quiero hacer una apelación clara a lo siguiente: quiero decirles claramente que este Gobierno nace con ilusión, que este Gobierno nace con fuerza, que este Gobierno nace con solidez y que éste es un Gobierno capaz de garantizar la estabilidad institucional y política a este país. Y el compromiso que hemos asumido, al margen de los avatares que puedan producirse, es un compromiso para cuatro años; que este Gobierno garantiza también la gobernabilidad de este país, y que este Gobierno va a hacer todo esto en base a un programa, un programa que pretende dar respuesta, desde la experiencia que tenemos ya todos, dar respuesta a los problemas fundamentales que tiene este país, que son la competitividad y la formación para la consecución del empleo, la solidaridad para superar cualquier proceso de marginación, y también el compromiso de la integración social y cultural, el desarrollo pleno del autogobierno precisamente como instrumento básico para garantizar nuestro futuro, nuestro bienestar en el futuro y nuestras aspiraciones como pueblo. Y, finalmente, también un compromiso claro de hacer los esfuerzos procedentes en esa vía del diálogo y de la distensión para la reconciliación y la paz. Y que la fortaleza de este Gobierno se fundamenta en 42 escaños (nunca hemos tenido un Gobierno tan sólido y tan apoyado por este Parlamento), la fortaleza de 42 escaños y 600.000 votos de este país.

horretatik oso Gobernu sentiberarekin egingo duzula topo, lehiakortasunaren aldera sentiberatsun handia erakutsiko duen Gobernuarekin, zeren azkenean une honetan munduko errealitateak behartzen baikaitu horretara. Orain ekonomia guztia internazionalizatuta dagoen herrixka global honetan edo herrixka mundial honetan lehiakorra izatea beste erremediorik ez da geratzen. Baina bat ondo jakinean dago, ondo jakinean ere badagoenez, lehiakortasun horretatik abiatuta, horrexek eraman behar gaituelako azkenean ondasun sortzera, garen bezain sentiberak garela ondasun sortzearekiko, hain zuzen ere sentiberak izango garela eta izaten ari garela dagoeneko ondasun horien banaketarekiko ere.

Argi bat piztu zait... ondo da. Ajuria Eneko Mahaiarena. Ez dut gai hau Osoko Bilkuran aipatu nahi. Gaur goizean aipatu dut zalantzaren bat geratzen bazen ere, gauzak gure jarreratik ikusita garbi gera zitezen. Uste dut inork ez duela haserre edo kexu egon behar gobernukide izango diren hiru alderdiek, gobernukide izatea hitz eman dutenek, bada, gai hori ere erabili nahi izan dutelako. Baina hiru alderdi horiek, beren oharbideak egin ostean, beren gogoetak egin ostean, programaren akordioaren puntu hori 63d orrialdeko lerroaldiarekin amaitzen dute; eta hor esaten da, edonola ere, gu hemen gobernu-koaliziorako programa honetan esaten ari garen hori guztia Ajuria Eneko Mahaira joango dela, eta azken batean Ajuria Eneko Mahaia izango dela, erabat Gobernuaz kanpoko organo gisa, baita Legebiltzar honetaz kanpoko organo gisa ere, bere buruaren jabe den organo gisa, eztabaidatu beharreko deritzona eztabaidatuko duena eta erabakiak orain arte hartu izan dituen moduan hartuko dituena, egokien irizten dion moduan, hain zuzen.

Tira ba. Hortaz -amaitu beharrean nago-, dei garbi bat egin gura dut honako honetarako: argi eta garbi esan nahi dizuet Gobernu hau ilusioz jaio dela, Gobernu hau indarrez jaio dela, Gobernu hau sendotasunez jaio dela eta Gobernu hau, halaber, gauza dela herri honi egonkortasun instituzional eta politikoa bermatzeko. Eta geure gain hartu dugun konpromisoa, gerta daitezkeen ustegabekoak alde bat utzita, lau urterako konpromisoa dugu; Gobernu honek herri honen gobernagarritasuna ere bermatzen duela, eta Gobernu honek hori guztia programa batean oinarrituta egingo duela, eta programa horrek erantzuna eman nahi diela, orain denok daukagun eskarmentutik eman nahi ere, herri honek dituen arazo nagusiei, hala nola lana lortzeko prestakuntza, edozein bazterreratze-prozesu gainditzeko elkartasuna, eta baita ere gizarte- eta kultura-mailako elkar hartzeko konpromisoa, autogobernuaren guztizko garapena hain zuzen ere oinarrizko bitarteko gisa bai gure geroa bermatzeko, bai etorkizunean geure ongizatea bermatzeko, bai herri gisa ditugun helburuak bermatzeko. Eta, azkenean, konpromiso garbi bat egin beharreko ahalegin guztiak egitearen aldekoa adiskidetzea eta bakea helburu dituen elkarrizketaren eta baretzearen bide horretan aurrera. Eta Gobernu honen sendotasunak 42 eserleku dituela zimendarri (egundaino ez dugu izan horren Gobernu sendorik eta Legebiltzar honen hainbesteko sostengurik lortu duenik), 42 eserlekuk eta herri honen 600.000 botok ematen dioten

Nada más y muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Ardanza jauna.

Legebiltzarreko taldeen ihardespen txanda. Turnos de réplica de los grupos parlamentarios.

Tiene la palabra el representante del Grupo Foralista Alavés. Tiene la palabra el señor Mosquera por espacio de 10 minutos.

El Sr. **MOSQUERA MATA**: Gracias, Presidente.

La fortaleza de un Gobierno no sólo está en el número de parlamentarios que se sientan en una Cámara parlamentaria, está en la capacidad de conectar día a día en su trabajo legislativo y ejecutivo con la soberanía popular, con la voluntad de los ciudadanos. De ahí que en la intervención primera yo le dijera, señor Ardanza, que el éxito o fracaso de su Gobierno iba a depender precisamente del éxito y el fracaso de las políticas que aquí se hagan en relación con las necesidades y los problemas sociales.

Dicho esto, quiero decir -que, efectivamente, usted lo ha dicho con toda corrección, como suele ser además habitual en usted- que nosotros en ningún momento le planteamos que quisiéramos formar parte de su Gobierno. Sí le planteamos, y se lo he vuelto a plantear hoy aquí, nuestra voluntad inequívoca de participar en la construcción de ésta nuestra Comunidad, de éste nuestro país. Y, hoy se lo he vuelto a reiterar, desde un modelo de vertebración que es necesario y en el cual la discusión entre ustedes y nosotros puede ser el modelo que utilizamos tanto en el modelo de vertebración como el propio modelo de organización interna de nuestra Comunidad.

Yo, por lo tanto -ni lo hice antes ni quiero hacer ahora-, no voy a discutir con usted los socios que ha escogido. Ha escogido usted los socios que le ha parecido, y ha hecho usted muy bien. Pero, mire usted, después de oír a los representantes de sus socios me va usted a permitir que haga de abogado del diablo y que le apunte algunas cosas que empiezan a indicar que hay -vamos a decirlo con todo cariño- sensibilidades distintas que se manifiestan desde este mismo momento.

Me imagino que hay muchas sensibilidades y que ustedes habrán tenido un proceso difícil para conciliar ese programa. Pero, mire usted, la idea de autogobierno que tiene el señor don Carlos Garaikoetxea me parece que va mucho más allá de lo que aparece en el propio programa de gobierno, que yo no recibí, que lo conseguí por una vía que no le voy a contar a usted aquí, que es hasta cierto punto rocambolesca, para que usted lo sepa.

En segundo lugar, lo que ha planteado legítimamente don Carlos Garaikoetxea sobre la Mesa de Ajuria Enea no tiene nada que ver con lo que ha

sendotasuna, alafede.

Besterik ez eta eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Muchas gracias, señor Ardanza.

Turno de réplica de los grupos parlamentarios. Legebiltzarreko taldeen erreplika-txanda.

Arabako Foruzaleak Taldeko ordezkariak du hitza. Mosquera jaunak du hitza 10 minutuz.

MOSQUERA MATA jaunak: Mila esker, lehendakari.

Gobernu baten indarra ez datza Legebiltzarrean eseritzen diren legebiltzarkideen zenbatekoan bakarrik, baizik eta bere lan legislatibo eta exekutiboan egunoro herritarrekin, herritarren borondatearekin bat egiteko gaitasunean. Horregatik esan nion Ardanza jaunari nire lehenengo eskuhartzean bere Gobernuaren arrakasta edo porrota, hain zuzen, gizartearen arazoei eta beharrei buruz hemen egingo ziren politiken arrakastaren edo porrotaren menpe egongo zela.

Hori esanda, esan nahi dut -ezen, egitan, zuk zuzenki esan duzu, ohikoa duzunez- guk ez genizula inoiz ere planteatu zure Gobernuko kide izan nahi genuenik. Planteatu genizuna da, eta gaur berriz planteatu dizut hemen, gustiz prest geundela gure Elkarte honen, gure herri honen eraikuntzan parte hartzeko. Eta gaur berriz errepikatu dizut, beharrezkoa den egituraketa-ereduan oinarrituta, zeinen arabera erabiliko dugun eredu hori zuen eta gure arteko eztabaidagai izan daitekeen bai egituraketa-ereduari bai gure Elkarteko barne-antolaketarako ereduari dagokionez.

Nik, beraz, ez dut zurekin eztabaidatuko -ez nuen lehen egin eta ez dut orain ere egingo- aukeratu dituzun kideei buruz. Zuri iruditu zaizkizun kideak aukeratu dituzu, eta oso ongi egina. Baina, begira, zure kideen ordezkariei entzun ondoren, zilegi bekit deabruaren abokatu gisa jokatzea eta esatea badirudiela sentsibilitate desberdinak daudela -maitasun osoz diotsut-, une honetan bertan azaldu direnak.

Sentsibilitate desberdinak daudela begitantzen zait eta zuek programa hau osatzeko prozesu zaila izango zenutela. Baina, begira, autogobernuaz Carlos Garaikoetxea jaunak duen ideia zabalagoa da gobernu-programan bertan jasotzen dena baino. Delako programa, bestalde, nik ez nuen jaso, hemen esango ez dizudan bide batetik lortu nuen, nolabait erronkabolezkoa ere izan den bidetik, jakin dezazun.

Bigarrenik, Carlos Garaikoetxea jaunak Ajuria Eneko Mahaiari buruz eskubide osoz planteatu duenak ez du zerikusirik Ramón Jaureguik aurkeztu duenarekin.

planteado don Ramón Jáuregui. A mí por lo menos así me lo parece. Y luego yo también plantearé mi postura sobre la Mesa de Ajuria Enea. No pensaba hacerlo, porque yo soy de los que creen, como ha dicho el representante del Partido Nacionalista Vasco, que de esto lo que hay que hacer es hablar poco y hacer cosas. Pero, como todos han hablado, no quiero quedarme yo en "off side".

Fíjese usted lo que ha dicho el representante del Partido Socialista en relación a la política lingüística. No tiene nada que ver con lo que ha dicho don Carlos Garaikoetxea. Me va usted a permitir que yo no elija ninguna de las dos posturas, simplemente haga de abogado del diablo.

Y, por último, yo estoy seguro de que para don Ramón Jáuregui éste no es el Parlamento de la nación vasca. Lo digo con todo respeto, don Ramón.

Es decir, ahí tiene usted ya una serie de muestras de sensibilidades distintas. Fíjese que yo no me atrevo a hablar ni de fortalezas ni de debilidades. Eso probablemente está en el otro mundo. Yo le digo simplemente cuál es la situación, y, como me preocupa este país, que es el suyo y es el mío, yo se lo digo a usted como Lehendakari, por si usted esto lo puede arreglar antes de que voten su investidura.

En segundo lugar, mire usted, el reparto del poder. Incluso yo le podría sacar hemeroteca, que ya sé que no es de muy buen gusto en la moderna técnica parlamentaria, y le podría demostrar a usted que aquí ha habido mucha gente más preocupada por el reparto de las carteras (eso es lo que nos decían a través de la prensa), porque de alguna manera las carteras las consideraban el instrumento al uso para influir en la sociedad. Eso es lo que se percibía. Hombre, si ustedes al final de este largo proceso lo han arreglado y han decidido ustedes que el poder es para hacer cosas, pues, bienvenido sea, porque supone un avance en lo que al menos a mí me parece que es el papel de las instituciones: no poder para influir, sino poder para hacer cosas.

Porque además la estabilidad del modelo... Hombre, la estabilidad del modelo viene dada en la medida en que todos tenemos muy claros los vasos comunicantes que existen en una Comunidad donde hay al menos tres Administraciones que actúan sobre el ciudadano, además de la Administración del Estado, que ya ve usted cuál es la postura de nuestro grupo, es una postura totalmente autonomista: que transfieran cuanto antes lo que deben, y naturalmente gestiones. Pero, fíjese usted, si tenemos la vocación o la tentación de intentar desde esta Comunidad Autónoma vasca, desde su Gobierno, desde el pacto de gobierno, controlar el poder en Diputaciones forales y Ayuntamientos, probablemente tendrán ustedes la sensación de control del poder desde aquí.

Pero fíjese usted lo que pueden decir los ciudadanos: no sé si va a tener interés ir a las urnas, creo que es el próximo 28 de mayo, si está todo organizado, si está todo acordado. Salvo que se produzca un

Niri behintzat horrela iruditzen zait. Eta ondoren Ajuria Eneko Mahaiari buruzko nire jarrera ere aurkeztuko dut. Ez nuen hori egiteko asmorik, izan ere nik sinesten baitut, Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak esan duenez, horri buruz egin behar dena baita hitz gutxiago eta gauza gehiago egin. Baina denek hitz egin dutenez, ez dut "off side" gelditu nahi.

Kontutan izan Alderdi Sozialistaren ordezkariak hizkuntz politikari buruz esan duena. Ez du zer ikusirik Carlos Garaikoetxea jaunak esandakoarekin. Zilegi bekit bietatik jarrera bat ere ez aukeratzea, soilik deabruaren abokatu gisa jokatzea.

Eta, azkenik, ziur nago Ramón Jauregui jaunarentzat hau ez dela euskal nazioaren Legebiltzarra. Errespetu osoz diot, don Ramón.

Hau da, horiek dituzu sentsibilitate desberdinen adibide batzuk. Kontuan izan ez naizela ausartzen ez indarrik ez ahultasunik aipatzera. Hori agian beste mundu batean dago. Nik egoera zein den soilik diotsut eta herri honek kezkatzen nauenez, zurea eta nerea den herri honek, lehendakari zaren aldetik diotsut, zure inbestidura bototara jarri baino aurretik, agian konponduko duzulakoan.

Bigarrenik, begira, boterearen banaketa. Hemeroteka ere aipa dezaket, nahiz eta legebiltzarteknika modernoan ondo ikusita ez dagoela jakin, eta froga diezazuket karteren banaketarekin gehiago kezkaturik egon den jende asko dagoela hemen (hori da egunkarietan esaten zigutena), zeren karterak gizartean eragina izateko ohiko baliabide gisa nolabait hartzen baitzituzten. Hori da ikusten zena. Baina, tira, prozesu luze horren ondoren gauzak konpondu badituzue eta baldin eta erabaki baduzue boterea gauzak egiteko dela, bada, ongietorria izan dadila, aurrerapena delako erakundeen papera nire ustez zein den zehazteari dagokionez behintzat: boterea baina ez eragina izateko, gauzak egiteko baizik.

Zeren, gainera, ereduaren egonkortasuna... Gizona, ereduaren egonkortasunaren zergatia, beno denok dakigu oso ondo zeintzuk diren komunikaziohodiak Elkarte batean non gutxienez hiru administrazio dauden herritarrari eragiten diotenak, horrez gain, Estatuko Administrazioa; beraz, ikus dezakezu gure taldearen jarrera, jarrera guztiz autonomista: zor dutena transferitu dezatela lehenbailehen, eta jakina gestioak. Baina, kontura zaitez, Euskal Autonomi Elkartetik, bere Gobernutik, gobernu-paktotik foru-diputazioetan eta udaletan boterea kontrolatzeko bokaziorik edo tentaziorik baldin badugu, agian hemendik izango duzue boterea kontrolatzeko sentsazioa.

Baina, kontura zaitez, zein izan daitekeen herritarren erreakzioa: ez dakigu mereziko duen botatzera joatea, uste dut datorren maiatzaren 28an, dena antolaturik baitago, dena hitzarmendurik baitago. Azken

cataclismo electoral después de las últimas elecciones -que usted sabe, y lo habíamos comentado incluso alguna vez, que las distancias no lo permiten-, realmente lo que estamos haciendo a los ciudadanos es un Gobierno no desde su voluntad, sino desde la voluntad de los que tienen el poder. Y a mí me parece que ése no es un modelo socialmente estable.

Tercero. Yo he presumido muchas veces, y lo sabe mi colega el doctor Azkuna y lo sabe también Jon Azua, de vivir en una Comunidad con un alto sentido de la solidaridad. Yo he presumido muchas veces de tener unos servicios sociales mucho más avanzados que en el resto del Estado. Yo he presumido muchas veces de que nuestras Diputaciones forales justamente habían dedicado una parte importante de los recursos públicos a luchar contra las desigualdades y los desequilibrios que hay en la sociedad. Es decir, que, lo mismo que el pacto es algo típico de la política vasca (pacto interno, pacto externo), también ha sido típico de la política vasca establecer una política social avanzada, incluso cuando en el resto de España estaban en mantillas. Y no hablo ni siquiera de nuestra época, sino de antes de que nosotros tuviéramos edad para participar en política. Es decir, que mi postura en ese sentido es muy clara.

Pero, de verdad, señor Ardanza, independientemente del programa de gobierno, que se puede incluso considerar en muchos aspectos como completo en cuanto a titulares de intenciones, su intervención esta mañana a mí me ha inquietado. Cuando usted ha establecido la relación entre competitividad y solidaridad yo me he estremecido, y mucho más si usted no acepta desde su Gobierno que volvamos a tener desde el comienzo de esta legislatura un debate sobre un plan económico -insisto, para que no me corrija mi buen amigo Juanjo Ibarretxe- no solamente estratégico, sino también indicativo.

Indicativo no sólo en cuanto a los ingresos nuevos que yo creo que la bonanza económica y nuestras relaciones con Europa nos van a permitir, sino también, y muy importante, en cuanto a cómo vamos a distribuir el gasto. ¿Vamos a mantener los mismos gastos -vamos a llamar, en el mejor sentido de la palabra- "clientelares"? ¿Vamos a seguir manteniendo gastos de una estructura mastodóntica que se nos antoja ineficaz, y en eso coincidimos todos? ¿Vamos a seguir manteniendo las inversiones? Que pueden tener también su aspecto de ejercicio de solidaridad, en cuanto que actúan sobre determinados territorios en declive, pero que eso no es suficiente.

Cuando aquí hablamos del Estado del bienestar, cuando aquí hablamos del mantenimiento de los programas sociales, nos estamos refiriendo a sanidad pública, a educación pública, a protección de las pensiones de los disminuidos, de los discapacitados. Nos estamos refiriendo incluso, con capacidad de fomento, con capacidad de fomento, a complementar fiscalmente desde nuestro concierto económico las cuestiones que afectan a los ciudadanos vascos promovidas desde el Estado español. Esto lo hemos hecho no hace mucho, modestamente, a través de la Diputación Foral de Álava.

hauteskundeak pasatu ondoren, hauteskunde-porrotik gertatzen ez bada -zuk baitakizu, eta inoiz mintzatu gara horretaz, tarteak ez duela hori uzten-, herritarrei benetan egiten ari garena dela ez beren gogotik abiatutako Gobernua eskaini, baizik eta boterea dutenen gogotik abiatutakoa. Eta niri begitantzen zait eredu hori ez dela sozialki egonkorra.

Hirugarrenik. Ni harro sentitu izan naiz, eta hori badaki nire lankide Azkuna doktoreak eta Jon Azuak ere badaki, solidaritate-zentzu handia duen Elkarte batean bizi naizelako. Askotan harro sentitu izan naiz Estatuko gainontzeko lurraldeetan baino askoz ere aurreatuagoak diren zerbitzu sozialak daudelako. Askotan harro sentitu izan naiz gizarteko desoreka eta desberdintasunen aurka egiteko gure foru-diputazioek errekurtso publikoen zati handi bat bideratua zutelako. Hau da, ituna euskal politikari dagokion zerbait den era berean (barne-ituna, kanpo-ituna), euskal politikari dagokio ere gizarte-politika aurreratu bat ezartzea, Espainiako gainontzeko lurraldean hasberri zeudenean. Eta ez naiz ari gure garaiaz ere, baizik eta politikan partehartzeko adinik ere ez genueneko garaiaz. Hau da, nire jarrera zentzu honetan oso argia da.

Baina, egia esanda, Ardanza jauna, asmoei dagokienez eta alderdi askotan osatutzat ere jo daitekeen gobernu-programa alde batera utzirik, zure goizeko eskuhartzeak kezkatuta utzi nau. Konpetitibitatearen eta solidaritatearen arteko erlazioa egin duzunean beldurtu egin nauzu, are gehiago ez baduzu onartzen Gobernutik legegintzaldi honen hasieran plan ekonomiko bati buruz eztabaida bat izatea -berriz diot, Juan Ibarretxe nire lagun onak ez nazan zuzendu- ez bakarrik estrategikoa, baizik baita indikatiboa ere.

Indikatiboa ez bakarrik diru-sarrera berriei buruz, zeitzuk nire ustez ekonomi gorakadak eta Europarekiko harremanek erraztuko baitizkigute, baizik eta, hau oso garrantzitsua da, gastua nola banatu behar dugun erabakitzeari dagokionez. Gastu -hitzaren zentzurik onenean esanda-"klientelar" berei eutsiko al diegu? Eraginkorra iruditzen ez zaigun, eta horretan denok bat gatoz, azpiegitura ikaragarri baten gastuei eusten jarraituko al dugu? Inbertsioei eusten jarraituko al dugu? Zeren beheraldian dauden zenbait lurraldekiko solidarioak izan daitezke, baina hala ere ez da nahikoa.

En relación con el Partido Popular, pues, también el señor Oreja, con ese tono cordial y esa voz agradable y pastosa con que se presenta en las tribunas, se dedica a lanzar puntapiés a diestro y siniestro. *(Risas.)*

Y se los lanzaba al Partido Nacionalista Vasco y al señor candidato a Lehendakari, pero a veces apuntaba al trasero de sus compañeros de Gobierno. Porque ha hablado de debilidades, ha hablado -supongo que se refería a nosotros- de ambiciones de poder, y, hombre, yo tengo que decirle, sin meterme a defensor del Partido Nacionalista Vasco y del PSOE, que saben defenderse solos, que no ha sido, creo yo honradamente, lo que más ha caracterizado a Eusko Alkartasuna en su todavía breve trayectoria política la ambición desmedida de poder, porque si alguien o algún partido ha renunciado en alguna ocasión que otra a seguir en el poder, como ustedes dicen un poco enfáticamente, ha sido Eusko Alkartasuna por coherencia con algunas de sus convicciones.

Y yo creo que es también un poco contradictoria

Autogobernuari dagokionez, horixe dagoela sentsibilitate desberdinik! Egundoko aurkikuntza egin duzu gaurko bilkuran, alajaina! Ez zait zuzena iruditzen, nolanahi ere, Alderdi Sozialistakoei esatea ez dutela Legebiltzar hau nazionaltzat jotzerik, kontuan izanik Euskadin dituzuen organo guztiei "nazional" deitzen diezuela zuek ere. Gauzak bere onetik ateratzen ari zaretela esango nuke.

Dena dela, paradoxiko samarra iruditzen zait zuek, gaur bertan zure mintzaldiaren bukaera partean akordioaren aldeko, akordioa lortzen ahalegintzearen aldeko azaldu zaretenok, ez onartzea sentsibilitate desberdin hauetatik, nik ideologia deitzen diedan hauetatik abiaturik, akordioa lortzeko benetako ahalegina egin dezakegunik.

Erantzun diet lehen ere, nire aurreko mintzaldian, Ezker Batuako jaun-andreei, oraindik ere Legebiltzar honetan esan dituzten gauza gutxi horietakoren batzuei buruz, eta orain ere ez naiz asko luzatuko, zeren, besteak beste, Madrazo jauna, inork baino egur gehiago eman eta gero, kolazko bata jantzi eta haserretu egiten baita besteek, berak baino samurrago, izan ere, erantzuten diotenean.

Eskertuko nizuke, hori bai, gauzak ez nahastea. Bakeratze-politika bat egiteko akordioetarako eta holakoetarako gehiengo eta gutxiengoak aipatu ditugunean, era berean esan dugu ahalik eta kontsentsu zabalena bilatu beharra zegoela. Beraz, ez hankamotz utzi nire esaldi edo aipamenak, eta dena esan.

Gainerakoan, bada, ez dakit zer zerikusi duten aurrerakoi izateak eta Legebiltzar honetako Araudiak oraindik ere Legebiltzarreko Mahaia halakok eta halakok osatzen dutela esateak.

Alderdi Popularrari dagokionez, bada, Mayor Oreja jauna ere, tribunetan erabiltzen duen adeitasun-doinu eta ahots atsegin eta gozo horrekin, ostikoka aritzen da bati eta besteri.*(Barreak.)*

Euzko Alderdi Jeltzaleari eta lehendakarigai jaunari aritu zaie ostikoka, nahiz eta haren jaurlaritzakideei ere ostiko bat edo beste eman dien. Zeren ahuleziak egon direla esan baitu, baita botere-anbizioa ere -gutaz ariko zen, nonbait-, eta, jakina, esan behar dizut, ez bainaiz Euzko Alderdi Jeltzalea eta PSOE defendatzen hasiko, bai baitakite bere burua defendatzen, ez dela botere-anbizio neurrigabe hori izan, benetan diotsut, Eusko Alkartasunaren ezaugarririk nabarmenena bere bizitza politiko oraindik laburrean, zeren inoiz edo behin boterean jarraitzeari uko egin dion alderdirik izan bada, zuek nolabait ere azpimarkatuz esaten duenez, Eusko Alkartasuna izan baita bere usteei tinko eutsi izanagatik.

Kontraesankor samarra iruditzen zait, orobat,

la alusión que han estado haciendo a tanta debilidad en este Gobierno, como se le ha recordado acertadamente por alguno de nuestros colegas, porque ustedes estaban incentivando o tratando de estimular planteamientos más débiles, efectivamente, que los que hoy han cristalizado en esta fórmula de gobierno. Ustedes estaban al acecho, y estaban al acecho, pues, esperando otras coyunturas, mirando, como se ha recordado aquí, al escenario que se dibuje dentro de unos meses en Madrid, etcétera, etcétera, etcétera. Por consiguiente, no hagan invocaciones ahora a la fortaleza y al respaldo sólido de un Gobierno, cuando ustedes eran los principales especuladores con la mayor debilidad posible en su formación, naturalmente en beneficio propio y con designios un poco alejados de este escenario vasco.

En cualquier caso, con toda cordialidad yo le diré que nosotros mirábamos con mucha preocupación esos apoyos casi incondicionales que ustedes desde la trastienda ofrecían. Porque a nosotros nos da mucho miedo esa derecha, dicho sea con todos los respetos, hasta el punto de que yo he llegado a decir en alguna ocasión, y tengo muchos testigos, que a lo mejor hasta nos hacen acordarnos del PSOE cuando lleguen ustedes al poder en Madrid.

Yo creo que, señor Mayor Oreja, hablando seriamente, cuando usted emplea algunos términos muy simplistas en torno a cuáles son los caminos para la paz y la reconciliación en la sociedad vasca, diciendo que eso consiste en el fin de la violencia, pues está haciendo una afirmación -perdóneme la pedantería de la expresión- un tanto tautológica, ¿no? Porque claro que eso es el fin del problema, de la confrontación que tenemos en este país, pero no podemos resolver los conflictos con esa visión simplista, topicuda y hecha de afirmaciones rotundas que tienen buena venta en los escenarios políticos y entre los observadores. Sabe usted que es algo más complejo que todo eso, y desde la mejor voluntad algunos tratamos de no movernos en una simple manifestación tautológica, sino en la búsqueda de la salida de ese círculo vicioso o de esa pescadilla que se muerde la cola en la que desgraciadamente nos encontramos, por emplear una metáfora vulgar.

Por lo demás, en los acuerdos municipales, los que hemos suscrito este acuerdo de gobierno puedo asegurarle que no hemos hipotecado en absoluto nuestra voluntad de ir a competir en buena lid a esas elecciones municipales y forales. Yo puedo asegurarle que al menos Eusko Alkartasuna va a ir a ganar allá donde pueda. Lo que sí ha procurado, claro está, es que no le suceda lo que le sucedió hace cuatro años, que incluso allí donde había ganado las elecciones, por poner un ejemplo en San Sebastián, gracias a la actitud poco amistosa de algunos representantes políticos, como ustedes, se quedó con su mejor derecho en la oposición, teniendo la aspiración lógica a gobernar resultada, insisto, de un mejor resultado. Yo me refiero a ustedes, al tanto de responsabilidad que en esa situación tuvieron, señor Villar, ya que el señor Mayor Oreja se ha permitido evocar este tipo de cuestiones. Por lo demás, lo que entre nosotros existiera de pleito al respecto lo hemos resuelto de buena manera y es un problema nuestro.

Jaurlaritza hau ahula dela behin eta berriro esaten aritzea, eta halaxe adierazi dizu gure kideetakoren batek ere, zeren gaur gobernu-formula honen bidez gauzatu diren planteamenduak baino are planteamendu ahulagoak bultzatzen saiatuak baitzarete zuek. Zelatan baitzeundeten zuek, bestelako egoera baten zain, hilabete batzuk barru Madrilen gelditukoden eszenarioari begira, eta abar. Beraz, ez orain hasi deiadarka esanez-eta Jaurlaritzak indarra eta babes sendoa behar dituela, zuek izan baitzarete espekulatzailerik handienak hura eratzeko balizko ahuldadeari dagokionez, zuen komenientziara, noski, eta euskal eremutik urrun samar gelditzen diren xedeei jarraiki.

Dena dela, adeitasun osoz esango dizut kezka handiz jasotzen genituela zuen babes ia baldintzagabeak, denda-atzetik egiten zenizkigutenak. Beldur handia ematen baitigu eskuin horrek, errespetu guziz diot, hainbestekoa ezen esan izan baitut inoiz, eta badut hainbat lekuko, PSOEz oroitzera ere iritsiko garela beharbada zuek Madrilen agintea eskuratuz gero.

Nire ustez, Mayor Oreja jauna, eta serioski mintzo naiz, bakerako bideez eta euskal gizartea adiskidetzeko bideez ari zarela, horretarako indarkeriak amaitu behar duela diozunean, nire ustez -barka esamoldearen pedantekeria- halako baieztapen tautologikoa da hori, ezta? Zeren, horixe bailitzateke, noski, herri honetako arazoaren, liskarraren amaiera, baina liskarrak ez ditugu, ordea, halako ikuspegi sinplista eta topikoz betearekin konponduko, eszenario politikoetan eta aztertzaileen artean oso harrera ona duten baiezpen borobilez osaturiko ikuspegiarekin, alegia. Badakizu hori baino korapilatsuagoa dela arazoa, eta batzuok, denik eta borondate onenarekin, halako adierazpen tautologiko soilak gainditu eta saiatzen garela zirkulu gaizto horretatik ateratzen edo, metafora arrunt batekin esanda, bere isatsari ausikika ari zaion peskadilaren egoera horretatik ateratzen.

Gainerakoan, udal-akordioei dagokienez, gobernu-akordioa sinatu dugunok ez dugu, izan ziur, inolaz ere hipotekatu udal eta foru hauteskunde hauetan behar bezala lehiatzeko gure nahia. Ziurtatzen dizut Eusko Alkartasuna behintzat irabazten ahaleginduko dela ahal duen lekuetan. Baina saiatu gara, noski, duela lau urte gertatutakoa berriro gerta ez dakigun, zeren orduan, hauteskundeak irabazi genituen lekuetan ere, hala nola Donostian, zenbait ordezkari politikoren, hala nola zuen adiskidetasun gutxiko jokabideari esker, oposizioan geratu baikinen, nahiz eta, emaitzaren arabera arrazoizko zenez, guk gobernatu nahi izan. Zuei buruz ari naiz, gertaera hartan izan zenuten erantzukizunaz, Villar jauna, zeren Mayor Oreja hasi baita horrelako kontuak gogorarazten. Gainerakoan, gure arteko balizko auzia modu onean ebatzi dugu eta gure arazoa da hori.

En lo que se refiere a los señores de Herri Batasuna, claro, yo comprendo que sólo cuando un discurso prefabricado impide referirse, analizar mínimamente las cosas que aquí se plantean se dicen cosas como las que aquí se han dicho de "puro continuismo", etcétera, etcétera, etcétera. Yo al menos he querido, y creo que los representantes de los partidos que concurren en este acuerdo de gobierno también lo han hecho, he tratado de explicar cosas que realmente marcan una novedad de aquí en adelante.

Que ustedes digan que aquí no se ha referido nadie al problema del empleo, de la competitividad, etcétera, etcétera, pues, da la impresión de que responde a esa imagen de "¿Qué hora es? -Manzanas traigo". Porque, que yo sepa, se ha hablado largo y tendido aquí de todas esas cuestiones.

Y ya le ha contestado el señor Egibar a sus alusiones en relación con el Estatuto de Autonomía, el marco de autogobierno, etcétera, que tenemos ahora. Yo no voy a reincidir en lo que ya hemos dicho tantas veces. A nosotros también nos gustaría ir a un marco de autogobierno más ambicioso. Lo he dicho hoy mismo aquí. Pero nosotros, por encima de nuestra condición de abertzales, ponemos siempre nuestra condición de demócratas que aceptan lo que es la síntesis de la voluntad popular en este pueblo, sin perjuicio de que intentemos impulsar desde la cuota de representatividad que tenemos -y ahí está el quid de la cuestión- la superación de ese marco que hoy es síntesis de las diversas expresiones de voluntad popular.

Pero, ya que se han referido a cuestiones tan lacerantes como el problema de Navarra y la unidad territorial de Euskadi sur, permítanme decirles que nada, nada resulta tan nefasto para concitar voluntades hacia nuestra unidad como esa imagen de vandalismo, de zafiedad, de marginalidad, por no decir de otras cosas, que se proyecta constantemente hacia todo lo que signifique nacionalismo vasco o puramente vasquismo a través de las actuaciones de sus organizaciones propias y afines.

Por lo demás, ha habido expresiones insultantes a las que especialmente, como no está quien las ha formulado, no me voy a referir con mucho detenimiento. Pero, con el mismo grado o seguramente menos grado de severidad que ha empleado su señora representante al decir que nosotros tragamos lo que nos echen con tal de tener carteras, además del "mentís" que antes he hecho refiriéndome a otra alusión no tan ácida pero que aludía a una cuestión parecida, les diré que nosotros, que hemos sido capaces de rechazar carteras y otras cosas en más de una ocasión, desde luego preferiríamos, hablando a efectos puramente dialécticos, de tener que tragar algo, tragar esta capacidad de transacción que hemos podido tener en este programa de gobierno, pero desde luego nunca tragar lo que ustedes tragan día a día, desde el tiro en la cabeza hasta las carnicerías indiscriminadas contra las que ustedes no se revuelven habitualmente. Ese "trágala" desde luego no lo querría jamás, ni para mí ni para mi partido.

Herri Batasunako jaun-andreei dagokienez, nik ulertzen dut, noski, halako diskurtso prefabrikatuek ez dutela uzten hemen esandako gauzak gutxieneko batean bederen aztertzen eta halaxe esaten dituzuela "kontinuismo hutsa" eta horrelakoak. Ni behintzat -eta beste gobernukideek ere berdin egin dutela esango nuke- hemendik aurrera benetako berrikuntza izango diren gauza batzuk azaltzen saiatu naiz.

Esaten duzuenean hemen inork ez duela hitz egin enpleguaz, konpetitibitateaz, eta abar, bada, harako hartan gabiltzala ematen du, alegia, "Zer ordu da? - Sagarrak dira". Zeren, nik dakidala, luze hitz egin baitugu hemen arazo horiez guziez.

Eta erantzun dizu Egibar jaunak Autonomi Estatutuaz egin dituzun aipamenak zirela eta, gaur egun daukagun burujabetasun-esparruaz, eta abar. Ez naiz errepikatzen hasiko hainbestetan esanda daukaguna. Guk ere nahiago genuke burujabetasun-esparru zabalago batera joan. Halaxe esan dut hemen gaur bertan. Baina guk gure abertzaletasunaren aurretik jartzen dugu beti gure demokrazizaletasuna, herri honen nahiaren sintesia onartzen dugun ber, nahiz eta daukagun ordezkotza-kopurua baliatuz -eta hauxe da gakoa- egun herriaren nahi batzuen eta besteen sintesiak osatzen duen esparru horei gainditzen saiatu.

Baina arazo mingarri batzuk aipatu dituzunez, hala nola Nafarroa eta Hego Euskadiko lurralde-batasuna, zilegi bekit esatea ez dagoela jendea gureganatzeko oztopo okerragorik zeuen eta inguruko erakundeen ekintzak baino, halako basatikeria, zakarkeria eta bazterkeria kutsua -handiagorik ez esatearren- eransten baitiote etengabe eusko abertzaletasunari edota, besterik gabe, euskaltzaletasunari.

Gainerakoan, halako irain batzuk ere entzun ditugu baina, halakoak egin dituena bertan ez denez, ez diet denbora gehiegi eskainiko. Baina, zuen andre ordezkariak karteren truke edozein gauza irensten dugula esateko erabili duen zorroztasun berberaz, edo ez hain zorrotz segur aski, baina esango dizuet ezen, lehen ere antzekoren bati buruz egin dudan gezurtapenaz gain, guk, behin baino gehiagotan errefusatu baititugu karterak bai eta bestelakoak ere, nahiago genukeela, noski, maila dialektiko huts batean esanda, ezer irentsi behar izatekotan, gobernu-programa hau egiterakoan agian erabili dugun transakzio-ahalmen hori irenstea ezen ez, inolaz ere ez, zuek egunero-egunero irentsi behar duzuena, buruan emandako tirotik hasi eta neurririk gabeko sarraskietaraino, halakoen aurrean ez baituzue zuen gaitzespenik azaltzen. Irentsi behar hori ez nuke inolaz ere nahi, ez niretzat ez eta nire alderdiarentzat ere.

Termino, señor Presidente, porque veo que se han encendido las dos luces. En definitiva, el señor Jáuregui ha hecho una alusión que a mí me permite sacar una conclusión final. Tenemos diferentes puntos de vista sobre algunas materias, y usted ha aludido a cosas como la normalización lingüística o la búsqueda de la paz, etcétera, etcétera, la propia concepción nacional... Evidentemente, son cosas que no nos hacen coincidir exactamente. Pero desde las expresiones legítimas de esas diferencias que desde nuestros respectivos partidos podamos estar manteniendo, y sin duda las vamos a mantener, en lo que creo que nos hemos comprometido todos, y yo afirmo aquí solemnemente que se compromete Eusko Alkartasuna, es en que esa expresión legítima de nuestras diferencias no sólo no obstaculice el funcionamiento de este Gobierno, sino que, por el contrario, sobreponiéndonos a ellas, le ayudemos a funcionar, y a funcionar como este país necesita.

Nada más. Muchas gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Garaikoetxea jauna.

A continuación tiene la palabra, en representación del Grupo Popular Vasco, el señor Mayor Oreja.

El Sr. **MAYOR OREJA**: Señor Presidente. He de reconocer que salgo con una enorme preocupación, porque no sé si el señor Egibar y el señor Jáuregui cuando termine me van a reñir si miro bien o miro mal, si le miro al señor Ardanza, si le tengo que mirar a usted cuando le replico a usted o si tengo que mirar hacia la derecha, o si tengo que mirar a la televisión. Yo espero que sean benevolentes y al final piensen que estoy mirando adecuadamente, a la altura de las circunstancias del debate.

Yo desde luego creo que este debate, sin duda ninguna, es la mejor demostración de que se abre una nueva etapa en el País Vasco. Yo creo que es un debate que tiene que perfeccionarse probablemente desde el Gobierno y desde la oposición, pero abre una nueva etapa y una nueva situación, que ustedes lo han empezado a asumir con mal talante. Es decir, he de decir que pocas veces he tenido la sensación de que el Lehendakari ha demostrado tan mal talante como en la tarde de hoy. Pocas veces, Ardanza.

Y en ese sentido insisto en que no es tan malo, no es tan malo no acertar o introducirse en... instalarse en la prolongación de la crisis y no entender que puede haber unas dinámicas de cambio en que uno, por unos u otros motivos, pues, no participa en ellas. Y no sucede nada porque les diga: "Oiga, ustedes no quieren cambiar suficientemente, ustedes no están en este esfuerzo de dinámica de cambios". Y por eso no hace falta ponerse especialmente nervioso ni demostrar un mal talante en esta dirección.

Y empezaré contestando, por ello, al señor Ardanza. Dicho en tono también cordial, como decía el señor Garaikoetxea, cordial y con esa voz pastosa que me

Amaitzera noa, lehendakari jauna, konturatzen bainaiz bi argiak piztuta dauzkadala. Azken batean, azken ondorio bat ateratzeko bide ematen dit Jáuregui jaunak egindako aipamen batek. Ikuspegi desberdinak dauzkagu zenbait gairi buruz, eta hainbat gai aipatu dituzu zuk, hala nola hizkuntz normalizazioa, bakea bilatzea, kontzepzio nazionala bera, eta abar, eta abar. Bistan da, ez gatoz guztiz bat gai horiez denaz bezainbatean. Baina alderdi bakoitzak bereari eutsiko dion arren, gauza baterako konpromisoa hartu dugu, alabaina, denek ere, eta halaxe aldarrikatzen dut nik hemen Eusko Alkartasunari dagokionez. Konpromiso horren arabera, gure arteko desberdintasun horiek Gobernu honen funtzionamendurako oztopo ez izateaz gain, gainditu egin beharko ditugu eta lagundu egin beharko diogu funtzioatzen Gobernu honi, eta herri honek behar duen moduan funtzionatzen, gainera.

Besterik ez. Mila esker.

LEHENDAKARI jaunak: Muchas gracias, señor Garaikoetxea.

Ondoren, Mayor Oreja jaunak du hitza Euskal Talde Popularraren izenean.

MAYOR OREJA jaunak: Lehendakari jauna. Oso kezkaturik natorrela esan behar dut, ez baitakit Egibar jaunak eta Jáuregui jaunak bukatzen dudanean haserre egingo didaten, ea ondo begiratu edo txarto begiratu dudan, Ardanza jaunari begiratu diodan, zuri begiratu behar dizudan zuri erantzuten dizudanean edo eskubira begiratu behar dudan, edo telebistara begiratu behar dudan. Bihotz zabalak izango zaretela espero dut eta azkenean nire jarrera egokia dela pentsatuko duzuela, eztabaidak eskatzen duen maila emanez.

Nire ustez, eta ez dut inolako zalantzarik egiten, eztabaida honek Euskal Herrian etapa berri bat zabaltzen ari deneko frogarik onena eskaintzen digu. Nire ustez, agian Jaurlaritzak eta aurkaritzak hobetu behar duten eztabaida da, baina etapa berri bati eta egoera berri bati hasiera ematen diona da, zuek gogo txarrez asumitzen hasi zaretena bestalde. Hau da, esan behar dut lehendakariak gaur arratsaldean azaldutako joera horren gaiztoa gutxitan sentitu izan dudala. Gutxitan, Ardanza.

Eta zentzu horretan, berriz diot ez dela horren txarra, ez dela horren txarra ez asmatzea edo ez sartzea... krisiaren luzatzearen alde jartzea eta ez ulertzea halako aldaketarako dinamika batzuk daudela eta, direnak direlako arrazoeingatik, bada, dinamika horretan parterik ez hartzea. Eta ez da ezer gertatzen nik badiot: "Aizu, zuek ez duzue behar beste aldatu nahi, zuek ez zaudete aldaketarako dinamika horretan ahaleginik egiteko prest". Eta horregatik ez dago hain urduri jarri beharrik ezta jarrera txarra azaldu beharrik.

Eta lehenik, beraz, Ardanza jaunari erantzunez hasiko naiz. Adeitasunez esanda, Garaikoetxea jaunak lehenago esan duenez, adeitasunez eta zuk diozun nire

atribuía. En ocasiones he tenido la sensación de que el Lehendakari asumía algunas posiciones -perdone que se lo diga, con todo afecto- de vieja chismosa de pueblo, ¡eh! Yo no he dicho jamás, ni he desvelado jamás una conversación con nadie. Yo he sacado unas conclusiones, y la conclusión que yo he sacado es que yo interpreté que se estaban confirmando las primeras impresiones que teníamos después de la lectura del resultado electoral. Pero luego ha empezado una descripción de algo que no me parece serio, que es empezar a decir "ha dicho esto, ha dicho esto otro". No me parece serio, de verdad, señor Ardanza. Y yo espero que esos métodos, esas fórmulas, desde luego no las volvamos a reproducir. Ni yo, ni usted, ni nadie. Porque, desde luego, eso no da ningún nivel a una institución parlamentaria de estas características.

Yo le vuelvo a insistir, y ya no entro más en dar unas contrarréplicas de cómo fue aquella conversación, que, por cierto, después de escucharle fue caótica ciertamente y complicada, porque yo no entendí tampoco... no he entendido mi posición después de haberle escuchado a usted hoy lo que yo había dicho en aquella conversación. Lo único en que yo insisto es en que no ofrecieron nunca la posibilidad de formar parte del Gobierno, estrictamente, jamás. Y eso es verdad, jamás hubo un ofrecimiento de esta naturaleza y jamás hubo ningún rechazo a ninguna negociación. Otra cosa es que a medida que fuimos teniendo esa conversación los dos fuimos entendiendo mejor la posición de cada uno. Pero punto final.

Y no voy a seguir, en mi opinión, al menos por mi parte, introduciéndome en unas conversaciones que, repito, se produjeron en un momento de determinada forma. No me obligue a decirle que la próxima vez tendremos que ir con testigos para que de alguna manera hagamos más seria esa conversación. Yo espero que eso no tenga que decírselo en ningún momento a usted, señor Lehendakari.

Respecto al señor Jáuregui yo quiero insistir en que, mire, para justificar su presencia en el Gobierno usted ha partido la intervención en dos piezas. La primera pieza ha sido la visión apocalíptica del universo: "Las siete plagas se están aproximando, de modo y manera que, en consecuencia, yo tengo que entrar en el Gobierno". Y la segunda parte de su intervención ha sido lo mezquino que había sido el Partido Popular, como si hubiera sido una mala conciencia, como si en el fondo para justificar su presencia usted buscara la contraposición con la actitud del Partido Popular. Ésas son las dos piezas.

Y, claro, le puede a usted molestar, señor Jáuregui, pero la realidad, y ya no son palabras mías... es decir, ustedes han negociado descalzos y sin tacones, como el Lehendakari Ardanza se lo recordaba en la mitad de la negociación. Y en mi opinión, en mi opinión, ustedes ahora -se lo digo con franqueza- juegan un papel subordinado al nacionalismo vasco. Es más, la única fórmula para estar ustedes presentes en las instituciones vascas tras las elecciones locales y municipales es sabiendo que el nacionalismo vasco tiene que tener un

ahots pastoso honekin. Batzuetan pentsatu izan dut lehendakaria -barkatu hori esatea, bihotz-bihotzez diotherriko atso txatxalaren jarrerak asumitzen ari zela, e! Nik ez dut sekula esan, ez dut sekula jakitera eman inorekin izandako elkarrizketarik. Nik ondorio hau atera dut, eta nik ateratako ondorioa da nik ulertu nuela baieztatzen ari zirela hauteskundeen emaitzez egindako interpretazioarekiko gure lehenengo inpresioak. Baina ondoren gustatu ez zaigun zerbait azaltzen hasi da, esan baitu "hau esan du, beste hori esan du". Ez zait serioa iruditzen, Ardanza jauna. Eta espero dut metodo horiek, formula horiek, ez ditugula berriz erabiliko. Ez nik, ez zuk, ez inork. Zeren, jakina, mota honetako legebiltzarerakunde bati ez zaio mesederik egiten.

Berriz diotsut, eta elkarrizketa haren gorabeherei buruz ez dut kontrareplikarik egingo, egia esanda, zuri entzun ondoren, nahasia eta zaila izan zela, zeren nik ere ez nuen ulertu... ez dut nire jarrera ulertu elkarrizketa hartan nik esan nuena zuri gaur entzun ondoren. Nik berriz diodan gauza bakarra da zuek ez zenutela inoiz Gobernua osatzeko aukerarik eskaini, zehazki inoiz ez. Eta hori egia da, inoiz ez zen horrelako eskaintzarik eman eta inoiz ez zen inolako negoziaziorik arbuiatu. Bestelakoa da, elkarrizketa aurrera zihoan heinean, biok hobeto ulertzen joan ginela bakoitzaren jarrera. Baina hori da guztia.

Eta ez dut jarraituko aipamenik egiten, nire ustez, nire aldetik behintzat, elkarrizketa batzuei buruz, zeinek, berriz diot, halako une eta modu jakin batean eman ziren. Ez nazazula behartu esatera hurrengo aldian lekukoekin joan beharko dugula elkarrizketa horri nolabait seriotasun gehiago eman ahal izateko. Zuri horrelakorik sekula esan beharrik ez dudala izango espero dut, lehendakari jauna.

Jauregui jaunari dagokionez, berriz esan nahi dudana da Gobernuan zure presentzia zuritzeko zure eskuhartzea bi zatitan egin duzula. Lehenengo zatian, unibertsoarekiko ikuspuntu apokaliptikoa azaldu duzu: "Zazpi izurriteak urreratzen ari zaizkigu, horren ondorioz, beraz, Gobernuan sartu behar dut". Eta zure eskuhartzearen bigarren zatiaren gaia Alderdi Popularraren zekenkeria izan da, halako kontzientzi txarra baitzeneukan, funtsean zure presentzia zuritzeko Alderdi Popularraren jarrera beste aldean jarri beharra baitzeneukan. Horiek dira bi zatiak.

Eta, jakina, agian ez zaizu gustatuko, Jauregui jauna, baina errealitatea da, eta ez dira nire hitzak... hau da, zuek oinutsik eta takoirik gabe negoziatu duzue, Ardanza jaunak negoziazioaren erdian gogorarazi zizutenez. Eta nire ustez, nire ustez, zuen rola -benetan diotsut- euskal abertzaletasunaren menpean egotea da. Are gehiago, toki eta udal hauteskundeen ondoren, euskal erakundeetan zuen presentzia lortzeko bide bakarra da jakinez euskal abertzaletasunak arrakasta izango duela, horrela zuek erakundeetan haien

éxito para que ustedes puedan complementar su presencia en las instituciones. Y no hay mayor subordinación en esa dirección que probablemente esta afirmación que yo acabo de hacerle.

Me dice usted: "Mimemos la democracia". Sí, sí hay que mimar la democracia todos los días, pero, en vez de hablar de perspectivas históricas, como usted hablaba, ¡si mimar la democracia es hacer las cosas de una manera mucho más sencilla! Cuando un partido tiene una "debacle" electoral, si no hace falta que empiece a negociar con otros para formar Gobierno: automáticamente se va a la oposición. Si muchas veces nos quejamos de por qué la gente se aleja de los partidos: porque hacemos cosas complicadas. Y tendrán luego a lo mejor un buen resultado, pero cuando uno tiene una "debacle" electoral automáticamente se va a la oposición. ¡Si no hace falta que usted apele al sentido de la responsabilidad del Gobierno!

Hay que actuar con sentido común para que la democracia de verdad se instale en la sociedad. Y es lo que ustedes no han sido capaces de hacer. Ustedes sabrán las razones por las que no lo han hecho, que es simplemente responder con sentido común a un dictado de las urnas en las elecciones autonómicas vascas.

Yo jamás he tenido la sensación de que nosotros hemos decidido una cuestión sólo pensando en tanta dinámica vasca como la posición que hemos adoptado en estas elecciones. Si nosotros hubiésemos tenido una gran preocupación de ámbito nacional, nuestra posición hubiese sido absolutamente todos los días estar llamando, todos los días, a todas las personas amigas del Partido Nacionalista Vasco, hubiésemos llamado a los Consejeros de Gobierno, para ofrecernos todos los días para hacer una determinada fórmula, para bloquear e imposibilitar su acuerdo, del Partido Socialista, con el Partido Nacionalista Vasco. No ha sido el caso.

Nosotros sabemos que hemos crecido, pero no lo suficiente para condicionar o para modificar algunas políticas en el Partido Nacionalista Vasco. Pues esperamos en la oposición. ¡Si no tenemos la obsesión de entrar en el Gobierno a cualquier precio, desde la tranquilidad y sin perder en ningún momento el talante del discurso que seguirá caracterizando a nuestro partido! Pero ¡qué cosas tiene que hacer, señor Jáuregui, y tiene que decir para justificar en estos momentos su entrada en el Gobierno!

Respecto del pacto de Ajuria Enea, hombre, no se quejen de que sea objeto de debate. ¡Si ustedes lo han planteado en un documento que es el documento prototipo para un debate parlamentario! Ustedes dicen: "No tenemos que debatir sobre el pacto de Ajuria Enea. En consecuencia, en el documento de gobierno estricto, oiga, lo llevamos". El error es suyo. Si ustedes no querían debatir aquí sobre Ajuria Enea, y me parece que eso hubiese sido lo lógico, lo que no tenían que haber hecho es introducirlo en el acuerdo de gobierno. Pero en el momento en que lo introducen en el acuerdo de gobierno evidentemente se convierte en un objeto de debate parlamentario, de dinámica de Gobierno y

presentziaren osagarri izateko. Eta zentzu horretan agian ez dago menpekotasun handiagorik nik oraintxe egin dudan baieztapena baino.

Zuk esan didazu: "Mimatu dezagun demokrazia". Bai, demokrazia egunero mimatu behar da, baina, ikuspuntu historikoez mintzatu beharrean, zu mintzatu zarenez, demokrazia mimatzea gauzak askoz ere errazago egitea baita! Alderdi batek hauteskundeetan "debacle" bat duenean, ez baitago beste batzuekin negoziatu beharrik Gobernua osatzeko: automatikoki oposiziora joan behar du. Sarritan kexu izan ohi gara ea jendea alderdietatik zergatik aldentzen den galdezka: bada gauza konplikatuak egiten ditugulako. Eta baliteke horrek gero emaitza onak ekartzea, baina batek hauteskundeetan- "debacle"a duenean, automatikoki oposiziora joan behar du. Ez baituzu Gobernuarekiko erantzukizuna aipatu beharrik!

Buruarekin jokatu behar da demokraziak gizartean benetan kemena izateko. Eta zuek ez zarete hori egiteko gauza izan. Zuek jakingo duzue zergatik ez duzuen egin, hau da, euskal hauteskunde autonomikoetan izandako emaitzei soilik buruarekin jokatuz erantzuna zergatik ez diezuen eman.

Hainbeste euskal dinamikan bakarrik pentsatuz erabaki duguneko sentsaziorik ez dut inoiz izan, hauteskunde hauetan hartu dugun jarreran bezala alegia. Nazio mailan oso kezkaturik izan bagina, Euzko Alderdi Jeltzaleko adiskideei egunero, egunero, deika egongo ginen, Gobernuko sailburuei deituko genien, halako formula bat emateko egunero eskaintza eginez, Alderdi Sozialista eta Euzko Alderdi Jeltzalearen arteko akordioa blokeatu eta hori ezinezkoa bihurtzeko. Ez da horrelakorik gertatu.

Badakigu hazi egin garela, baina ez Euzko Alderdi Jeltzalearen zenbait politika baldintzatu edo aldatzeko beste. Bada aurkaritzan egongo gara zain. Gobernuan sartzeko inolako obsesiorik ez badugu, lasai jarraituko baitugu eta gure alderdiaren ezaugarri izaten jarraituko duen hizkera ez baitugu inoiz galduko! Baina, a zer nolako gauzak egin behar dituzun, Jáuregui jauna, eta esan behar dituzun, une hauetan Gobernuan sartzea justifikatzeko!

Ajuria Eneko Hitzarmenari dagokionez, gizona, ez zaitezte kexatu eztabaidatzen bada. Zuok jarri baituzue legebiltzar-eztabaidarako eredu den dokumentu batean! Zuek honako hau esan duzue: "Ez dugu Ajuria Eneko hitzarmenari buruz eztabaidatu behar. Beraz, gobernu-dokumentu den horretan, hara, eramango dugu". Errua zuena da. Ajuria Eneari buruz hemen eztabaidatzea nahi ez bazenuten, eta logikoena hori izango zela uste dut, egin behar ez zenutena da gobernu-akordian ezarri. Baina akordioan sartzen duzuen unean, jakina, legebiltzar-eztabaidagai bilakatzen da, Gobernu eta aurkaritzaren dinamikagai. Baina horri buruz gaur mintzatu izana zuen erantzukizuna da, nik ere uste baitut

oposición. Pero son ustedes los responsables de que hoy hayamos hablado de esta cuestión, que yo también creo que no beneficia absolutamente a nadie.

Es verdad, señor Jáuregui, que nuestra intervención se ha centrado en lo que yo creo que es el único punto de referencia sólido en el País Vasco, que no me gustará del todo, pero es el único punto de referencia que queda dentro de ese bloque, que es el Partido Nacionalista Vasco. Y yo creo que en los próximos años el punto de referencia -y yo deseo que no sea el único en la política vasca- va a ser el Partido Nacionalista Vasco. Y es evidente que en ese sentido ustedes, por los motivos A y B, se han cansado probablemente de jugar un papel de alternativa y han dejado de ser en estos momentos un partido con capacidad de jugar un papel de relevo y de alternancia.

Y termino, señoras y señores parlamentarios. Yo creo que el término clave que hemos estado debatiendo en este debate es el término "estabilidad". Yo no sé a qué estabilidad se refieren ustedes. No sé si es la prolongación de la estabilidad que durante estos meses y durante estos días está repitiendo también Felipe González. Yo no sé si es esa estabilidad que esta misma mañana, por lo que se ve, venía a señalar que la Bolsa, los mercados bursátiles, exigían la permanencia y la estabilidad del señor González. Yo no sé si se está prolongando un concepto en mi opinión tan distorsionado de lo que es la estabilidad.

La estabilidad cuando se produce un incendio o cuando se produce un naufragio no es permanecer quieto y absolutamente alrededor de un árbol, o en un naufragio la estabilidad no es precisamente sostenerse sobre un buque que se está hundiendo.

La estabilidad, insistimos nosotros, no se mide en función de una aritmética electoral, como se está demostrando en el Congreso de los Diputados en estos días. La estabilidad está en función de la fortaleza de un proyecto político común y compartido. Y nosotros decimos que seguimos sin ver un proyecto común y compartido, y por un motivo: porque sólo habrá un nuevo proyecto político en este país cuando se haga un balance de todo lo que ha significado el periodo de gobierno desde que tenemos la autonomía.

Y hasta que no haya un balance serio y riguroso y objetivo no habrá un proyecto nuevo, o estará mal encauzado. Porque el siguiente proyecto político en este país tendrá que ser no un planteamiento de un partido determinado, subjetivo, una opinión personal de un grupo: será un balance serio y riguroso y objetivo de una etapa de autonomía de este país. Y se tendrá que decir qué ha funcionado bien y qué ha funcionado mal. Y ustedes no son capaces, probablemente porque el balance no es bueno para este país, porque es un balance negativo para este país, porque este país no ha dejado de empobrecerse en estos años. Y es evidente que habrá proyecto cuando haya capacidad de hacer ese balance serio y riguroso.

Y, mientras, este Gobierno seguirá a caballo entre

ez diola inori mesederik egiten.

Egia da, Jáuregui jauna, gure eskuhartzeak Euskal Herrian nere ustez funtsezko erreferentzia bakarra dena izan du erdigune, agian oso gustuko ez dudana, baina bloke honen barruan gelditzen den erreferentzi puntu bakarra dena, Euzko Alderdi Jeltzalea hain zuzen. Eta, nire ustez, datozen urteetako erreferentzi puntua -eta nire desioa da euskal politikan bakarra ez izatea- Euzko Alderdi Jeltzalea izango da. Eta begi-bistakoa da zuok, A eta B arrazoiak direla medio, alternatiba-rolarekin agian aspertu egin zaretela eta une honetan ordezko eta aukera gisa jokatzeko gaitasuna duen alderdia izateari utzi egin diozuela.

Eta bukatzera noa, legebiltzarkide jaun-andreok. Nire ustez eztabaida honetan eztabaidatzen aritu garen funtsezko hitza "egonkortasuna" da. Nik ez dakit zein egonkortasun diozuen zuek. Ez dakit Felipe González ere hilotan eta egunotan errepikatzen ari den egonkortasunaren luzapena denentz. Ez dakit egonkortasun hori den egonkortasuna esaten zuena gaur goizean behar, nonbat, Burtsak, merkataritza-burtsek, eskatzen zutela González jaunaren jarraipena eta egonkortasuna. Nik ez dakit egonkortasuna zer den, nire ustez, horren kontzeptu bihurritua luzatzen ari denentz.

Egonkortasuna ez da sutea gertatzen denean edo ontzi-galtzea gertatzen denean geldi egotea eta zuhaitz baten inguruan murgiltzea, edo ontzi-galtzean egonkortasuna ez da hain zuzen hondoratzen ari den itsas-ontzi gainean jarraitzea.

Egonkortasuna, berriz diogu, ez da hauteskundezenbakien arabera neurtzen, egunotan Diputatuen Kongresuan azaltzen ari den bezala. Egonkortasuna proiektu politiko amankomun eta konpartitu baten sendotasunaren arabera dago. Eta proiektu amankomun eta konpartiturik oraindik ez dugula ikusi diogu eta horretarako arrazoi bat dago: zeren autonomia dugunez geroztik gobernu-aldia zer izan den balantze bat egiten bada bakarrik izango baitugu herri honetan proiektu politiko bat.

Eta balantze serioa eta zorrotza eta objetiboa egin dezagun arte ez da proiektu berririk izango edo oker bideratuta egongo da. Zeren eta herri honetarako hurrengo proiektu politikoa ezingo baita izan halako alderdi baten planteamendua, subjetiboa, talde baten iritzi personala: herri honen autonomi-etapa bati buruzko balantze serioa eta zorrotza eta objetiboa izango da. Eta esan beharko da zertan joan diren gauzak ondo eta zertan joan diren txarto. Eta zuok ez duzue hori egiteko gaitasunik, agian balantzea ez delako ona herri honentzat, balantze negatiboa delako herri honentzat, urteotan herri hau pobretzen joan delako. Eta begibistakoa da balantze serio eta hertsi hori egiteko gaitasuna dagoenean izango dugula proiektua.

Eta, bitartean, Gobernu honek hor jarraituko du

la inactividad en cuestiones en las que no llegan al acuerdo y la inestabilidad cuando definitivamente alguno de los partidos tome una determinada posición. Y seguiremos con un Gobierno con claro carácter provisional. Aunque, evidentemente, insistan y machaquen la posición de la fortaleza, en un claro criterio de que ya saben que "dime de lo que presumes, y te diré de lo que careces".

Insisto, si nosotros, desde el Partido Popular, en estos momentos no estamos fundamentalmente en el Gobierno es porque desde el País Vasco sólo caben dos posiciones políticas claras inequívocas: aquellos que quieren prolongar una situación de debilidad y de agonía de un proyecto socialista, y aquellos que de otra manera, desde otra dirección, quieren introducir auténticas y profundas dinámicas de cambio. Ustedes han escogido, el tripartito, prolongar una situación agónica y no entender que se termina un ciclo en la política de España. Y me parece legítimo y razonable. Pero quienes creemos que hoy la estabilidad está en la alternancia y en el cambio, en el País Vasco y en España, permítanme que les diga necesariamente que ustedes están ante un acuerdo frágil, provisional e inestable.

Gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Muchas gracias.

Ezker Abertzalea Taldeko ordezkariak du hitza. Arrondo andreak du hitza.

La Sra. **ARRONDO IRUIN**: Ardanzaren goizeko diskurtsoan eta ondorengo talde politikoen interbentzioetan nabarmen gelditu da Gobernu hirukoitz honen eta, are gehiago, Parlamentu "vascongado" honen kontinuismoa eta izakera hutsa. Gobernuari dagokionez, hiru partaideok nabarmendu duzue euskal gizartearekiko erantzun-eza: ez eraikuntza nazionalerako, ez garapen ekonomiko eta sozialerako, ez bakearen oinarri diren autodeterminazio eta lurraldetasunaren onarpenerako.

Batetik, bistan da elkar joka ari zaretela Ajuri Eneko Paktua dela eta ez dela. Eta Jáureguik aitortu duen bezala, paktu horretan espero duzuen bakarra kontsentsua mantetzea da ezer aldatu gabe, hau da, orain arteko estrategia polizial eta errepresiboa mantenduz. Beraz, irtenbide polizialik ezin dela eman esaten duzuenean, bistan da zuen ahotan duen balio eskasa. Bistan da zuen huskeria eta menpekotasuna ezker abertzalearen aurkako erasoz estali nahi duzuela, bai kalean eta bai gizartean. Baina hemen ere, Egibar jauna, PNVko bozeramaile hori, oso nabarmena da zuen asmoa, aspaldikoa bestalde: geure artean zatiketa piztearena.

Begira, oso garbi esango dizut: euskal preso politikoen sufrimendua zuen lepora doan ardura eta erantzukizuna da. Zuek, PNVko buruzagiek, diseinatzen duzue euskal abertzale presoen aurkako zigor eta sakabanaketa politika krudela Madrilgo Barne

geldirik akordioa heltzen ez den gaietan, eta egonkortasunik ezean alderdiren batek halako jarrera hartzen duenean. Eta behin-behineko Gobernu batekin jarraituko dugu. Nahiz eta, jakina, behin eta berriz eta gogor aipatu beren jarreraren sendotasuna, argi eta garbi utziz bestalde iritzi hura: "esan zertaz harro sentitzen zaren eta esango dizut zer falta zaizun".

Berriz diot, gu, Alderdi Popularrekook, une honetan Gobernuan ez bagaude funtsean arrazoi hauek direla medio da, hau da, Euskal Herrian bi jarrera politiko zehatz eta zalantzarik gabekoak bakarrik direlako onargarriak: proiektu sozialista baten hilzoria eta ahultasuna luzatu nahi dutenena, eta beste modu batera, beste norabide batetik, aldaketa-dinamika sakon eta benetakoak ezarri nahi dituztenena. Zuek aukeratu duzue, tripartituak, hilzoriazko egoera bat luzatzea eta Espainiako politikan ziklo bat bukatzen ari dela ez ulertzea. Baina egonkortasuna txandaketan eta aldaketan dagoela sinesten dugunoi, Euskal Herrian eta Espainian, zilegi bekigu zuoi esatea, hala behar eta, akordio ahula, behin-behinekoa eta egonkortasunik gabea duzuela.

Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Eskerrik asko.

Tiene la palabra el representante del Grupo Ezker Abertzalea. Tiene la palabra la señora Arrondo.

ARRONDO IRUIN andreak: En el discurso de Ardanza de esta mañana y en las posteriores intervenciones de los grupos políticos ha quedado en evidencia el continuismo y el carácter vacío de este Gobierno tripartito y, más aún, de este Parlamento "vascongado". En lo que respecta al Gobierno, los tres miembros han puesto ustedes en evidencia su falta de respuestas ante la sociedad vasca: ni para la construcción nacional, ni para el desarrollo económico y social, ni para la aprobación de la autodeterminación y la territorialidad como fundamentos para la paz.

Por una parte, salta a la vista que andan ustedes peleándose a propósito del Pacto de Ajuria Enea. Y, como ha reconocido Jáuregui, lo único que esperan de dicho pacto es mantener el consenso sin cambiar nada, es decir, manteniendo la estrategia policial y represiva desarrollada hasta el momento. Por lo tanto, cuando dicen ustedes que no se puede dar una solución policial, salta a la vista el escaso valor que tiene en su boca. Salta a la vista que pretenden disimular su vaciedad y su dependencia atacando a la izquierda abertzale, tanto en la calle como socialmente. Pero también aquí, señor Eguibar, portavoz del PNV, queda totalmente en evidencia su objetivo, un objetivo antiguo por cierto: promover la división entre nosotros.

Mire, le voy a hablar con total claridad: el sufrimiento de los presos políticos vascos es una responsabilidad que les atañe directamente a ustedes. Son ustedes, los dirigentes del PNV, los que diseñan la cruel política de castigo y dispersión contra los presos

Ministeritzan, Atutxa partaide zuzena delarik. Eta zuk zeuk, Egibar jauna, parte aktiboa hartu duzu Salto del Negro-ko kartzelan politika anker horren taktikan. Eta nik esaten dizut alferrik ari zarela geure arteko zatiketa sortu nahian. Horrek zu zeu erretratatzen baitzaitu.

políticos abertzales en el Ministerio del Interior de Madrid, y el señor Autxa interviene directamente en ella. Y usted mismo, señor Egibar, ha participado directamente en la táctica de dicha vil política en la cárcel de Salto del Negro. Y yo le digo que pierde el tiempo en vano intentando crear la división entre nosotros. Eso es algo donde queda retratado usted mismo.

GALi buruz hitz gutxi, eta egia borobila da zuek zeuok ari zaretela, bai Madrilen eta bai hemen, ahalegin guztiak egiten ikerketak burutu ez daitezen. Madrilgo Gobernuak eta zuek jakingo duzue zergatik. Baina egia borobila da GAL sortu zenean zuen gobernukidea den Jáuregui zegoela Espainiako Gobernuaren ordezkari hemen. Egia den bezala PSOEren Gobernuaren estrategia errepresiboarekin bat zatoztela. Gauza bat esango dizut Egibar jauna: HBk GALekin zerikusia duela? Noski baietz: Mahai Nazionaleko bi partaide izan dira, Santi Brouard eta Josu Muguruza, erahilak.

Respecto al GAL poco hay que decir, y la pura verdad es que son ustedes mismos los que, tanto en Madrid como aquí, están intentando por todos los medios impedir el desarrollo de las investigaciones. El Gobierno de Madrid y ustedes sabrán por qué. Pero la pura verdad es que cuando surgió el GAL su socio de Gobierno Jaúregui estaba como Delegado del Gobierno español aquí. Como es verdad asimismo que ustedes comparten la estrategia represiva del Gobierno del PSOE. Le voy a decir una cosa, señor Egibar: ¿que HB está relacionada con el GAL? Por supuesto que sí: dos miembros de la Mesa Nacional, Santi Brouard y Josu Muguruza, han sido asesinados.

Ardanza jaunak ez du ezker abertzalearekin eztabaidarik nahi, arrazoirik eta erantzunik ez duelako. Parlamentu "vascongado" hau ez dugu guk deslegitimatzen, Ardanza jauna; zuk zeuk eta zure kideek burutzen duzue erakunde honen deslegitimazioa, zuen jarrera menpeko eta makur horrek. Zure kide den Egibarrek, PNVko bozeramaileak, ederra bota digu hau "euskal nazioaren Parlamentua" deitu duenean. Ez bakarrik hemen ez daudenei, euskaldun guztioi iraina egin digu bazterkeria horrekin. Hori bai dela benetako deslegitimazioa! Zuek ezin duzue abertzaleen izenean hitz egin, iraindu egiten dituzuelako.

El señor Ardanza no quiere debates con la izquierda abertzale porque no cuenta ni con razones ni con respuestas. No somos nosotros los que deslegitimamos a este Parlamento "vascongado", señor Ardanza; son usted y sus socios, su actitud servil y torcida los que están deslegitimando a esta institución. Valiente despropósito el que hemos tenido ocasión de oír de boca de su compañero Egibar, portavoz del PNV, refiriéndose a éste como al Parlamento de la nación vasca. Con tamaña discriminación ha ofendido no sólo a los que no están presentes aquí, sino al conjunto de los vascos. ¡Eso sí que es una auténtica deslegitimación! Ustedes no pueden hablar en nombre de los abertzales, porque les ofenden.

Ondo dakizue zuen politika maltzur horrek, zuek madrildarren menpe burutzen duzuen estrategia antiabertzale horrek bultzatu gaituela kartzelara, atzerrira, ni neu eta beste hainbeste abertzale. Zuek gaur, tamala bada ere, abertzaleen kartzeleroak zarete. Nire askatasuna, euskal preso politikoen askatasuna, Euskal Herri osoak behar duen alternatiba nazional eta sozialaren bidetik etorriko zaigu. Eta hauxe da Ezker Abertzalearen eta Herri Batasunaren alternatiba.

Saben ustedes perfectamente que esa política maliciosa, esa estrategia antiabertzale que llevan a cabo sometidos a Madrid es lo que nos ha llevado a la cárcel, al exilio, tanto a mí como a muchos otros abertzales. Ustedes hoy en día, aunque sea lamentable, son los carceleros de los abertzales. Mi libertad, la libertad de todos los presos políticos vascos, vendrá a través de la alternativa nacional y social que precisa toda Euskal Herria, una alternativa que es precisamente la de la izquierda abertzale y la de Herri Batasuna.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Muchas gracias.

Hurrena, Euskal Sozialisten izenean, Jáuregui jaunak du hitza.

A continuación, en representación del Grupo Socialistas Vascos, tiene la palabra el señor Jáuregui.

El Sr. **JÁUREGUI ATONDO**: Señor Presidente. Tengo que empezar por decir a la portavoz de Herri Batasuna que hay acusaciones que no son tales, que son insultos y que ofenden a quien las hace, no a quien se dirigen. Y si los insultos proceden de quien no tiene legitimación política alguna para hacerlos, porque apoya o aprueba y hasta aplaude la violencia, para mí son pura basura.

JÁUREGUI ATONDO jaunak: Lehendakari jauna. Hasteko, Herri Batasunako ordezkariari esan behar diot salaketa batzuk irain hutsak baino ez direla izaten, eta iraninduaren ordez iraintzailea ofenditu ohi dutela. Eta iraintzailea baldin bada irainak egiteko zilegitasun politikorik ez duen norbait, hain zuzen ere indarkeria apoiatu edo onetsi eta txalotu ere egiten duelako, niri dagokidanez zabor hutsa dira.

Al señor Mayor Oreja le quiero decir que gran

Mayor Oreja jaunari esan nahi diot bere

parte de su propia intervención ha expresado lo que era nuestra propia argumentación anteriormente. En primer lugar creo que ha quedado bastante claro, señor Mayor Oreja, que toda su estrategia negociadora o no negociadora en todo este proceso para la formación del Gobierno ha quedado perfectamente revelada. Yo creo que el Lehendakari lo ha dejado clarísimo. Si alguien tenía alguna duda, francamente no ha quedado ninguna, ¿no?

Yo creo que ha quedado perfectamente claro que ustedes han ofrecido el apoyo por fuera al Partido Nacionalista Vasco fundamentalmente para que no haya una presencia del Partido Socialista en este Gobierno, y sobre todo pensando en una recomposición de este mismo Gobierno y de las coaliciones municipales y forales después de las elecciones de mayo. Esto lo sabe todo el mundo, y yo creo que se ha puesto aquí de manifiesto. Y esto pone en evidencia que ustedes han tenido una única referencia con sus votos: ustedes únicamente han estado trabajando en la perspectiva de esto que llaman dinámicas de cambio en España, de las que están absolutamente prisioneros, como si no fuera posible que la legislatura española se agotara, se acabara, y ustedes pudieran ganar o no ganar dentro de dos años y medio. Punto. Hay una auténtica obsesión por que esto acabe ya, cuanto antes, hasta el punto de llegar al extremo de decir, como usted ha dicho antes, que la crisis actual es la peor de la democracia, repito que sin ningún tipo de lógica comparativa con lo que ha sido la propia democracia en España.

Creo que, por otra parte, señor Mayor Oreja, usted interpreta mal lo que son los mensajes electorales que hace nuestro electorado. No creo que tenga ninguna lógica, ninguna base sociológica el decir que los electores en Euskadi, para los Socialistas Vascos, les han dicho que vayan a la oposición, y punto; que una derrota electoral como la que hemos tenido tiene que interpretarse única y exclusivamente en clave de que la lección que hay que aprender de ahí es que hay que irse fuera. No. Yo puedo decirle, por poner un ejemplo, que tenemos perfectamente constatado que los electores socialistas que no han votado ahora al Partido Socialista no lo han hecho porque hayamos gobernado con el PNV ocho años. Para nada. Ésa no es en absoluto una razón.

Lo que no nos puede tampoco llevar, como hace usted en mi opinión de una manera absolutamente caricaturesca, a pensar que los 180.000 votos que tiene el Partido Socialista le han dicho a ese partido que se vaya. No. Justamente tenemos que interpretar que hay 180.000 personas que interpretan que como mejor se defienden los intereses de la opción política que ellos han votado es justamente estando en ese Gobierno, participando en ese Gobierno y trabajando incluso con coherencia por el papel que este partido ha venido haciendo en la política vasca en los últimos años y que yo creo que quiere seguir haciendo y que debemos seguir haciendo. Y que además lo vamos a hacer siendo un referente político para el país, con toda legitimidad, con todo orgullo, un referente de izquierdas y de autonomismo que a este Gobierno le viene muy bien, porque le hace, como he dicho antes, un Gobierno más

hitzaldiaren zati handi batek azaldu duela guk aurretik egindako argudiaketa. Lehendabizi, Mayor Oreja jauna, uste dut nahikoa argi geratu dela Jaurlaritza eratzeko prozesu oso honetan zehar negoziatzeko edo ez negoziatzeko jarraitu duzuen estrategia agerian geratu dela. Lehendakariak oso argi utzi duela uste dut. Norbaitek zalantzarik bazuen, benetan, ez da bat ere geratu, ezta?

Uste dut erabat argi geratu dela zuek kanpotik Euzko Alderdi Jeltzaileari eskaini diozuela zuen laguntza, hain zuzen ere Alderdi Sozialista Jaurlaritza honetan egon ez dadin, eta batez ere pentsatu duzuelako maiatzaren ostetik Jaurlaritza hau bera eta udaletako koalizioak berrosatzea. Mundu guztiak daki hori, eta uste dut hemen agerian geratu dela. Eta horrek begi-bistara ekartzen digu erreferentzi bakarra izan duzuela zuen botoekin: ikuspegi bakarrarekin aritu zarete lanean, Espainian aldaketarako dinamikak deitzen duzuen horren ikuspegitik, hain zuzen ere horien gatibu baitzarete, ezinezkoa balitz bezala legegintzaldi espainola bukatzea, azkenera arte irautea, eta urte bi t'erdi barru zuek irabazi ahal izango bazenute edo ez bazenute bezala. Kitto. Benetan desio da hau berehala, lehenbailehen buka dadin, hain zuzen ere esan egin da, zuk esan berri duzun bezala, egungo krisia demokraziak bizi izan duen okerrena dela, inolako logikarik gabe, berriro diot, Espainian demokrazia bera zer izan den konparatzeko orduan.

Uste dut, bestalde, Mayor Oreja jauna, gaizki interpretatzen dituzula gure hautesleek egiten dituzten hauteskunde-mezuak. Ez dut uste logikarik duenik, inolako oinarri soziologikorik duenik, esateak ezen Euskadiko hautesleek, Euskal Sozialistei dagokienez, esan dietela oposiziora joan daitezela, eta kitto; izan duguna bezalako hauteskunde-porrota ikuspegi bakar batetik, eta soilik horretatik, interpretatu behar dela, alegia hortik atera beharreko ikasgaia dela kanpora joan beharra dagoela. Ez. Esan diezazuket, adibide bat jartzearren, zehatz-mehatz dakigula oraingoan Alderdi Sozialistari botoa eman ez dioten hautesle sozialistek ez dutela hori egin zortzi urtez EAJrekin gobernatu dugulako. Ez horixe. Ez da hori arrazoia.

Baina horren arabera ezin dugu ere pentsatu, nire ustez gaia erabat karikaturizatuz egiten duzun bezala, Alderdi Sozialistak dituen 180.000 botoek alderdi horri esan diotela alde egin dezala. Ez. Hain zuzen ere interpretatu behar dugu badaudela 180.000 lagun, interpretatzen dutenak euren botoekin babestu duten aukera politikoaren interesak defendatzeko modurik onena dela Gobernu horretan egotea, Gobernu horretan parte hartzea eta koherentziaz lan egitea alderdi horrek azken urteotan euskal politikan bete izan duen paperagatik, zeren uste baitut paper hori betetzen jarraitu nahi eta behar dugula. Eta egingo dugula, gainera, herriari erreferentzia politiko bat eskainiz, bidezkotasun osoz, harrotasun osoz, ezkerreko eta autonomizaletasunezko erreferentzia bat, hain zuzen ere Gobernu honi oso ondo etorriko zaiolako, zeren bihurtzen baitu iraunkorrago, indartsuago, aunitzago,

estable, más fuerte, más plural, más de izquierdas... todo esto.

Y no es solamente la necesidad de justificar nuestra decisión política lo que me mueve a dar esta argumentación. Lo que me mueve fundamentalmente es la necesidad de explicar que ha habido un partido aquí con responsabilidad, que es el nuestro, que ha negociado una formación de gobierno, y otros que no lo han hecho y que no han sido consecuentes con el propio mandato que -quizás también cupiera interpretar- han tenido ustedes de sus electores.

Y por último, para terminar, una referencia muy breve a lo que es la discusión que hemos mantenido con los representantes de Izquierda Unida. Yo les diré que, en fin, la referencia a que existe en el fondo una diferencia o diferencias fundamentales entre nosotros, en función de que ellos no aceptan el sistema y nosotros sí lo aceptamos, nos lleva a una discusión bastante más compleja que nos obligaría a presentar de inmediato una pregunta, que es a ver cuál es el sistema que ustedes quieren, que no lo conocemos probablemente, ¿no?

Pero, haciendo una referencia si quiere usted de familia, de lo que puede ser el conjunto de la izquierda, a mí me parece que en la historia ha habido tres comportamientos desde la izquierda que son claramente identificables y que tienen ya una consolidación histórica. Ha habido una izquierda diletante, o la "gauche divine", que ha estado siempre haciendo discurso o planteando pocas cosas, sin hacer nunca nada. Ha habido una izquierda que llevó a cabo un modelo, que es el modelo comunista, y que ha tenido -lo digo con toda claridad- aportaciones a la historia de la libertad y contra la dictadura y a la defensa de la clase obrera muy importantes, pero que fracasó rotundamente en su planteamiento, en su modelo, en su sistema y en todo. Y ha habido una izquierda, la que yo creo que representa 40 años de social-democracia en Europa, que ha construido el mejor modelo de justicia, de redistribución y de igualdad conocido en el mundo. A ésa represento yo. A las demás no sé quién.

Gracias.

El Sr. **PRESIDENTE**: Muchas gracias, señor Jáuregui.

Tiene la palabra el señor Egibar, del Grupo Nacionalistas Vascos.

El Sr. **EGIBAR ARTOLA**: Labur bada ere, saiatuko naiz erantzuten lehenengo Ezker Batuko ordezkari den Madrazo jaunari. Ezkerra-eskubi: nik ez dakit esan dudan ezkertiarrak geranik gu. Nik esan dudana da: azken batean teoriak eta liburuek eta ideologiak balio dute, baina batik bat balio dute praktikara eramaten baldin badira. Eta horretarako, begiratu. Beste ezertan sartu gabe, nik uste dut adibide erabat ona dela. Zuek agintean ere bazaudete zenbait tokitan. Estatu espainolean udaletxe bat eduki baldin baduzue erreferentzia bezela -galdera egingo banu, hemengo guztiek esango lukete-, Córdoba da. Eta,

ezkerrekoago... hori guztia.

Eta ez da soilik gure erabaki politikoa justifikatzeko beharra argudiaketa hau aurkeztera bultzatu nauena. Bultzatzen nauena da, funtsean, zera azaldu beharra, alegia alderdi bat, gurea, arduratsua izan dela, gobernu-eraketa bat negoziatu duela, eta beste batzuk, berriz, ez duzuela hori egin eta ez zaretela kontsekuenteak izan -beharbada zilegi litzateke hori ere interpretatzea- zuen hautesleengandik jaso duzuen aginduarekin.

Eta azkenik, bukatzeko, aipamen oso laburra Ezker Batuaren ordezkariekin izan dugun eztabaidari buruz. Zera esango diet, hara, gure artean funtsezko diferentzia bat edo batzuk daudela esateak, hain zuzen ere eurek ez dutelako sistema onartzen eta guk onartzen dugulako, pizten digu eztabaida aski zailago bat, behartuko gintuzkeena berehalakoan galdera bat aurkeztera, hau da, zein ote den zuek nahi duzuen sistema, zeren ziur asko ez baitugu ezagutzen, ezta?

Baina, ezkerraren osotasunari buruz, nahi baduzu, famili arteko aipamen bat eginez, niri iruditzen zait ezkerrean historian zehar hiru jokaera egon direla, argi eta garbi identifika daitezkeenak eta dagoeneko historikoki finkatuta daudenak. Ezker diletantea edo "gauche divine" izan da, denbora guztia eman duena dikurtsoa egiten edo gauza gutxi planteatzen, inoiz ezer egin gabe. Ezker bat izan da eredu bat aurrera eraman zuena, hain zuzen eredu komunista, eta oso ekarpen garrantzitsuak egin dituena -argi eta garbi diot- askatasunaren historian eta diktaduraren aurka eta langileriaren defentsan, baina erabateko porrota izan zuena bere planteamenduari, bere ereduari, bere sistemari eta guztiari dagokienez. Eta ezker bat izan da, nire ustez Europako sozial-demokraziaren 40 urteek isladatzen dutena, munduan ezagutzen den justizi, birbanaketa eta berdintasun eredurik onena eraiki duena. Horren ordezkaria naiz ni. Gainerakoen ordezkaria nor den ez dakit.

Eskerrik asko.

LEHENDAKARI jaunak: Mila esker, Jáuregui jauna.

Egibar jaunak du hitza, Euzko Abertzaleak Taldearen izenean.

EGIBAR ARTOLA jaunak: Brevemente, intentaré responder en primer lugar al representante de Izquierda Unida, señor Madrazo. Derechas e izquierdas. Yo no creo haber dicho que nosotros somos de izquierdas. Lo que yo he dicho es que, al fin y al cabo, las teorías y los libros tienen su valor, pero que tienen su valor, sobre todo, si son llevados a la práctica. Y para ello, mire, sin entrar en otros aspectos, creo tener un buen ejemplo. Ustedes también están en el poder en algunos sitios. Si han tenido ustedes algún ayuntamiento como referencia en el Estado español -si lo preguntara aquí todos responderían lo mismo-, ése ha sido el de

gainera, hantxe ezagutu nuen nik Anguita 84an, eta errespetatzen dudan politiko bat da, eta zenbait gauzatan gustatzen zaidana ere bai. Ba, begiratu, jakin ezazu -beharbada jakingo duzu-, Córdoban aplikatu diren politika aurrerakoi, progresista guztiak kontutan edukita -eta ontzat ematen ditut-, badakizu nora etorri diren hango arduradunak zerbitzu sozialak eta antzeko programak ikusi, aztertu eta ikastera? Gasteizko Udaletxera. Etorri berriak dira. Ikastera etorri dira. Maria Jesús Aguirrerengana (María Jesús Aguirre eta Cuerda jauna Euzko Alderdi Jeltzalekoak dituzu).

Beraz, nik gauza bat esango dizut. Beharbada ezagutuko dituzu eta irakurriak izango dituzu, gainera, gure ponentziak eta nolabaiteko gure modelo sozio-ekonomikoak; bestela, bidaliko dizkizut 77tikan honuntza Euzko Alderdi Jeltzaleak idatzi eta argitaratu dituenak, baina, batik bat, praktikara eraman dituen adibideak ere bai. Eta hor ikusten da zein den aurrerakoia eta zein ez. Eta gure politikagintzan, gure herrigintzan erreferentzia bat baldin badaukagu da pertsona, gizona ala emakumea, zaharra edo gaztea, dotatua edo inkapazitatua, baina pertsona. Eta, gainera, garbi esango dizut, inor konfunditu ez dadin behintzat: guk "gora Euskadi askatuta!" esaten dugunean, ez dugu kontzeptu abstrakto baten askatasuna eskatzen, azken batean gizon-emakume askeak nahi ditugu. Eta lanik ezaren zama edo ezbehartasun baten zama daukan pertsona ez da libre izango. Eta lotura horiek, kate gogor horiek askatzea da gure gizarte politikan modeloa eta praktika.

Halaz guztiz ere, eta gero Jaime Mayor Orejak ere aipatu du, besteak beste, eta sarritan esaten du gainera publikoki eta egokitzen zaion toki guztietan, alegia gu Euskal Herria pobretzen ari garela. Eta amnesia beldurgarria daukazu zuk. Hemen badirudi 77ra bitarten inor ez dela egon, ez agintzen ez gestionatzen. Eta zure aurrekoek, eta familian ez oso urrutikoek, agindu dute hemen zenbait urtetan, eta zuen jendeak agindu du hemen. Eta momentu honetan daukagun krisia kontutan edukita, sektore indartsu eta gordinenek porrot egin dutenean, berrindustrializazio horrek duen lana eta eskatzen duen ekimena, hori da Gobernu honen egitekoa.

Eta, gainera, hori hala izan dela eta hala izango dela ere aurrera begira ziurtatzeko, bi datu emango dizkizut. Asko hitz egin da ekonomiaz hemen. Lehendakariak aipatu ditu datu batzuk eta testuingurua ere azpimarratu du. Euskal ekonomiak, ingurukoekin alderatuz, bi bereizgarri dauzka gaur egun: bat, euskal ekonomia gogor ari dela hazten; europar estatuetan lehenengoetan dagoena, goi-mailan. Hirugarrengo trimestrean ehuneko 3,5 hazi da euskal ekonomia. Estatu Batuak bakarrik daude ehuneko 4rekin. Estatu espainolean 2,3 igo da, eta Japonen 0,9; Alemanian 2,9. Hazkunde ekonomikoa. Eta gehiago esango dizut: Epe Ertainerako Ekonomi Plangintzak, Legebiltzar honetan aztertu eta onartutako plan hark, bazuen halako proiekzioa denboran, eta gaurko fetxa honek, hau da, urtearen amaierak, bazuen bere prebisioa. Prebisio haiek

Córdoba. Y, además, allí fue donde conocí yo a Anguita en el 84, y es un político al que respeto y del que hay algunas cosas que me gustan. Pues, mire usted, usted debe saber -tal vez ya lo sepa-: teniendo en cuenta todas las políticas progresistas que se han aplicado en Córdoba -políticas que apruebo- ¿sabe usted adónde han venido los responsables de dicho ayuntamiento a ver y analizar programas y a aprender? Al Ayuntamiento de Vitoria. Han llegado recientemente. Han venido a aprender. Han acudido a María Jesús Agirre, y María Jesús Agirre y José Angel Cuerda son del Partido Nacionalista Vasco.

Por lo tanto, yo le diré una cosa. Probablemente haya leído nuestras ponencias y seguramente conocerá nuestro modelo socio-económico. De no ser así, le haré llegar lo que ha escrito y publicado al respecto el Partido Nacionalista Vasco desde 1977, pero también, sobre todo, referencias de proyectos que ha llevado a la práctica. Y eso es lo que demuestra quién es progresista y quién no lo es. Y si hay una referencia en nuestra actividad política y social, ésa la constituyen los hombres y las mujeres, tanto los viejos como los jóvenes, los dotados como los incapacitados, pero personas al fin y al cabo. Y, además, lo diré claramente, para que nadie se lleve a engaño: cuando nosotros decimos "gora Euskadi askatuta", no estamos reivindicando libertad para un concepto abstracto, ya que lo que queremos en definitiva es tener hombres y mujeres libres. Y, así, la persona que tenga que soportar el peso del paro o de otro tipo de desgracia no será libre. Y nuestro modelo y nuestra práctica de política social consisten, precisamente, en liberar a las personas de esas cadenas, de esa ataduras.

En cualquier caso, luego ha venido el señor Jaime Mayor Oreja y ha dicho, tal y como acostumbra decir en público cada vez que tiene ocasión de ello, que nosotros estamos llevando al País Vasco a una situación de pobreza. Y es que usted padece de una tremenda amnesia. Aquí parece que hasta el 77 no ha habido nadie gestionando, mandando. Y han sido sus predecesores, sus familiarmente no muy lejanos predecesores, los que han mandado aquí durante años, han sido gentes suyas las que han mandado aquí. Y ante la situación de crisis que estamos atravesando, cuando estamos asistiendo a la desaparición de los sectores más fuertes, es precisamente en ese sentido, en el de la reindustrialización, en el que tiene que ir la labor de este Gobierno.

Voy a dar dos datos que demuestran que eso ha sido así y que seguirá siendo así en el futuro. Aquí se ha hablado mucho de economía. El Lehendakari ha aportado algunos datos y ha hecho referencia también al contexto. La economía vasca, si la comparamos con las de su entorno, tiene dos particularidades: en primer lugar, la economía vasca crece a un fuerte ritmo, anda por los primeros puestos en relación con los Estados europeos. Durante el tercer trimestre la economía vasca ha crecido un 3,5 por cien. Sólo Estados Unidos le supera con un 4 por cien. En el Estado español la economía ha crecido un 2,3, y en Japón el 0,9; en Alemania el 2,9. Crecimiento económico. Y le diré más: el Plan Económico a Medio Plazo, aquel plan que en su día debatimos y aprobamos en este Parlamento, tenía una proyección en el tiempo, y la fecha actual, es decir,

batzuek zuhurtzat jo zituzten; beste batzuek, berriz, gehiegizkotzat. Gaur, batekoz beste, lanpostuei dagokienez, enplegatuei dagokienez, herri honetan momentu honetan 703.000 pertsona baldin badaude enplegatuta, prebisioa 680.000koa zela; beraz, aldeko 23.000 mila lanpostu daudela. Eta azken trimestrean herri honetan "empleo neto" esaten dena sortu egin dela, 17.600 lanpostu, beste inon gertatu ez dena. Eta, batekoz beste, urtean zehar euskal ekonomiak 2'5eko hazkundea izango duela.

Horiek ere datu jakinak dira. Eta hori gertatu baldin bada, izan da, besteak beste, herri honek eta herri honetako instituzioek (Eusko Jaurlaritzak, diputazioek batik bat, eta baita ere neurri batetan udaletxeek) egin duten lan amankomunari esker, eta politika industrial jakin bat egon delako, jakinda zenbait momentutan fondo asko enpresei eusteko bakarrik izan direla, aldez aurretik jakinda enpresa horietako asko erori egingo zirela. Eta erorketa hori makaldu egin da. Orduan, ez dezagun esan, behintzat datuak azaltzen ez baldin badira agerian, gu, euskal instituzioetako arduradunok, herri hau pobretzen ari garenik.

Esan duzu, besteak beste, lehendakariarekin izan dituzun elkarrizketa direla eta, amona zahar kontakatilu baten modura jokatu duela lehendakariak. Zuk zeuk sartu duzu hemen elkarrizketa kontua hasiera-hasieratik. Eta zati bat bakarrik kontatu duzu. Eta publikoki esan dituzunak, gero jendeak benetako konposizioa eduki dezan, osatu egin behar dira. Eta gauza bat esango dizut: lehendakariak oso memoria ona dauka, e!; hau Elorriokoa da, baina Caja Laboral-en sendotutakoa; memoria ona, eta oso ondo apuntatzen du. Eta hori hala izan da. Zuk orain orraztu eta nahi duzun bezela tolestatu. Baina hori hala izan da.

Ajuria Eneko Hitzarmena dala eta, irizpideak irizpide, garbi daukagu gauza bat: ez zuek eta guk bakarrik, gainontzeko alderdi politikoek ere bai, lehenengo saioan ez baldin bada ez dakit noiz, 17 puntu horien argazkia atera beharko dugula. Baina ez zazpi alderdi edo sei alderdi politikoren argazkia kanpora begira, baizikan puntuz puntu bakoitzak bere iritzia eman beharko duela, eta hor mahai gainean jarriko dana izango dela hasierako benetako paktu horren esanahia. Eta bakoitzak bere argazkia azaldu beharko duela hor, eta ikusiko dugu zenbaterainoko unanimitatea daukagun.

Eta, azkenik, Herri Batasunako ordezkariari, ez dakidana da zergatikan Goirizelaia parlamentari andere txit argiak eskatu didan neri mesedez erderaz mintzatzeko. Ba, sentitzen dut, berak euskeraz egin du eta nik ere euskeraz jarraituko dut.

Aipatu duzu kontinuismoa berriz. Agian, beharbada, igual kontinuismoan gabiltza, baina edozeinek esango luke zuek ere lasterka bizian zabiltzatela aldatzen e! Lehengoari eusten diozue eta hortxe zaudete, baina ez aurrera egiteko asmoarekin; atzeraka. Eta hortxe zaudete anklatuta, atrintxeratuta,

finales de año, contaba con una previsión. Algunos consideraron que las previsiones se quedaban cortas; a otros, en cambio, les parecían excesivas. Si en la actualidad tenemos más o menos un total de 703.000 personas con empleo, la prevision era de 680.000; por lo tanto, tenemos 23.000 puestos de trabajo más de los previstos. Y durante el último trimestre se ha creado lo que se llama "empleo neto", es decir, 17.600 puestos de trabajo, cosa que no ha ocurrido en ningún otro lado. Y la economía vasca tendrá, de media, un crecimiento del 2,5.

Son datos que se conocen. Y todo ello ha sucedido gracias al trabajo en común realizado por este pueblo, por las instituciones de este pueblo (Gobierno Vasco y Diputaciones, sobre todo, aunque también en gran medida los Ayuntamientos), y porque se ha desarrollado una determinada política industrial, a sabiendas a veces de que los fondos que se destinaban a ciertas empresas no servirían más que para mantenerlas, a sabiendas de que muchas de esas empresas iban a caer. Dicho declive se ha detenido. Por lo tanto, a no ser que aporte datos para demostrarlo, no diga que nosotros, los responsables de las instituciones, estamos contribuyendo al empobrecimiento de este país.

Respecto a las conversaciones que han mantenido ustedes con el Lehendakari, dice usted que el Lehendakari ha actuado como una abuelita chismosa. Ha sido usted quien se ha referido desde un principio a las conversaciones. Pero sólo ha contado una parte. Y las cosas que ha manifestado públicamente hay que completarlas, para que la gente pueda tener una idea verdadera del asunto. Y le diré una cosa: el Lehendakari tiene muy buena memoria; es de Elorrio, pero se ha formado en Caja Laboral; tiene buena memoria y apunta muy bien las cosas. Y eso ha sido así. Usted ahora píntelo y arréglelo como quiera. Pero eso ha sido así.

En cuanto al Pacto de Ajuria Enea, cada cual tendrá sus criterios, pero nosotros desde luego vemos clara una cosa: no sólo ustedes y nosotros, sino que también el resto de partidos políticos, deberemos, si no es en la primera reunión en otra, sacar cada uno nuestra radiografía sobre esos 17 puntos. Pero no se trata de que seis o siete partidos políticos hagan una radiografía de cara al exterior, sino de que cada uno tendrá que dar su opinión respecto a cada uno de los puntos, y ése será el verdadero sentido del pacto inicial. Así, cada uno tendrá que mostrar su radiografía, y entonces veremos hasta qué punto existe unanimidad entre nosotros.

Y, finalmente, le quiero decir a la representante de HB, Jone Goirizelaia, que no sé por qué me ha rogado que hable en español. Yo lo siento, pero ella se ha expresado en euskera y yo también voy a continuar expresándome en euskera.

Ha vuelto a hablar de continuismo. Tal vez sí, puede que seamos continuistas, pero cualquiera diría que ustedes andan muy apresurados por cambiar, ¿eh? Se mantienen en su postura, sin ninguna intención de avanzar, sino todo lo contrario. Y ahí están ustedes, anclados, atrincherados, dueños de una razón absoluta,

arrazoi osoarekin, burbuila moduko zerbaiten barruan. Zuen oxigenazioa daukazue, eta hortxe zaudete, gustora. Zuen mundua osatuta daukazue, zuen mundu horretatikan kanpo ez dago ezer txukunik, onargarririk.

GAL aipatu duzu. Eta GALen ekintzek herri honi kalte asko egin diote. Nik esan dizudan bakarra da Euzko Alderdi Jeltzaleak ez duela inongo harremanik izan, ez dagoela fantasma moduan darabilkizuen maletin famatu hori; eta zuek esaten zenutela hor zeudela ez dakit zer datu, eta hemen gauza jakina dela bestea. Nik ez dut esango zuen gustoz eduki zenutenik harremana GALekin, baina eduki, eduki zenuten, zoritxarrez. Ez dakit zenbat denboran, eta Jaungoikoak daki zertan gainera, baina ez guk.

Euskal presoak aipatu dituzu. Nik baino hobeto ezagutzen duzu errealitate hori. Esan genizuen pribatuan, elkarrizketetan; gauza bera esan dugu espetxe guztietan, preso guztiei: guk ez dugula pausorik emango, ezta pauso bat bera ere, kolektibo hori apurtzeko. Bi, guk ez dugula pausorik eta ekintza politikorik asmatuko MLNV deritzan multzo edo Herri Batasuna hausteko. Zerbait gertatzen baldin bada momentu honetan da -eta hori paranoia hutsa da- zuek, Mahai Nazionalean zaudeten guztiok, orain dela gutxi egin dituzuen seminario horietan, hor ikusi duzuela zuek benetan zatiketaren mamua; zuek ikusi duzue. Guk -ez gara hain injenuoak-, guk badakigu kanpotikan hor ezin dugula ezertxo ere egin. Guk nahi genukeena da mundu horrek ere korrika pixka bat egitea, pauso batzuk ematea. Hori da nahi duguna. Baina ez dugu asmatzen. Kanpotik esanda ez du balio, barrutik zer esango dugu ba? Hori ez da gure asmoa izan.

Eta Salto del Negro-ko pasaje horretaz, errespetoz, lehenbizi hitz egin genuen pertsonarekin hitz egin ondoren -bi izan ziren; haiek ez dute defentsarako posibilidaderik hemen-, errespetatu egingo dut beraien iritzia. Baina inork maltzurkeriaz jokatu bazuen kasu hartan, izan ziren alboan daukazun Landa eta beste Landa. Zergatik zuek, eta Jone Goirizelaiak, aprobetxatu zuen -ikusten duzu nik ere memoria txukuna daukadala- Arrasateko Txomin Iturberen omenaldi batean zuk esan zenuen ETAk kartzelatikan PNVri ostikada bat eman ziola, mitinean. Eta hurrengo egunean "Egin"en atera zenuten karta bat, Zabartek idatzitakoa alegia. Zabartek ez zuen karta hura idatzi. Eta horrekin debate batean esan nion "atera Zabarteren karta!" -"Egin"en geundenean-, "atera Zabarteren karta! Ezetz atera!". Ez zuen atera, ez zegoelako kartarik. Gero aitortu zuen alboko horrek Zabartek diktatu egin ziola, eta bere txorroxkiloak sartu zituen tartean. Eta guk ez dugu inongo pausorik eman sentidu horretan, ezta emango ere. Bai aitortzen dizut, bai aitortzen dizut, geroz eta gehiago ari garela jasotzen presoen kartak, beraiek beraien askatasuna erabiliz alderdiarengana zuzentzen ari direla. Zer egin nahi dugun? Ba, ahal duten neurrian, bere bizimodua berrantolatu nahi baldin badute, askatasun-egoera bat lortu dezatela. Zuek antzeko zerbait bazenute, deitu besterik ez duzu. Guk ez degu inor barruan eduki nahi. Kanpoan, ahal bada. Eta horretarako badakizu zer

dentro de una especie de burbuja. Tienen su oxígeno y ahí están, se encuentran a gusto. Tienen configurado su propio mundo, fuera del cual no hay nada bueno, nada aceptable.

Ha mencionado al GAL. Las acciones del GAL han hecho mucho daño a este país. Yo lo único que le he dicho es que el Partido Nacionalista Vasco no ha tenido ninguna relación, que ese maletín fantasma que ustedes mencionan no existe. Ustedes decían que dentro de aquel maletín había no sé qué datos, mientras que aquí todo el mundo sabe que no voy a decir que por su gusto, pero los que han tenido alguna relación con el GAL, desgraciadamente, han sido ustedes. No sé durante cuánto tiempo, y sólo Dios sabe en qué consistieron.

Ha mencionado a los presos vascos. Conoce mejor que yo esa realidad. Se lo dijimos en nuestras conversaciones privadas y lo hemos repetido en todas las cárceles, se lo hemos dicho a todos los presos: nosotros no vamos a dar un solo paso para destruir ese colectivo. En segundo lugar, que no vamos a dar ningún paso ni vamos a diseñar ninguna política de derribo del llamado MLNV o de Herri Batasuna. Lo único que sucede hoy en día -y es algo que es pura paranoia- es que ustedes, los que están en la Mesa Nacional, en esa especie de seminarios que recientemente han celebrado, acaban de ver el fantasma de la escisión, lo han visto ustedes mismos. Nosotros somos conscientes -no somos tan ingenuos- de que desde fuera no podemos hacer nada ahí. Nosotros lo que quisiéramos es que ese mundo avanzara algo, que diera unos pasos adelante. Eso es lo que nosotros queremos. Pero no acertamos. Si lo decimos desde fuera no vale, ¿cómo pretenden que lo digamos desde dentro? Nosotros no hemos pretendido nada de eso.

En cuanto al episodio de El Salto del Negro, en cuanto a la conversación que mantuvimos al principio con aquellas dos personas, tengo que decir que ellos no tienen la posibilidad de defenderse aquí, por lo que respetaré sus opiniones. Pero si alguien actuó con astucia en el caso fueron, precisamente, el señor Landa que está sentado a su lado, así como el otro señor Landa. ¿Por qué se aprovecharon de la ocasión ustedes y Jone Goirizelaia -como verá, yo también tengo buena memoria- y dijeron durante el mitin-homenaje a Txomin Iturbe en Arrasate que ETA había dado una patada al PNV desde la cárcel? Y al día siguiente publicaron una carta en "Egin", supuestamente escrita por Zabarte. Zabarte no escribió aquella carta. Y en una discusión que tuve con dicha persona -cuando estábamos en "Egin"-, le dije: "¡Saque la carta de Zabarte!, ¡saque la carta de Zabarte!, ¡a que no la saca!" No la sacó, porque no había carta. Más tarde reconoció el que se sienta a su lado que Zabarte se la dictó; luego, él censuró lo que le pareció. Por lo tanto, nosotros no hemos dado ningún paso en ese sentido, ni lo daremos. Reconozco, efectivamente, que son cada vez más las cartas de presos que estamos recibiendo, cartas que ellos libremente escriben a nuestro partido. ¿Qué pretendemos nosotros? Nosotros queremos que si ellos, en la medida de sus posibilidades, optan por reorganizar sus vidas, puedan disfrutar de una situación de libertad. Cualquiera que así lo desee puede hacerlo, no tiene que

egin behar den. Beste erabaki bat hartu behar da, eta erabaki hori hartzen baldin bada, gauza errezago izango da.

Eta amaitu nahi dut Parlamentuari buruz... Amaitu zait denbora?

El Sr. **PRESIDENTE**: Bai, bai.

El Sr. **EGIBAR ARTOLA**: Berriz ere "vascongado" kontuarekin. Bakar-bakarrik adibide bat jarriko dizut, gustatu ala ez gustatu. Zuek Parlamentu "vascongado" esaten duzue, ez dakit zergatik. Asmatu zenuten hori eta hor lelo horrekin zabiltzate bueltaka. Begiratu nola egin duten Alemanian beraien reunifikazioa, autodeterminazio-eskubidea erabiliz: "República Federal Alemania". Ez da izan "de Alemania, ni Alemana". "Alemania" izan da. Eta besteak ziren "República Democrática Alemana", eta besteak, federalak, ziren "Alemania". Eta gaur, autodeterminazio-eskubidea erabiliz, lortu dute batasuna. Eta alemanak ziren denak, nahiz eta instituzionalki eta politikoki, edo juridikoki, batzuk bakarrik onartuak egon. Eta beste adibide bat jarriko dizut. Guk markoa onartzen dugu. Gustatuko litzaigukeena ez da izango agian, baina Arafatek akordioa burutu duenean bere Jerusalem horri uko egin ez dion bezela, Euzko Alderdi Jeltzaleak ere ez dio ez Nafarroari, ez Iparraldeari uko egin, zergatik gure mezua, jakin ezazu, gogora ekartzen dizut, "zazpiak bat"ekoa da.

El Sr. **PRESIDENTE**: Eskerrik asko, Egibar jauna.

Finalizado el debate, se suspende la sesión hasta las nueve y media. Quiero advertir que, una vez iniciado a las nueve y media el proceso de votación, se cerrarán las puertas. Por lo tanto, ruego puntualidad.

Se suspende la sesión a las veintiuna horas y diecinueve minutos.

Se reanuda la sesión a las veintiuna horas y treinta minutos.

El Sr. **PRESIDENTE**: Bilkurari berriro ekiten zaio. Se reanuda la sesión.

Araudiko 129. artikuluan ohartemandako boto-emanketa egingo da. Hau, Araudiko 77. artikuluari jarraiki, papertxoen bidez egingo da. Denek ulertu dezazuten... Va a procederse a la votación prevista en el artículo 129 del Reglamento, votación que, de acuerdo con el artículo 77 del Reglamento, se realizará mediante papeletas. Recuerdo a sus señorías que en las papeletas sólo cabe escribir el nombre del candidato a Lehendakari o entregarlas en blanco. Cualquier otra papeleta será considerada nula.

Procédase a determinar el parlamentario por el que se iniciará la votación. *(Pausa.)*

hacer otra cosa más que llamarnos. Nosotros no queremos ver a nadie dentro, sino fuera, a poder ser. Y para eso ya sabe lo que hay que hacer. Hay que tomar otra decisión, y si se toma esa decisión, la cosa será más fácil.

Quisiera terminar refiriéndome al Parlamento... ¿Se me ha acabado el tiempo?

LEHENDAKARI jaunak: Sí, sí.

EGIBAR ARTOLA jaunak: Otra vez con lo de "vascongado". Sólo le pondré un ejemplo, le guste o no le guste. Ustedes llaman "vascongado" a este Parlamento, no sé por qué. Se les ocurrió un día y desde entonces siguen a vueltas con ello. Fíjense en cómo han realizado la reunificación alemana, poniéndo en práctica el derecho de autodeterminación: "República Federal Alemania". No han puesto "de Alemania" ni "Alemana". Han puesto "Alemania". Unos se llamaban "República Democrática Alemana", y los otros, los federales, "Alemania". Y hoy han llegado a reunificarse poniendo en práctica el derecho de autodeterminación. Todos eran alemanes, aunque institucional y políticamente, o jurídicamente, sólo estuvieran reconocidos una parte de ellos. Y le pondré otro ejemplo. Nosotros aceptamos el marco. No será seguramente el que nos gustaría que fuera, pero, al igual que Arafat no ha renunciado a Jerusalem cuando ha llegado al acuerdo a que ha llegado, el Partido Nacionalista Vasco tampoco renuncia a Navarra ni a Iparralde, porque nuestro mensaje, téngalo presente, es el de "zazpiak bat".

LEHENDAKARI jaunak: Muchas gracias, señor Egibar.

Eztabaida amaiturik, eten egingo dugu bilkura bederatzi t'erdiak arte. Jakinarazi nahi dizuet ezen behin bederatzi t'erdietan botazioa hasiko denean itxi egingo ditugula ateak. Garaiz etorzeko eskatzen dizuet, beraz.

21ak eta 19 minutu direla eten da bilkura.

21ak eta 30 minutu direla berrekin zaio bilkurari.

LEHENDAKARI jaunak: Se reanuda la sesión. Berriro ekingo diogu.

Vamos a proceder a la votación prevista en el artículo 129 del Reglamento. Dicha votación, de acuerdo con el artículo 77 del Reglamento, se realizará por medio de papeletas. Para que todos lo entiendan... Araudiko 129. artikuluan aurrikusitako botazioa egingo da. Botazioa, Araudiko 77. artikuluari jarraiki, papertxo bidez egingo da. Oroitarazten dizuet papertxo bakoitzean lehendakariagaiaren izena idatzi edo zuri uztea, besterik ezin daitekeela egin. Bestela entregaturiko papeletak oro baliogabetzat joko dira.

Erabaki bedi zein legebiltzarkiderengandik hasita egingo dugun botazioa. *(Isilunea.)*

El Sr. Secretario Primero procede al llamamiento de los señores parlamentarios a partir del Sr. Intxaurraga Mendibil, a fin de efectuar la votación.

Efectuada la votación, el resultado fue el siguiente: votos emitidos, 63; votos en blanco, 21; votos a favor del Sr. D. José Antonio Ardanza Garro, 42; votos nulos, ninguno.

El Sr. **PRESIDENTE**: Beraz, José Antonio Ardanza Garro jaun txit gorena Eusko Jaurlaritzako lehendakari lez hautatua izan da. En consecuencia. queda designado Lehendakari del Gobierno Vasco el excelentísimo señor don José Antonio Ardanza Garro. *(Aplausos.)*

Datorren astelehenean, urtarrilak 2, eguerdiko ordu batean izango da Gernikako Batzar Etxean lehendakariaren zin egiteko eta bere karguaz jabetzeko ospakizuna.

El lunes, día 2 de enero, a la una del mediodía, tendrá lugar el acto de jura y toma de posesión del Lehendakari en la Casa de Juntas de Gernika.

Bilkurari amaiera ematen zaio. Se levanta la sesión.

Eran las nueve horas y cuarenta y siete minutos.

Lehen idazkari jaunak dei egin die legebiltzarkide jaun-andreei, Intxaurraga Mendibil jaunarengandik hasita, botoa eman dezaten.

Botazioa eginda, hauxe izan da emaitza: emandako botoak, 63; zuriak, 21; José Antonio Ardanza Garro jaunaren aldekoak, 42; nuloak, bat ere ez.

LEHENDAKARI jaunak: En consecuencia, queda designado Lehendakari del Gobierno Vasco el excelentísimo señor don José Antonio Ardanza Garro. Beraz, José Antonio Ardanza Garro jaun txit gorena Eusko Jaurlaritzako lehendakari hautatua izan da. *(Isilunea.)*

El lunes, día 2 de enero, a la una del mediodía, tendrá lugar el acto de jura y toma de posesión del Lehendakari en la Casa de Juntas de Gernika.

Datorren astelehenean, urtarrilak 2, eguerdiko ordu batean izango da Gernikako Batzar Etxean lehendakariaren zin egiteko eta karguaz jabetzeko ekitaldia.

Se levanta la sesión. Amaitu da bilkura.

21ak eta 47 minutu direla amaitu da bilkura.

Imprime : Parlamento Vasco
Becerro de Bengoa, 01005 Vitoria-Gasteiz

Inprimatzaile : Eusko Legebiltzarra
Becerro de Bengoa, 01005 Vitoria-Gasteiz